



## Urkullu, Erreka enpresan

Tapia, Sotil eta Zubeldia  
ere izan dira | 2



Urkullu azalpenak entzuten. | J. BILBAO

Emakumeen Bira berriro ere  
Debagoiengan hasiko da | 26



Gizartearen eta Udalaren arteko "partaidetza  
sendotu" nahi du Elena Letek | 14



Kantariaren entseguak bihar,  
zapatua, hasiko dira | 28



## Ezustean, libre

Akordio aitzindaria lortu dute guztien artean, "gatazkaren  
gaindipenari begira baliagarria" izan daitekeena | 2 eta 11. orriak

Mikel Garaiondo, Ino Galparsoro, Aittor Arantzabal eta Mikel Zubimendi, atzo, Donostian. | GOIENA

# la hamaika milioi euroko aurrekontua izango du Debagoieneko Mankomunitateak

Oraingo astean onartu dute gobernuaren  
proposamena, EH Bilduren abstentzioarekin | 3



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Txotx denboraldiaren gaineko erreportajea
- Juan Martin Elexpuru idazlearekin berbetan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

### SINADURAK

Espainiaren tragedia komikoa | 7  
MARIJO DEOGRACIAS

7 | Zer esan?  
GOIATZ ARANA

Korea | 10  
HORAZIO ARGARATE

16 | Parte hartzailea  
SAIDA GARITANO

Badator Kintada Eguna! | 20  
XABI URIARTE

40 | Tobera, agur  
MIKEL IRIZAR

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 7 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 | KULTURA 28 | GAZTEAK 33  
ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

9:00-14:00 Seber Altube Plaza

# HILEKO 3. ZAPATUA

Urtarrilak 16 2016 | Otsailak 20 / Martxoak 19 / Apirilak 16 / Maiatzak 21 / Ekainak 18 /  
Uztailak 16 / Irailak 17 / Urriak 15 / Azaroak 19



# "Molde berri bati ateak irekitzen dizkio" 04/08 sumarioako akordioak

- ▶ Fiskalaren proposamena onartu dute alde guztiek
- ▶ Hari esker, auzipetuak ez dira kartzelara joango

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Atzo, eguena, prentsaurrekoa eman zuten 04/08 sumarioan inputatuta egon direnek, tartean zirela Ino Galparsoro, Aitor Arantzabal, Mikel Zubimendi eta Mikel Garaiondo debagoiendarrak.

Oraingo asteko astelehenean sumarioako fiskalak planteatutako eta 04/08an inplikaturako alde guztiek onartutako akordioa "poztekoa" dela diote, "auzipetuetako inor kartzelara ez dela bueltatuko bermatzen duelako eta espetxeak husteko garaia delako".

Are gehiago, harago joanez, akordio horren eredugarritasuna nabarmendu gura izan dute, Marije Fullaondoren hitzetan: "Gure iritziz, molde berri bati ateak irekitzen dizkio akordio horrek; alde guztiek ahalegina egin dute soluzioak topatzeko eta, gure iritziz, salbuespen legedi eta poli-

tiken aroaren amaierari ekiteko. Gure iritziz, oso garrantzitsua da alde guztiak asebetetzen dituen akordioa erdietsi izana, eta, zentzu honetan, akordioa erdiesteko alde guztiek, bai akusazio publikoak bai eta AVT eta Dignidad y Justicia akusazio partikularrak, eginiko ahalegina ere aitortzen dugu, bai eta Auzitegiak berak eginikoa. Horrela, bada, espero dugu formula hau baliagarria suertatzea gatazkaren ondorioen gaindipenari begira (...) Akordioaren edukiek alde guztien adostasuna lortu dute eta eredu izan daitezke antzeko egoerei eta salbuespenzko legediari amaiera emateko".

## "Kostu humanoa"

Horiek esanda, hori bai, hamar urtez luzatu den "prozedura guztia jazarpen politiko hutsa" izan

dela berretsi dute, adierazita "kostu humano handia" izan dela: "Auzipetu guztien artean 55 urte eman ditugu espetxean eta 1.300.000 euro ordaindu fidantzetan", jarri dute adibide modura.

## Biktimei aitortza

Edozein modutan, amaitu da 04/08 sumarioari dagokion epaiketa, alde guztiek onartutako akordio horri esker, eta lehen aldia da horrelako makroepaiketa bat alde guztien akordioarekin eteten dena.

Haren bitartez, ETaren mesedetan jardun izana egotzi diete Auzitegi Nazionaleko 04/08 sumarioan inputatutako 35 euskal herritarrei. Lortutako akordioan, auzipetuek diote euren jarrera "lege kodearen aurkakoa" izan zela. Gainera, "indarkeriazko jarduera ororen" aurkako kon-



Zubimendi, Arantzabal, Garaiondo eta Galparsoro, Madrilen. | GOIENA

## ESANAK

**"Normalizazio eta bake bidean aurrekaria izan daiteke"**

INO GALPARSORO | AUZIPETUA

**"Oso albiste ona da, Euskal Herriarendako ere bai"**

AITTOR ARANTZABAL | AUZIPETUA

promisoa hartu dute, "biktimen eta haiei eragindako kalteen aitorpena" eginez.

Bestalde, zigorrak ere ezartzen ditu akordio horrek: urte eta erdi eta bi urte bitarteko espetxe zigorrak, hain justu ere. Urte kopuru horrek eraginda auzipetutako bat ere ez da espetxera joan behar. Hasiera batean, fiskaltzak hamar urteko zigorra eskatu zuen auzipetu bakoitzarentzat.

Debagoiendarrei dagokienez, Galparsorori, Garaiondori eta Arantzabali urtebete eta zortzi hilabeteko kartzela zigorra ezarri die, eta Zubimendiri, berriz, bi urtekoa. (Informazio gehiago 11. orrian).

## Erreka enpresaren torloju "adimendunak" ezagutzen egon da Urkullu lehendakaria

Arantza Tapia, Javier Sotil eta Eneko Zubeldia izan ditu bisita-lagun

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Iñigo Urkullu lehendakaria Bergarako Erreka enpresan egon zen atzo, eguena, hango dibisioetako batek landutako proiektu aurreratuenak ezagutzen. Arantza Tapia sailburua, Mondragon Taldearen presidente Javier Sotil eta Erreka enpresaren presidente Eneko Zubeldia izan zituen lagun. Enpresako langileek ere parte hartu zuten bisitan.

## Teknologia ultrasoinuduna

Fastening Solutions dibisioak garatutako azken proiektua *i-Bolt* torlojuak dira. Zehaztasun handiko torloju "adimendunak", hain justu ere. Teknologia ultrasoinuduna erabiltzen dute finkatzeko. "Edozein euspen sistematik erabiltzen den torloju bakoitzean bakarra den sistema adimendun bat txerta daiteke. Torlojuaren DNA izango balitz bezala. Hori horrela, bizitza osoan torlojuak finkatutako lotura monitorizatu egin ahal izango da", esan zuten Erreka enpresaren langileek. Sistema horri esker, zehazki antzeman daiteke edozein egitura motatan izan dezakeen eragina.

Eusko Jaularitzak eta Erreka enpresak proiektu bat baino gehi-



Urkullu lehendakaria Erreka enpresaren arduradunen azalpenak entzuten. | JOSU BILBAO

go partekatzen dituzte. Besteak beste, Eibarko Windbox Fabrikazio Aurreratuko Zentroa.

Erreka enpresak zazpi herrialdetan ditu ekoizpen eta merkataritzako plantak eta 350 langile ditu. Hain justu ere, Bergarako enpresaren ezaugarriak aipatu zituen lehendakariak eredu moduan: "Euskadik jauzi kualitatiboa eman behar du industrian, krisialdiari irteera fidagarria emateko eta martxa berria indarrez hasteko. Erreka eredugarria

da arlo horretan. Ekoizpen tradizionaletik abiatuta, bilakaera handia izan dute".

## Elkarlanaren beharra

Bestalde, euskal industriagintza osatzen duten eragileen arteko lankidetzari buruz ere berba egin zuen: "Herrialde gisa indartsu izateko aukera emango digun errezetaren osagai nagusietako bat elkarlana da. Sektore bereko edo ezberdineko eragile izan, elkarlana bultzatu behar dugu".

**euskarak batzen gaitu**

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

**15/16 IKASTURTEA**

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Arimazubi plaza, 2  
Tel.: 943 79 70 77  
euskaltegi@arrasate.eus

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Barrenkalea, 33. Irizar jauregia  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**  
Bidebarrieta, 18-behea. Onati  
Tel.: 943 78 24 96  
euskaltegi@onati.eus

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**  
Nafarroa, 2. Aretxabaleta  
Intxaurtueta, 10. Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

# Iazkoa baino %10,71 txikiagoa izango da Mankomunitatearen 2016ko aurrekontua

Zenbakitan begiratuta, 10.821.239 euro izango ditu eskualdeko erakundeak aurten erabiltzeko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitatearen aurrekontuak aurten izango duen %10,71ko murrizketaren eragile nagusia Epeleko isurtegia da. Obra hura exekutatu dago, eta, beraz, inbertsioen atalean dagoeneko gastu hori ez da sartzen; hortik dator, beraz, aurrekontuaren jaitsiera, Mankomunitateko presidente eta Aretxabaletako alkate Unai Elkorok esplikatuakoaren arabera.

Gauzak horrela, ia 11 milioi euroko aurrekontua onartu du asteon Mankomunitateak. Hala egin du, oposizioan dagoen EH Bilduren abstentzioarekin –beheko zatiduran boto-azalpena–.

## Aldaketa urtea, hondakinekin

Osterantzean, ezusteko bako aurrekontua da –momentuz– aurtengoa. Bestela esanda, eskualdeko hondakin kudeaketak hartuko du kopuruaren %72, eta, hain justu,



Mankomunitateko Gobernu Batzardea, martitzeneko batzarrean. | UBANE MADERA

gai berari dagozkio eskualdeko udalek Mankomunitateari egin beharreko ekarpenen %85. "Aurten egin behar duguna da, lehenengo, finkatu behingoz zeintzuk izango diren bilketa sistemak; izan ere, orain ditugu Eskoriatzako eta Bergarako aldaketak, hurrengo igandean dugu Aretxabaletako kontsulta... ikusiko dugu Aretxabaletako emaitzaren arabera aldaketa

gehiago egongo diren, baina kostuak egonkortzea da asmoa, eta hori lantzen joatea", zehaztu du Elkorok.

Zentzu berean, hondakin bilketa sistema berriek markatuko dituzte inbertsio nagusiak: "Inbertsioak jaitsi egingo dira, hein handian, Epeleko obrak bukatu direlako, eta inbertsio handienak izango dira Eskoriatzan eta Bergaran egin beharreko –espero Aretxabaletan ere bai– aldaketarako edukiontzia eta kamioiak. Beste gastu gehienak ohikoak dira. Tasak, gutxi gorabehera, berdin geratuko

dira, pixka bat igotzen dira Arrasaten eta Elgetan, besteok oso tasa antzerakoekin segituko dugu. Kalkulatu dugu Eskoriatzako eta Bergarako bilketak merkatu egingo direla, baina tratamenduan, GHKn onartutako tasekin, igoera nahiko dezentekoa dugu. Beraz, bata bestearekin parra egitea lortu dugu, baina justu-justu", gaineratu du.

## Gainerakoak, antzera

Mankomunitatea osatzen duten gainontzeko sailak begiratuta, berriz, jaitsi egingo dira haiei dagozkien partidak. Epelari dagozkionaz aparte, Garapen Agentziak izango du beherakadarik nabarmena: %14,54koa. Edozein modutan, Mankomunitateko Garapen Agentziako sail propioa egonkor mantentzen da, eta jaitsiera dator hainbat proiekturen amaierak eraginda. Kirol Sailak iazko programa eta aurrekontu bera izango ditu; zerbitzuetan %7,62ko beherapena izango dute, politikarien liberazioa ingurumen-era egozteak eta efizientzia elektrikoak eraginda; eta, azkenik, Turismo Sailatik salatu dute iaz moduan informazio falta handia dutela Eusko Jaurlaritzaren alde-rik eta ez dakitela zelan gauzatu diren diru laguntzak.

## AURREKONTUA, SAILEZ SAIL

SAILAK	2015	2016	ALDEA
Zerbitzu Orokorak	819.541,91	757.065,51	-%7,62
Kirola	24.000	24.000	=
Ingurumena	7.403.623,19	7.778.123,27	+%5,06
Epele	2.302.190,83	858.201,14	-%62,72
Abere Hiltegia	18.000	18.000	=
Garapen Agentzia	1.255.986,46	1.073.374,56	-%14,54
Turismoa	295.804,05	312.474,52	+5,64
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.119.146,44</b>	<b>10.821.239</b>	<b>-%10,71</b>

ITURRIA: DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

## Oposizioaren azalpena: Iraitz Lazkano

"EH Bildutik abstenitzeko jarrera hartu dugu. Egia esan, nahiko txosten zehatza da, nahiko ondo egindakoa, eta planteamendu erreala ematen du. Gu abstenitu egin gara, gehienbat, ez dugulako izan baloratzeko astirik, emendakinak egiteko astirik; orain dela hilabete inguru proposamen edo zirriborro bat jaso genuen, baina harrezkero aldaketa batzuk egon dira eta horiek baloratzeko bi eguneko epea izan dugu eta nahiko epe murrizta da. Eta ez dugu eduki astirik emendakina aurkezteko. Baina hartu dugu konpromisoa gaur onartu den aurrekontuari behar den patxadaz begiratu bat eman eta gure ekarpenak egiteko".

Saleh Salek | Debagoieneko Sahararren Elkarteko presidentea

## "Elikagai falta ez da gabezia bakarra: eraikinak jausi egin dira..."

Sahararren egoerak okerrera egin du azken urteotan, eta, bereziki, azken hilabete hauetan

U.M. | DEBAGOIENA

Sahararren alde diharduten Debagoieneko elkarteak –Anelkar eta Bubisher– hasi dira hara bidaltzeko elikagaiak batzen. Bi elkar-teen jakinarazi dute berez larria den egoera okertu egin dela. Saleh Salek-ek, Debagoieneko Sahararren Elkarteko presidentea, larrialdi egoera areagotu izanaren gaineko bi arrazoi aipatu ditu. **Bestetan baino elikagai gabezia handiagoa da orain?**

1974az geroztik, hango egoera txarra da, eta urriko uholdeekin are gehiago okertu da. Bertan dituzten baliabideak oso eskasak

dira eta denbora luzea behar izaten dute gertakariei buelta emateko. Baina ez da elikagai falta han dute gabezia bakarra; eskolak, ospitaleak... eraikin asko jausi egin dira eta berrero eraiki behar-ko dira. Ume asko, gaur egun, eskolaratu ezinean daude. Bestal-

**"Elikagai gehienak dohaintza bidez lortzen eta eramaten dira"**



Saleh Salek, Arrasaten, astelehenean. | U.M.

de, elikagaiei dagokienez, urte osoan dute gabezia. Kontuan hartu Munduko Elikagaien Bankua arduratzen dela lau produktu helarazteaz: irina, olio, azukrea eta arroza, eta gainontzeko elikagai guztiak dohaintza bidez eramaten dira. Era berean, gobernuz kanpoko erakundeek ez dute urte osoan bertan lan egiten; adibidez, Gurutze Gorriak udan bakarrik lan egiten du, Oxfam-ek atsedean hartzen duenean. Beraz, han dagoen beharra oso orokorra da, oinarrikoetatik hasita: medikamentuak...

## Uholdeen eragina halako handia?

Ez. 2008ko krisiak ere eragin du nabarmen, eta baita ere Siriako errefuxiatuen krisiak. **Hemen, baina, elikagaiak batu-ko dira, oraingoz... Noiz arte?** Bai. Eta gure elkar-teen ere nahiko luke hori egin, ikusi dugulako Leintz ibarrean gaur egun ez dagoela hori egiten duen elkar-terik. Lokal eskaera egin dugu Arrasaten, ea laster erantzuten duten. Elikagaiak eramateko karabana, berriz, otsailaren erdialdean irtengo da.

## Hondakinak garbigunetik kanpo "zeharo debekatuta"

U.M. | DEBAGOIENA

Azkeneko egun hauetan Bergarako garbiguneko kanpoaldean zenbait hondakin botata agertu direla eta egunez egun kopurua handitu egin dela ikusirik, Debagoieneko Mankomunitateak erabiltzailer guztiei gogorarazi nahi die kanpoaldean hondakinak uztea zeharo debekatuta dagoela. Horrekin batera, Debagoieneko Mankomunitateak gogorarazi nahi du dauzkan hiru garbigunetako ordutegiak honako hauek direla: asteleheneatik egubakoitzera: 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara. Zapatuetan, berriz, goizez zabaltzen da, 09:00etatik 13:30ak bitartera.

# Kataluniako egoera aztertu dute hainbat debagoiendarrek

- ▶ Hilabetetan trabatuta egon ondoren, abiada bizia hartu du
- ▶ Euskal Herrian, gaur egungo egoeran, ez da halakorik posible ikusten

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Carles Puigdemont-ek, Gironako alkate ohiak eta AMI Independentziaren Aldeko Udalerriren Elkarteko presidentek, oraingo asteko martitzenean Kataluniako Generalitateko presidente kagua hartu du. Hori egin du, gainera, herriaren borondatearen izenean zin eginda, kargu-hartze ohikoan eta Errege Dekretuak aginduta erabiltzen den Konstituzioarekiko

eta erregearekiko errespetua aipatu barik. Jaso ditu aldeko 70 boto –JxSi-ko 62 eta CUPeko zortzi–, kontrako 63 boto –C's, Catalunya Si Que Es Pot, PSC eta PPC– eta bi abstentzio –CUPekoak–.

## 18 hilabeteko epea

Kargu-hartze horrekin, azken egunotan hartutako abiada biziarekin segitzen du aurrera Kataluniako subiranotasun prozesuak,

procés-ak, bertan esaten dioten moduan. Generalitateko Gobernua osatuko dutenen ordezkariak zein izango den ere jakinarazi dute asteon bertan: Convergencia Democrática de Catalunya, CDC alderdiko –Puigdemont-en alderdia– zazpi kontseilarik osatuko dute Govern-a, ERCk proposatutako seirekin batera –sei horietatik, baina, bi izango dira Junts Pel Si alderdiko independenteak–.

Behin hori eginda, hurrengo pausoa izango da Kataluniako Parlamentuko batzordeak osatzea. Hala, JxSi eta CUP alderdiek adostutako bide orriaren arabera oinarritzko hiru legeren trametik hasiko dira: Gizarte Segurantzari dagokiona, Ogasunari dagokiona eta Prozesu Eratzaileari dagokiona. Azken urratsa Kataluniako Konstituzioa erreferendumean onartzea izango da. Hain

justu, 18 hilabete dute estatu berria osatzeko.

**Arreta bai, antzekotasunik ez**  
Zer esanik ez, Katalunian gertatzen dabilenak arreta handia erakartzen dihardu Estatu osoan, eta, jakina, baita Debagoiengan ere. Hemengo eta hango errealtateak eta egoerak, gaur-gaurkoz, parekidetasun handirik ez izan arren, nortasun, hizkuntza eta kultura ikuspegitik gertutasun handia dagoelako Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean. Debagoiendarren artean berba dagoen gaia izanda, eskualdetik prozesu kataluniarra zelan bizi den jaso dugu gizarteko arlo desberdinetan diharduten edo ordezkatzeten duten Debagoieneko hainbat eragileri iritzia eskatuz.

Oro har, jakin-mina eragin du, onerako kasu batzuetan, zalantzaren bidetik bestetan. Baina bertakoen begirada Katalunian ere badela ukazina da. Edozein modutan, guztiek azpimarratu dute, hori bai, Euskal Herrian, gaur-gaurkoz, oraindik halakorik ez dutela posible ikusten.



**EDUARDO ZUBIAURRE**  
ADEGIKO PRESIDENTE OHIA

**1.** "Oraingoz, ez da ezer aldatu; arlo soziopolitikotik harago ez doa; eragin ekonomikotik izango duen erabakirik ez dute hartu. Bestalde, ditudan lagun kataluniarrek diote badagoela ondoez bat. Eta Generalitatea diru aldetik jota dago. Ez dakit errealtateara eramateko gauza izango diren".

**2.** "Agerikoa da gure egoera desberdina dela; hemengo eragileak ez dabilta hori bultzatzen".



**ELENA LAKA**  
ABOKATUA

**1.** Jakin-minez eta ikusminez jarraitzen nabil. Txundituta nauka zelan lortzen dabilta prozesu beregain bat, Kataluniako Parlamentuak erabakitakoari jaramon eginez, kanpoko injezientziak baztertuz".

**2.** "Kataluniako prozesuak erabakitzeko adostasun politikoarekin, borondatearik badago, ia edonora joan daitekeela. Baina Euskal Herrian oraindik gutxienekoak adosteke ditugu; beraz, oso urruti gaude".

**1.**  
Zelan ikusten duzu Katalunian gertatzen dabilena?

**2.**  
Halako zerbait Euskal Herrian posible litzateke?



**MIREIA GABILONDO**  
AKTOREA

**1.** "Ondo ikusten dut, eurek hala pentsatzen badute; eta lehen pausoa izan beharko litzateke bozkatzen uztea. Erreferenduma egin beharko litzateke, eta, gero, ikusi behar zela gauzatuko litzatekeen".

**2.** "Euskal Herrian egon ziren, baita ere, horretan Ibarretxerekin-eta; baina oraindik Euskal Herriaren egoeran baretze bidean badaude beste pauso batzuk eman beharra horra ailegatu aurretik".



**PELLO ZABALA**  
FRANTZISKOTARRA

**1.** "Abesti bidez ezagutu nituen: Raimon, Lluís Llach, Serrat... Hizkuntzarekiko loturak, haien kultura gihar trinkoak estimazioa piztu zidan. Beti ikusi ditut erabaki finko eta dezidituak. Espero niengatik poztu nau".

**2.** "Atzerakarga gehitxo daukagu geuk. Errespetu faltuz, beldur hazkuraz, zalantzen balantzan doakigu aberriaren bizi. Egiogun leku gazteria argiari".



**MARKEL IRIZAR**  
TXIRRINDULARIA

**1.** "Gertutik jarraitzen dudana da. Deigarria da han horren denbora laburrean guk baino pauso gehiago eman izana".

**2.** "Nahi izango nuke hemen ere posible izatea, baina horretarako borondatea behar da. Nork bereari bakarrik begiratu beharrean, Euskal Herriko prozesuari begiratu beharko litzaioke, eta, gero, ikusi beharko litzateke ze ñabardurarekin eta zelan kudeatu beharko litzatekeen gaia".



**RAFA GOMEZ**  
AL-ANDALUS ELKARTEA

**1.** "Bertako agintarien erantzukizun falta ikusten dut, azken legealdiko ahalegin guztiak osasuna, hezkuntza, zerbitzu sozialak... murriztera bideratu dituztelako, eta hori guztia estaltzeko, bizilagunen %47 konbentziarazi dute erabateko zorientasuna independentziaren eskutik etorriko zaiela".

**2.** "Ez dut uste. Baina, unea iritsiko balitz, uste dut egingo genukeela legea errespetatuz, erreformak eginez hori posible egiteko".



**MARIASUN PAGOAGA**  
AKTOREA

**1.** "Katalunian gertatzen dabilena eta hango egoera oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit niri, eta Kataluniako herriak hori behar badu, ba aurrera bolie!".

**2.** "Euskal Herriaren egoera ikusita, uste dut hemen horrelako zerbait egitea zailagoa litzatekeela oraindik, besteak beste, beste eskubide batzuk ere oraindik ez dituztelako onartzen; adibidez, euskal presoaren eskubideak".



**MARIA CARMEN GALLASTEGI**  
JAKIUNDEKO KIDEA

**1.** "Kataluniarrak, dituzten eskubide eta zilegitasun guztiekin, egundoko nahaspilan sartu dira, independentziarako bidea plan-teatu duten moduarekin, Konstituzioaren printzipioen kontra, negoziatu barik. Ez dute lortuko".

**2.** "Hemen, urtetan garesti ordaindu dugu: borroka armatua, hildakoak... Ikasi dugu ondo pentsatu behar direla gauzak eta poliki eta negoziatuz bidetik jo behar dela. Negoziatzen eta konbentzitzen egin behar dira halakoak".



**JERARDO ELORTZA**  
HISTORIALARIA

**1.** "Eragozpen eta gorabehera guztien gainetik, lortu dutena ikaragarria da. Gero gero-koak, baina herri-borondate latza erakutsi dute. Aurrerantzean ere, izan ditzatela *molta força i habilitat, amb una mica de sort!*".

**2.** "Oraindik ez, tamalez. Aurretik gauza asko konpondu eta adostu behar dugu gure artean. Ea hango prozesuak zerbaitetarako balio digun".

# arizmendi ikastola



Matrikula epea zabalik

URTARRILAK 25 - OTSAILAK 5

**konfiantzaz**  
ZATOZ IKASTOLARA!

## LIBURUAREN AURKEZPENA

### KONFIANTZAREN PEDAGOGIA ARIZMENDI IKASTOLAREN MARKOA

HIZLARIA: **AMAIA ANTERO**



“Haziak ginen eta loratu gara. Gaur zuen babesaren behar dugun lore koloretsuak gara. Izan zaitezte gure lur, euri eta haize. Eta mundu guztia argituko dugu gure edertasunarekin”.

**ARRASATE**

**KULTURATE**

**ARETXABAETA**

**ARKUPE**

Urtarrilaren 18an (18:00)

Urtarrilaren 19an (18:00)

**ESKORIATZA**

**ZALDIBAR**

Urtarrilaren 20an (18:00)

## HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

### ATE IREKIAK

URIBARRI*	urtarrilak 19	asteartea,	17:30ean	Arrasate
OLARTE	urtarrilak 20	asteazkena,	17:30ean	Arrasate
SANTA TERESA	urtarrilak 21	osteguna,	17:30ean	Arrasate
BASABEAZPI	urtarrilak 21	osteguna,	17:30ean	Aretxabaeta
JOSE ARANA*	urtarrilak 21	osteguna,	17:30ean	Eskoriatza
UMEZAINZA*	urtarrilak 23	larunbata,	11:00etan	Arrasate

## LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

### ATE IREKIAK

SANTA TERESA	urtarrilak 25	astelehena,	09:30 / 15:00	Arrasate
GAZTELUONDO	urtarrilak 26	asteartea,	09:30 / 15:00	Arrasate
ARIMAZUBI	urtarrilak 27	asteazkena,	09:30 / 15:00	Arrasate
ALMEN	urtarrilak 28	osteguna,	09:30 / 14:30	Eskoriatza

Ordu-tegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazalazue joatea, LHko zuzendari Maider Mercerekin jarri harremanetan: mherze@arizmendikide.net

## DERRIGORREZKO BIGAREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

### ATE IREKIAK

ALMEN	urtarrilak 25	astelehena,	11:00 / 15:00	Eskoriatza
GAZTELUPE	urtarrilak 28	osteguna,	11:00 / 15:00	Arrasate
	otsailak 1	astelehena,	11:00 / 15:00	Arrasate

Ordu-tegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazalazue joatea, DBHko zuzendari Elena Errastirekin jarri harremanetan: eerrasti@arizmendikide.net

### INFORMAZIO BILERAK

ALMEN*	urtarrilak 21	osteguna,	18:00etan	Eskoriatza
SANTA TERESA*	urtarrilak 25	astelehena,	17:30ean	Arrasate
GAZTELUPE	urtarrilak 26	asteartea,	18:00etan	Arrasate
<b>gaztelaniaz &gt;</b>	urtarrilak 27	asteazkena,	18:00etan	Arrasate

\* Elebitan.

# Errefuxiatu etorkinen eguna egingo dute etzi Arrasaten

Donostiako Elizbarrutiak antolatuta, meza, bazkaria eta jaialdia izango dira

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Urtero, urtarrilaren 17an edo 18an Errefuxiatu Etorkinen Eguna da, eta aurten 17an izango da; etzi, hain zuzen. Egun horretarako, Donostiako Elizbarrutiak topaketa bat antolatzen du eta ospakizun berezi bat egin ohi du. Orain arte Donostian egin izan dute, jesuiten ikastetxe batean, baina aurten, lehen aldiz, Arrasateko Mesedeetako Andra Maria ikastetxera ekartzea erabaki dute. Aurten, *Duintasuna, harrera eta errukia* lelopean ospatuko du komunitate kristautauk egun hau.

"Berrehun edo hirurehun pertsona inguru elkartuko gara", azaldu dute ikastetxetik. "Donos-

tiatik, Errenteriatik edota Pasaia-tik etorriko da jendea, besteak beste". Ikastetxetik kongregazio desberdinetako partaideak eta etorkinen pastoraletako kideak gonbidatu dituzte, baita herriko hainbat etorkin ere.

## Meza eta bazkaria

Lehenik, errefuxiatu eta etorkinen egun horretan parte hartzen dutenek Arantzazun meza izango dute eguerdikoko hamabietan.

Hori bukatzean, autobusez jaitsiko dira eta Arrasatera joango dira bazkaltzera ordu biak aldean. Bazkaria Mesedeetako Andra Maria ikastetxeko arkupeetan egingo dute. Paella izango da jateko. Gonbidatuen artean,

esaterako, erlijioagatik txerria jan ezin duten pakistandarrak daude, eta haiendako txerririk gabeko paella prestatuko dutela azaldu dute.

## Ekitaldia

Bazkalostean, ekitalditxoak egingo dute ikastetxeko aretoan. Han, besteak beste, dantza ikuskizuna izango da, baita kantu emanaldi bat ere. Gainera, afrikar talde batek ipuin bat antzeztuko du eta umeentzako opariak banatuko dituzte.

Horren ostean, dantzaldia izango da kolonbiar etorkinez osatutako Esperanza Latina taldearen eskutik. Hego Amerikako doinuak joko dituzte.

# 'Konfiantzaren pedagogia' liburua aurkeztu dute

Arizmendi Ikastolak azken urteotan hezkuntza eraldaketan egiten diharduen lana jasotzen du

M.T. | ARETXABALETA

Arizmendi Ikastolan *Konfiantzaren pedagogia* izenburua duen liburua aurkeztu zuten martitzenean. "Obra kolektiboa" da, Aitziber Arregi ikastolako lehendakariak azaldu zuenez: "Ideia izan zutenena, ideia hura sustatu eta proiektu bihurtu zutenena, praktikan jarri eta garatzen ari direnena eta horren guztiaren gainean ezagutza berria eraikitzen ari direnena".

Arizmendin hezkuntza eraldatzearen alde lanean dabilta azken urteotan, eta liburuak hori jasotzen du. Egile nagusia Amaia Antero izan da, Ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko zuzendaria, eta Eli Villar irakaslea arduratu da ilustratzeaz. Inaki Etxezarretak, ikastolako zuzendariak, aurkezpenean azaldu zuen liburuaren gakoa konfiantza dela: "Arizmendia-

rrietak zioen kooperatiba abian jartzeko pertsona taldea behar dela, komunitatea izatearen eta egitearen kontzientzia, alegia". Ikastolan liburua kaleratzeagatik "zorionekoak" sentitzen direla ere adierazi zuen.

## Edukiak

Lau gai nagusi jorratzen ditu liburuak: hezkuntza eraldatzeko beharra, konfiantzaren pedagogia -kontzeptua eta esku hartzeko eremuak-, konfiantzaren pedagogiaren oinarri teorikoak eta hura garatzeko baldintza pedagogikoak.

Arizmendi Ikastolaren ustez, konfiantzaren pedagogiaren egiteko nagusia da "pertsonari bere hezkuntza ibilbidean laguntzea, bere buruarengan, besteengan eta inguruan konfiantza izan dezan, gaitasunak ahalik eta ondoen garatzeko".



Martitzeneko aurkezpena. | XABIER URZELAI

# Goienako hedabideen audientziek gora egin dute

'Goiena.eus' atariak inoizko bisitari kopuru handiena lortu du 2015ean Korrika igarotzearen harira

M.T. | ARRASATE

Goienaren audientziek gora egin dute 2015ean. GOIENA paperaren eta *Goiena.eus*-en hazkundeari esker lortu dute igoera, Goiena telebistak behera egin baitu.

CIES erakundearen azterketaren arabera, GOIENA paperak 38.000 irakurle ditu Gipuzkoan; Debagoienean, 33.000. 2014tik, 2.000 irakurle irabazi ditu lurraldean eta 4.000 eskualdean. Idatzizko hedabiderik irakurriena da Debagoienean, eta bigarren postuan dagoen *El Diario Vasco*ren irakurleak bikoizten ditu. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan papezkoen irakurle kopuruak behera egin du 2015ean ere. GOIENA papera da salbuespenetakoa.

## Telebista

Goiena telebistak behera egin du, lurraldeko tokiko hedabide nagusiek bezala. 2015ean, Goienak

2.000 ikus-entzule galdu ditu eskualdean eta lurraldean. Egun, 6.000 ikus-entzule ditu Gipuzkoan eta 5.000 Debagoienean.

ETB2 da nagusi lurraldean eta eskualdean. 150.000 ikus-entzule ditu lurraldean eta 16.000

eskualdean. Nabarmena da ETB1ek izan duen gorakada eskualdean, bigarren kate bihurtuta: 9.000 ikus-entzule.

## 'Goiena.eus'-en errekorra

*Goiena.eus*-ek, 2015ean, Google Analytics-en arabera, %30eko hazkundera izan du bisitei dagokienez eta %40koa bisitari bakarrei dagokienez. Gainera, 2015ean, errekorra lortu du: 33.828 bisita martxoaren 23an, Korrika eskualdetik pasa zenean. Batez beste, 5.000 bisitari bakar ditu egunero, astean zehar; asteburuetan jaitsi egiten da kopurua.



Goiena.eusek %30eko hazkundera izan du. | GOIENA

# IK4-Ikerlanek hogeita hamar pertsona baino gehiago kontratatuko ditu aurten

M.T./L.K. | ARRASATE


Arrasateko IK4-Ikerlan ikerkuntza zentroak talentua bilatu eta erakartzeko iaz abian jarri zuen konpromisoa berriro egin du aurten. Hala, zentroak jakinarazi du 30 langile inguru hartuko dituela datozen hilabeteotan, etorkizuneko ahalmenak areagotzen laguntzeko.

Sarrera horiek urte osoan zehar egingo dira, batez ere lehen seihilekoan, sistema txertatuaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren (IKT), energiaren, potentziako elektronikaren eta fabrikazio aurreratuaren arloetan.


Lan eskaintzak zentroaren webgunean eskuratu daitezke.

  
UNAI ITURRIOTZ

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa


 Errekabarren 18, behea  
20550 ARETXABALETA

 943.080796

 943.080796

 696378909

 unai@iturriotz.eus

 www.iturriotz.eus

## ZABALIK

MARIJO DEOGRACIAS  
goiena.eus/komunitatea/



## Espainiaren tragedia komikoa

Esperpentoa izan dute ahotan hainbat ordezkari politikok Kataluniako azken gertaerak definitzeko. Jadanik lehen-dakari ohi den Mas barregarri geratu dela esan dute popularrek eta leize-zulo mediatikoak. Esperpentoak, ordea, Valle-Inclan esker, esangura askoz zabalagoa dauka, eta haitzulo setatiko bizilagunak ulertzen laguntzen digu. 98ko belau-naldiko idazle galiziarrek europar zibilizazioaren desitxuratzeko grotesko legez definitu zuen Espainia, eta hark sortutako Max Estrella pertsonaiak esan zuenez, "espainiar bizitzaren zentzu tragikoa sistematikoki desitxuratutako estetika ematen du"; beraz, Valle-Inclan arabera, erreforma gauzatzeko ezintasunetik sortzen da esperpentoa.

Raxoiren gobernuaren tematu egin da Kataluniako gizarteak era demokratikoan bozkatu zuen aldaketa debekatzen eta oztopatzen. Hala ere, aurrera egiten asmatu dute Katalunian. Bai, hiru hilabete igaro dira eta, inork espero ez zuenean, Masek atzera egin du, eta, CUPEk jarritako baldintza nagusia beteta, Katalunian Errepublikari sortzeko presidentek –Masek berak proposatutakoa– kargua hartu du. Ez da debalde izan –ikusidugu–, eta ikusgai dago bidean nork laga duen gehiago. Ara egunkariko kazetari Antoni Bassasek domekan zioenez, Masen ohiko jokaldia izan da azkenekoa eta inork ezingo dio ukatu duen gaitasun taktiko izugarria: "Alde batera egin du, baina bidean CUP eraman du".

Ezin dugu ahaztu esperpento literatura-generoaren ezaugarri dela ironia. Batzuek ironikotzat jo dute, esaterako, Junts Pel Siren eta CUPen arteko akordioa noiz iritsi den: Antonio Baños CUPen zerrendaburuak (1.515nako berdinketaren ostean) gauzatu ez den dimisioa eman ondoren, eta zerrendan haren hurrengo den Anna Gabriel Bilbora joana zenean.

Ironikoa edo ez, Katalunian izendatu dute independentziaren aldeko *president* berria; Espainian, aldiz, Patxi Lopez da Kongresuko presidente.

**Ez da debalde izan eta ikusgai dago bidean nork laga duen gehiago**

## USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.eus

## Zer esan?

Martitzenean Goienaren izenean zabalduko albiste faltsuak eman dit hizpidea. Hain gustu txarreko txantxa nork egin zezakeen ulertu ezinik hasieran, berehala argitu zen gertaera. Jasotzen zuen edukiaren pisua-rengatik, faltsua zela eta beste batzuen izenean argitaratzen zela kontuan izanik, bai, hanka-sartzea izan zen, eta hausnartu behar duzue ikasle zein irakasleek. Baina ikasgai behar luke guztiontzat: argi geratu delako, beste behin, sare sozialen azkartasuna eta indarra, gazteenen eskuetan, batez ere. Eta lezio hartzen dut –nik bai, gutxienez– MUko ordezkariak erredakziora lehen eskuko azalpenak ematera etorri izana, ahal bezain bizkorren.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Hil da David Bowie, bukatu ote da pop musikan berrikuntza?

Gorka Bereziartua Mitxelena  
http://goo.gl/7u0669

Ez zen ba oso aspaldi: Googlek esaten didanez 2012an ikusi genuen Dock of The Bay jaialdian *The sacred triangle* dokumentala –dena esaten hasita faktura nahiko telebisibokoa, hau da, zine areto baterako baino egokiagoa etxeko salan ikusteko–. David Bowie, Lou Reed eta Iggy Popen arteko harremanak ziren dokumentalaren ardatza.

Hiru urte, 1971, 1972 eta 1973, gauza txikia pertsona arruntarentzat, garai transzendental hiru musikarientzat eta pop musikaren historiarentzat. Tarte horretan kaleratu ziren Bowieren *The Rise and Fall of Ziggy Stardust and the Spiders from Mars*, Lou Reeden *Transformer* eta The Stoogesen *Raw power* disko ezinbestekoak.

Oso aspaldi ez zen, ez, baina dokumentala ikusi genuenean hiru protagonistak bizirik zeuden. Gaur, David Bowie hil

ondoren, Iggy Pop bakarrik geratzen da zutik eta gaseosa batekin ere ez tulka hasten da.

[...] Gaur egungo zein musikariren ibilbide konpara dezakezu aipatutako hirukotearen eferbeszentziarekin? Entzuleok ere, etengabeko bilaketa artistikoan arriskuak hartzeko prest daudenekin geroz eta hotzagoak garelako pentsatzen dut maiz.

Bowieren heriotzarekin ia bukatutzat emango al dugu, hortaz, masei zuzendutako musikaren esparruan berrikuntzak posible ziren garaia?

"Esan liteke krisi ekologiko baten baliokide musikal-kulturalaren lekuko garelako, poparen baliabide finituak agortzeraino ustiatutako lurra izango balira bezala", irakur daiteke Simon Reynoldsen *Rockaren ondoren* artikuluko bilduman. [...]

Astelehena da ordea, eta Bowie hil da. Txarra dena okertzea ez dago gaurko planen artean, beraz akaso post hau Reynoldsen beste zita batekin bukatzea izango da onena.

"Zergatik da hain garrantzitsua pop musika etengabeko berrikuntzan aritzea? Balirudike presio berezia dagoela, poparen

gaineneko karga historiko bat, beste arte formei berdinduz aplikatzen ez zaiena. Fikzio esperimentalak, adibidez, ghetto txiki bat baino ez da kalitatezko literaturaren baitan; editore, kritikari eta irakurleek ez dirudite larrituta hurrengo James Joyce edo Alain Robbe-Grillet noiz iritsiko, kontrara, nobelaren artearentzat nolabait freskoa den zerbait dakarten ahots indibidualak bilatzen dituzte, eta bitartean, orokorrean, narratibaren eta naturalismoaren balore tradizionalak lotuta jarraitzen dute, pertsonaiei eta ondo zedarritutako elkarrizketek (...). Aurrerakuntzari genion fedea modu txarrean astindu da berriki: fundamentalismo erlijiosoaren berragertzearekin, beroketa globalarekin, zatiketa arrazial eta sozialak sakontzen ari diren ebidentziarekin. Gainontzeko guztia atzeraka doala badirudi, nola irten behar zuen onik pop zahar eta pobreak? Beharbada horregatik musikaren nozio diferente bat ari da nagusitzen: ez da gehiago etengabe berritasunez kargaturik datorren shock hura, jarraikortasun-indarra baizik, egonkortasun zimendu bat mundu prekarioan".

*Ch-ch-ch-ch-changes....*

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendaria** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Ubane Madera

**Sailtako arduradunak** Xabi Urzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00  
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 00  
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.850 ale  
**Diffusioa:** 18.507 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurilaritza**  
**diruz lagundutako**  
**aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

## Oñatiko kale garbiketa zerbitzua

**Mikel Biain**(Udal Gobernu Taldearen izenean)  
Oñati

1998ko otsailaren 26ko Udal Plenoan Oñatiko kale garbiketa zerbitzua lizitazioa ateratzea erabaki zen. Orduetik, kale garbiketa zerbitzuaren ardura FCC enpresaren esku egon da. 2008an jada amortizatuta zegoen makineria 2011n oraindik enpresak fakturatu egiten zion Udalari eta 2018ra arte, gainera, Udaletxea lotuta zegoen. Kontratuaren ez betetzeak eta zerbitzu arazoaren ondorioz, zigorrei eta negoziazioari esker 2013an kontratua bertan behera lagatzea lortu genuen, baldintzaturiko kontratu berri bat sinatuz. Kontratuaren ez betetze nabarmenek jarraitzen dutela ikusirik, 2016ko irailean kontratua behin betiko amaitzea erabaki da.

Kale garbiketa udal batentzat oinarritzko zerbitzu bat (legez hala da) izanik, aurrerantzean udalak berak era zuzenean kudeatzeko prozedura

abiatu du. Zerbitzua eraginkorragoa izatea aurreikusten da, udalak zuzenean kontrolatuko du, lanpostu gehiago sortuko dira eta ekonomikoki jasangarriago aterako da, gainera: zerbitzuaren BEZa eta enpresaren irabazia sailhesten direlako. Zergatik egon azpikontrata baten menpe orduan? Zerbitzu publikoetan sinisten dugu, eta, hain oinarritzko den zerbitzu baten kasuan, urteotan izan dugun esperientziatik, udalak bere baliabide propioekin eskaini beharko lukeela ondorioztatu dugu.

Udalak zerbitzua zuzenean eskaintzeko, jardun osoko 10 lanpostu berri sortuko ditu, eta, lanpostu berri horiek publikoak izaki, arlo publikoan oinarritzkoak diren printzipioak errespetatu behar dira: edozein herritarrek izan lezakeen konkurrentzia edo lehia eskubidea kasu. Zentzu honetan, harrizkoa da langile ordezkari batzuek darabilten diskurtsoa, administrazio publikoaren atzeko atea parez pare irekitzeko eskaerarekin. Hori ez da legezkoa, ez eta bidezkoa ere.

Hau guztia kontuan izanik ere, FCCko langileen

ordezkariei hasieratik adierazi zitzaiezen moduan, udaletik ahalegin berezia egingo da gaur egun ematen diren egoera ezberdinak kontuan izanik, zerbitzuaren berreskuratze prozesuaren baitan posible diren malgutasun neurri guztiak ezartzeko.

Bide batez, herritarrei gonbita luzatu nahiko genieke urtarrilaren 19an arratsaldeko zazpitan Kultur Etxean izango den bilera informatibora gerturatzeko.

## Eusko Alderdi Nazionala

**Jon Otero Uribarren**

Arrasate

Ironia pitin bat izango du artikulu honek. Hiru gauza daude izenburu horretan.

Lehena: alderdi abertzaleek izan beharko lukete beren izena euskaraz bakarrik.

Bigarrena: EAJ/PNVren buruek, asko ez dela, proposatu zieten *nazionalista*-ren orde, jarraian, aurrerantzean, *nazional* izatea. Oinarriek ez zuten onartu nahi izan.

Hirugarrena: *Eusko* edo

*Euzko* beharko luke izan? *Euzko* dator eratorria *Eguzkiko*-tik. Nola ez, Sabinoren asmakizun bat. Eguzkiaren semeak, euskal arraza bera. Beraz, *Euzko* da euskal arrazako kidea. Euzkadi bera ere bada Euzkotarren aberria. Auskalo abizenak nondik datozen, Adan eta Evatikan, edo... auskalo.

Gauza da karnetik ez zegoen garaietan abizen aldaketak sarri egongo zirela, nik pentsa. Gaur egun ere amaren abizena jarri dezakezu lehena, hala nahi baduzu. Kanpotik etorri bazara eta euskara ikasi baduzu, eta anitz erabiltzen baduzu berau, euskal psikea izateko bidean zaude, euskal arrazaren nortasuna. Izan ere, arrazaren nortasuna ze hizkuntza erabiltzen duzun arabera doa.

## Arku eta loa

**Angel Erro**<http://goo.gl/Jbkwlq>

Adineko gizona loak hartu du hegazkineko jarlekuan. Edo begiak deskantsatzen dago, edadekoek nahiago izaten duten adierazpidea erabilita. Edonola, gizon askoz gazteago, beltzaranago eta ederrago batek

aukera profitatu du lokartuari argazkia egiteko. Bertan biak agertzen dira. Begiak itxita eta ahoa irekita ageri dena Jean Marie Le Pen da, Front Nationalearen presidentea. Begiak arrarpalo eta irribarretsu dagerrena Brahim Zaibat dantzaria da, *Têtu* aldizkariak 2013ko gizon sexyena izendatua.

Eszenak –klasikontzi hutsa naizenez ezin izan dut saihetsi– Horazioren esaldi famatu bat ekarri dit burura: "Quandoque bonus dormitat Homerus" (Homero handiak lo-kuluxka egiten du noizbehinka). Berehala damutu naiz konparazioaz. Adjektiboak ere da ongiagi heldu. Horaziok barkatuko nau. Izan ere, oso lagun barkabera behar zuen, besteen ahuldadeak zuritzeko, aurrekoaz gain, haren beste aipu bat erabili ohi baita: "Neque semper arcum tendit Apollo" (ezta Apolok ere ez du arkua une oro tenkaturik). Poetak berez adierazi nahi du jainko gerlariak bereizten dakiela etsaiekin gogorra noiz izan eta noiz ez. Konparazio honek ere ez dio Le Peni balio: kalte ordain altua eskatu dio gazteari beltz baten ondoan posarazteagatik.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko  
GREMIOAK

## ARROZTEGIAK

## AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

## HONDEAKETAK

## EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87

[e.arrasate@gmail.com](mailto:e.arrasate@gmail.com)

## ITURGINTZA

## EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

## ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

## LOREZAINNTZA

## MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



# HERRIAK

ARRASATE

## Proposamen ezberdinez beteta dator aurtengo Zuhaitz Eguna

- ▶ Herritarrek Kurtzetxikin gaztainondoak eta intxaurrondoak landatzeko aukera izango dute
- ▶ Parte-hartze prozesuan aukeratutako pago gorria landatuko dute Arrasate pasealekuan

JOSU BILBAO | ARRASATE

Bihar ospatuko dute Zuhaitz Eguna Arrasaten, eta horretarako hainbat ekitaldi prestatu ditu Udalak. Urtarrilera aurreratu dute aurtengo ospakizuna, eta aurrerantzean urteko lehenengo hilabetean egiten jarraitzea izango da helburua.

Garai baten martxoan egiten zen, iaz otsailean ospatu zuten eta aurten urtarrilean egitea erabaki du Arrasateko Udalak. "Aurtengoa izango da lehenengoa, bai. Urteetan martxoan egin izan dugu, eta iaz otsailera aurreratu genuen. Uste dut hemendik aurrera urtarrilean egingo dugula. Urteko sasoi oso egokia da landaketak egiteko, hain zuzen ere", azaldu du Landa Inguruneko teknikari Pello Garaik.

"Zuhaitzak izaki bizidunak dira, eta guk mintegitik ateratzen ditugu, gustura zeuden toki batek, gero mendira edo lurrera eramateko. Martxoan hori egiten badugu, oraindik sustraiak ez daude erabat zabaldua. Udaberriaren arbola horiek ez dute indar edo elikagai nahikorik, sustraiak ez daudelako ondo zabaldua, eta, orduan, urtarrilean hori egiten badugu, zuhaitzek badute beharrezkoa duten denbora", azpimarratu du teknikariak.

### Zuhaitz azoka

08:00etatik 14:00etara, baserritarren azokarekin batera, zuhaitzen eskaintza egongo da Seber Altube plazan. "Goizean goiz hasiko gara, 08:00etatik aurrera, sarritan baserritarrek ordu horretan etortzen direlako eta gero goizean zehar landatu egiten dituztelako



Iazko Zuhaitz Eguneako azoka. | GOIENA

zuhaitzak", azaldu du Pello Garaik.

Sei mintegi gerturatuko dira eta eskaintza oso zabala izango da. "Toki ezberdinetatik sei lagun etorriko dira, eta bakoitzak bere ezaugarriak dituen arbolak ekarriko ditu. Oso aukera ona izango da azokara gerturatzea, mintegi hauek onak direlako, eta dena batera aurkitzea ez delako erraza izaten. Arrasatetik eta inguruetatik jendea zuhaitz bila urrunera joaten dela antzeman dugu, eta bihar goizean denak batera edukiko ditugu Seber Altuben. Zuhaitz aukera polita eta zabala egongo da", adierazi du teknikariak.

### Kurtzetxikin landaketak

Udalak herritarrei zuhaitzak landatzera animatzeko gonbita egin nahi die. Aurten, Kurtzetxikiko inguruetan gaztainondoak eta intxaurrondoak landatuko dituzte. "09:00etan batuko gara Debagoieneko Ospitaleko aurrealdean, Kurtzetxikira joateko asmoarekin. Ondoren, 40 zuhaitz landatuko ditugu. Gaztainondoak eta intxaurrondoak izango dira. Teknikariok bakarrik ezin dugu lan hori guztia egin; beraz, herritarren parte hartzea ere eskatzen dugu. Zenbat eta jende gehiago gurekin elkartu, hobe. Aurreko urteetan emaitza nahiko ona izan da, berrogei lagun inguru batu izan garelako, eta aurten beste hainbeste lagun batzea espero dugu", adierazi du Pello Garaik.

Gaztainondoak eta intxaurrondoak landatuko dituzte aurten, Arrasateko Udalaren helburuetako bat etorkizunean baso jangarriak edukitzea da eta: "Gure ideia baso jangarriak eratzea da. Badago aukera haritzak edo arteak landatzeko, baina duela urteak ere gaztainondoak eta intxaurrondoak landatzen ziren, gero herritarrek

basora joatean bertako fruituak jasotzeko. Nafarroan, adibidez, ideia hori oso zabaldua dago. Hemen ere bageneukan, baina, nolabait, ahaztuta dugu. Beraz, hemendik urte batzuetara gaztainak eta intxaurrak edukiko ditugu arrasatearrentzat gure inguruko basoetan".

Zuhaitzak landatzeko material guztia Udalak jarriko du, eta parte hartu nahi dutenek mendiko arropa eta oinetakoak besterik ez dute eraman behar. Eguerdiko hamabietan, gainera, parte hartu dutenendako hamaiketako eskainiko dute Seber Altube plazan, Ereindajan elkartearen eskutik.

### Pago Gorria

Herritarrek parte-hartze prozesuan aukeratutako pago gorria landatuko dute Arrasate pasealekuan, 13:00etan. Arrasatearrek zuhaitz espezie hau aukeratu zuten 103 botorekin, haritza, ezkia eta astigarraren aurretik. "Prozesu parte-hartzaile bat jarri zen martxoan eta pago gorria irten zen. Gure asmoa da Arbolapetan egin zen antzeko zerbait egitea. Arbolapeta oso leku emblematikoa izan da arrasatearrentzat, eta txoko berri hori antzeko toki bat izan daiteke", azaldu du Landa Inguruneko teknikariak.

### Ikastaroak

Zuhaitz Egunarekin lotuta, fruta-arbolak inauten ikasteko eta haien gaixotasunak ezagutzeko ikastaroak eskainiko dituzte Udako Ingurumen Eskolan, urtarrilaren 23an eta otsailaren 6an eta 13an. "Geroz eta interes handiagoa ikusten dugu zuhaitzak nola landatu, zelan zaindu... batez ere, fruta-arbolen inguruan. Zuhaitz hauen inguruan antolatzen dugun laugarren edo bosgarren ikastaroa izango da azken hamar urteetan", adierazi du Pello Garaik.

Ikastaroa herritar guztiei zuzenduta egongo da, baina, batez ere, zuhaitzez gehiago jakin gura dutenentzat. Hain zuzen, teoria gutxi egongo da, eta, batez ere, ariketa eta saio praktikoak izango dira ardatza. 20 lagunendako lekua egongo da, eta 10 euroko matrikula ordaindu behar da. Bada, izena emateko, Arrasateko udaletxera deitzea nahikoa izango da.



Haurrak zuhaitzak landatzen 2015eko Zuhaitz Egunean. | GOIENA

### Urteko aurreneko azoka

2016ko lehenengo baserritarren azoka ere egingo dute bihar Seber Altube plazan. 14 postu egongo dira oraingoan, eta iazkoekin alderatuta ez da saltzaile berririk egongo. Hala ere, Arrasateko Udaletik gogoratu dutenez, baserriko produktuak puntualki saltzeko gogoia edo asmoa dutenek ere egin ahal izango dute urtean zehar egingo diren azoketan. Biharko azokako berezitasun nagusia, Zuhaitz Egunarekin batera arbol salmenta ere egongo dela izango da, eta, hori dela eta, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako sei postu gehiago egongo dira.

# Kulturola: Zerrajera zena herriko kulturaren lantegi bihurtzeko egitasmoa

Udalak Bagarari esleitu dio dinamizazio lana eta martxorako amaitzea espero da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zerrajerako Erlojuaren Eraikina eta Apendices eskola zena Arrasateko kultura mugimenduaren epizentro izatera bideratuta daude. Izan ere, Udalaren asmoa da bi eraikin horietan egokitzea Arrasateko kultura taldeen egoitza. Udazken hasieran hasi ziren batzartzen gaur egun Zerrajerako Erlojuaren Eraikinean, Zalduspen eta Mankomunitatean kokatuta dauden kultura elkar-teekin. Bilera horien ostean bigarren pauso bat ematen hasi dira urte berriarekin batera, eta, besteak beste, eraikin berriak izan beharko lituzkeen ezaugarriak definitzen hasi dira.

## Agintaldiko proiektuetako bat

Egitasmo berriak izen propioa dauka: Kulturola. Aspaldiko Zerrajerako lantegia kulturaren lantegi bilakatu nahi dute etorkizuneari. Asmo hori garatzeko, Udalak jakinarazi du Bagara Elkartea izango dela dinamizatzailer lanez arduratuko dena: "Bagara eskarmentu handiko eragilea da bailaran eta bere esperientzia eta ezagupenak oso lagungarri izango dira, Udalarekin eta kultura eragile ezberdinekin elkarlanean, Erlojuaren Eraikin berriak nolako izan behar duen definitzeko", adierazi dute. Parte hartze prozesu hori Bagarari esleitzeko 7.200 euroko partida bideratu du Udalak.

Izan ere, Udaleko iturriek nabarmendu dute kulturarekiko apustua "estrategikoa" izango dela: "Agintaldi honetako proiektu



Erlojuaren Eraikina kulturaren epizentro izatea nahi du Udalak. | JOKIN BEREZIARTUA

tu handienetako bat izango da. Apendices zena Musika Eskolaren behin betiko egoitza izatea nahi dugu eta Erlojuaren Eraikina berri ostean elkarren ondoan dauden bi eraikin horiek eremu estrategikoak izango dira kultura mailan. Herri mailan bakarrik ez, eskualdeko erreferente bihurtu daiteke".

Erlojuaren Eraikina Jaurlaritzako SPRI erakundearena da, baina jabetza aldaketa gauzatzeko aukera handiak daude, Udalak dioenez: "SPRIrekin eta Eusko Jaurlaritzarekin bide administratibo egokiak aurkitu ditugu proiektu hau gauzatzeko".

## Orangoz, 18 kultura talde

Honako eragile hauek hartuko dute parte ekimenean: Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa, Erraldoi eta Kilikien Konpartsa, Trikitrixa Eskola, Lore Gazteak dantza taldea, Txikitxu Arrostitz dantza taldea, Doke antzerki taldea, Udalaxe Txistulari Elkarte, Arrasateko Gaiteroak, Santamas Komisiñoa, Bertso eskola, Ttakun txalaparta taldea, Portaloi elkar-tea, Zaldibarko futbito txapelketa, SUDC elkarte, Arrasate Margo Taldea, Sanbamaña, Loixe Zeramika taldea eta euskaltegiak. Dinamizaziorako lana martxoan amaitzea espero dute.

## NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE



## Korea

Gipuzkoako zenbait herritan, jarrera gaizto batekin erdaldun guztiei *koreano* esaten diete. Kanpokoa Korea bezain urrutituz sentitzen dutelako. Urrutikoa ezagutzea ez da erraza eta besteak beste esaten digutena sinestera behartuta gaude.

Bost urte igaro dira GOIENA paperean nire lehen idazkia argitaratu zenetik. Orduan, gaur egun bezala, Ipar Koreatik gerra susmoak zetozen eta nik guztiz sinistu nuen orduan Hirugarren Mundu Gerraren atarian geundela.

Idatzi hartan ere, Benedikto aita santu ohia kritikatzeko nuen, egoera larri hartan kondoiaren kontrako matrakarekin jarraitzea besterik

ez ote zuen egingo. Azken irizki honek gure bailarako sinestun multzo bati mina eragin zion eta hori bera jakinarazi zidaten.

Denboraldi honetan, estatu bihurrien zerrendan kokatuta dagoen Asiako nazio hark zalaparta asko atera ditu. Aldiz, Ratzingerrek bere "erretiratzeko eskaerarekin" historia egin du. Igarle dohainik ez ikusten denez, eta bitartean esandakoak esanda, korearrak horiak diren neurri berean gorri jartzen naiz ni, orduko nire inozokeria gogoan hartu izan dudana bakoitzean.

Honako hau da ondorioa: informatzea beharrezkoa bazagu ere, informazioaren kritika egiteak ere, gaitz erdi. Nork bere gaitzak betetzen nahikoa lan.

**"Besteak esaten digutena sinestera behartuta gaude"**

## EH Bilduko zinegotziek herriko euskal presoak bisitatuko dituzte; lehen bisita bihar, Josu Arkauzi

EH Bilduko zinegotziek herriko euskal presoak bisitatuko dituzte. Helburua da dispertsioa salatzea, preso senideei sostengua ematea eta bertako presoekin hitz egin eta irizkiak trukatzeko Arrasateko eta Euskal Herriko egoeraren, erronken eta lan arloen gainean: "Udalean zein kalean maiz egin dugu preso hauen esku-bideen alde, baina orainoan aurrez aurre adierazi nahi diegu gure elkartasuna". Bisita bira bihar hasiko da; Eneko Barberenak Murtziako espetxean dagoen Josu Arkauz bisitatuko du.

## Erdiguneko Gaztegunea tailer bihurtuko dugu datozen asteetan Aratustek prestatzeko; animatu!

Aratustek goiz datoz aurretan, eta dagoeneko denok dugu buruan mozorroren bat edo beste. Erdiguneko Gaztegunean ere, urtero moduan, karroza egingo dugu. Egin dugu taldetxo mozorrotzeko, erabaki dugu mozorroa eta egin dugu karrozaren diseinua. Atzeko lokala tailer bihurtuko dugu datozen asteetan lanari ekiteko. Tresnak eta laguntza egongo dira bertan. Beraz, animatu Aratustek **KOMUNITATEA GOIENA | GAZTEGUNA** gurekin batera prestatzera! **TXATXILIPURDI | ARRASATE**



## Baleikeren eskerrak herritarrei

Espainiako hauteskundeetan Arrasateko lehen indarra izan zen Ahala Dugu-Podemosek eskerrak eman zizkien arrasatearrei, "emandako konfiantzarengatik". Eva Abuinen arabera, gainerako alderdietatik jasotakoek gain, boto-emale berrien boto ugari jaso zituzten. "Udalean zein beste erakundeetan erantzukizunez jokatu dugu", adierazi zuen.

**Bertan**  
igogailuak | ascensores

Debagoienean finkatutako enpresa, %100 euskalduna.

Iraupen-konpromiso barik funtzionatzen duen enpresa bakarra.

24 orduko benetako zerbitzua eta pieza guztiak barne 100 €-tik aurrera.



www.bertan.eus | info@bertanigogailuak.eus

Garaia. Goiru 1A - 20500 Arrasate • Tel.: 943 90 34 50 | 691 64 79 65

Ino Galparsoro | Arrasateko alkate ohia

## "Epaia etorkizunean bide berriak hartzeko aurrekari bat izatea espero dugu"

Fiskaltzaren, akusazioaren eta defentsaren arteko akordio bati esker libre geratu da Ino Galparsoro

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eguazten iluntzean, Madrildik heldu berri, harrera beroa egin zioten hainbat herritarrek Ino Galparsorori. Fiskaltzak proposatuta eta akusazio partikularrak zein defentsak onartuta, 04/08 sumarioko 35 auzipetuek inputatzen zitzaizkien karguak onartu eta biktimei egindako kaltea aintzat hartu behar izan dute bi urtetik beherako zigorrak adosteko, eta horrela libre geratzeko. **Zer moduz zaude?**

Nekatuta, baina lasai eta pozik.

**Albiste pozgarria al da?**

Kartzelara ez joatea beti da albiste pozgarria eta hori da gaur [eguztena] gertatu dena; alegia, 35 pertsona ez garela kartzelara joango.

**Zergatik ez zarete espetxeratuak izango? Zertan datza akordioa?**

Aukera izan dugu, Fiskaltzak proposatuta, akordio batera iris-

teko. Espetxeratuak ez izateko, onartu behar izan ditugu inputatzen zizkiguten karguak, Batasunarendako lan egitea bereziki. Lan hori egitea legez kontrakoa dela onartu behar izan dugu eta konpromisoa hartu dugu gerora begira indarkeriatik aldentzeko, eta baita ere gure esperantza horrek balio izango duela biktimek sentitu duten kaltea ordaintzen joateko. Argi geratu da, azkenean, guk egindako lan politikoa izan dela epaitu dutena.

**Nola hartu zenuten proposamena?**

Neurri berritzailea denik ezin da ukatu. Orain arte ez da halako aukerarik egon; Fiskaltzaren jarrera berriaz gain, akusazio partikularrek ere onartu dute proposamena eta pentsatzen dugu izan daitekeela gerora begira ildo bat guztiok kalean egon ahal izateko; izan ere, oraindik hiru sumario handi geratzen dira.

Eta, zergatik ez, epai berri honekin barruan dauden presoendako ere gauzak alda daitezkeela uste dugu, edo, behintzat, esperantza daukagu. Aurrekari bat izan daiteke etorkizunera begira, bake eta normalizazio prozesuan bide berriak hartzeko.

**Ino Be Libre ekimenak bideo bat kaleratu berri du zuri babes eta elkartasuna adierazten. Nola baloratzen duzu ekimena bera eta herritarren aldetik jasotako babesa?**

2008an atxilotua izan nintzenean herriaren aldetik jaso nuen babesa sekulakoa izan zen, inoiz ezin dut behar den moduan eskertu. Oraingoan ere berdin: horrenbeste urte pasatu ostean eta gaiak gaurkotatuta erabat galdu duenean, horrelako erantzun bat egotea benetan eskertzen dudala. Herritarrek erakutsi duten elkartasunak eta babesak indar handia eman digu guztioi.



Galparsoro Arrano elkartearen, Ino Be Libre ekimeneko banderatxo bat kentzen. | J.B.

### EAJ: "Aurrerapauso nabarmena da"

Arrasateko EAJren ustez, "berri ona" da Galparsororen, eta ANV, EHAK eta Batasuneko ordezkarien aurkako makro-epaiketa bukatu dela, defentsa, fiskaltza eta akusazioaren arteko akordio bati esker: "Horrelako makro epaiketa bat alde guztien akordio batekin etetea aurrerapauso nabarmena" da, "euskal gizartea normalizazio politikoaren bidetik dabilenean", adierazi dute prentsa ohar bidez.

### Sara Alava - Marta Gaztelu-Iturri

Saroan-eko arduradunak

## "Dabilen harriari goroldiorik ez"

**L**antzen den guztia hobetu egiten da, lantzen dena alferrik galdu. Hainbat ikerkuntzak baieztatzen dute burua edota oroimena modu aktiboan mantentzeak narriadura kognitiboa eta eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunen galera atzeratzen duela.

Gaixotasun neurodegeneratiboetan, alzheimerean eta beste dementzia batzuetan batik bat, estimulazio kognitiboak narriadura kognitiboa moteldu edo atzeratu egiten du: arreta, oroimena, kontzentrazioa eta mintzamina mantentzen eta hobetzen ditu.

Halaber, beste gaitasun batzuetan, gaitasun-motorrean, zentzumen-gaitasunean eta emozio-gaitasunean, besteak beste, lortutako emaitzak positiboak izaten dira.

#### Oroimena lantzeko saioak

Zahartzaroan IBILTZEA fisikoki ondo sentitzeko egokia den moduan, maila kognitiboan gertatzen diren narriaturak ekiditeko, beharrezkoa da OROIMENA LANTZEA.



Sara Alava eta Marta Gaztelu-Iturri, Saroan-eko arduradunak.

“Zahartzaroan IBILTZEA fisikoki ondo sentitzeko egokia den moduan, maila kognitiboan gertatzen diren narriaturak ekiditeko, beharrezkoa da OROIMENA LANTZEA.”

#### Saio hauetan, gaixotasun kognitiborik ez duten pertsonen parte hartzen dute:

berreziki, prebentzio-lana egiten dugu. Arrasateko, Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako erretiratuen etxeetan ematen dira hauek.

#### Bakarkako saioak

Narriadura kognitiboaren hasierako faseetan dauden pertsonen bideratutako saioak dira (alzheimerrean, eta abar).

Saioak erabiltzaileen etxeetan bertan ematen dira ariketa eta dinamika

personalizatuak landuta. Gainera, laguntza eskaini, animatu, suspertu eta prozesu pertsonalak lantzen laguntzen diegu. Hau da, eguneroko bizitzari soseguz aurre egiten laguntzen diegu.



MIREIA LARRANAGA



MIREIA LARRANAGA

### Udalarekin euskaraz, Facebooketik

Udalarekin Facebooken ere euskaraz jardutearren saria jaso dute Aizpea Ajuriagerrak eta Arrate Izquierdok. Arrasateko Udalarekin ere euskaraz kanpainako azken sarituak izango dira, eta, goiko argazkietan ikus daitekeenez, Ibai-Arteko dendetan gastatzeko 50 euroko bonua eta Puntu aldizkari urtebeteko harpidetza izan da jaso duten saria.

  
Saroan

Tel.: 616 04 18 23  
info@saroan.com  
www.saroan.com

## MENDIA

## Besaidek zehaztu ditu urte berrirako ekintzak

J.B. | ARRASATE

Besaide Mendizale Elkartek 2016rako programaren berri eman du. Urtero moduan, askotariko ekintzak antolatu dituzte elkarteko sail ezberdinek. Hasteko, urtarrilaren 21ean urteroko batzar orokorra egingo dute Kulturaten (19:00); bazkide guztiei dago zuzenduta.

Ekintza garrantzitsuen artean honako hauek daude: urtarrilaren 31n, Donejakue bidearen lehen etapa egingo dute Hondarribia eta Donostia artean eta ondoren sagardotegira joateko aprobetxatuko dute; maiatzean, Mendi Tour jaialdia helduko da; ekainaren 4an, Beteranoen Martxa egingo dute; irailaren 18an, Besaide Eguna ospatuko dute; eta urriaren 1ean, Mondran Bike martxa egingo dute.

### Erreleboa beteranoetan

Bestalde, aldaketa izan da beteranoen taldean: orain arte antolakuntza lanetan aritu den Ibon Irastorza kanpora doala eta Sergio Serrano mendizalea izango da arduraduna aurrerantzean.

## ARETO FUTBOLA

## Emakumeen areto futbol taldea sortu nahi du aurten Mondratek

Irailan liga hasi baino lehen entrenamendu saio batzuk egin gura dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2013ko apirilean sortu zen Pizza Per Tutti Mondrate, Arrasateko areto futbol taldea. Taldea senior mailan atera zuten lehendabizi eta gaur egun Gipuzkoako Lehen Mailan ari dira lehiatzen. Geroago sortu zituzten gazte eta infantil mailako taldeak -azken horiek Leintz Eskola Kirolakoe-kin batera dihardute-. Hori gutxi ez, eta emakumeen talde bat sortzeko "beharra" dutela ondorioztatu dute hausnarketa baten ondoren. Eta horretarako hasiak dira lanean: hamabi laguneko talde bat eratu nahiko lukete, irailan, 2016-2017 denboraldira begira lehiatzen hasiko zena.

### Irailera arte itxaron barik

Bitartean, Mondratekoen asmoa da hamabost egunean behin entrenamendu saio bat egitea, baldin eta gutxienez hamar laguneko taldea osatzen bada. "Ligarik ez da egongo irailera arte, baina bitartean zenbait txapelketatan har daiteke parte", adierazi dute. Bizpahiru neska gertu daude eratu nahi duten talde berrian jokatzeke, baina, esandako moduan, jende gehiago behar dute; baldin-



Hiru neska Mondrateren uztaileko campusean, Mikel Gonzalezekin. | ASIER ELGEZUA

tza bakarria izango da 15 urte edo gehiago izatea. Taldea sortzen bada, Eider Gabilondo izango da entrenatzailea.

Informazio gehiago jaso edo izena emateko, helbide elektronikoko honetara bidali behar da mezua: [mondrate@gmail.com](mailto:mondrate@gmail.com).

### Azken sailkatuaren bisita

Pizza Per Tutti Mondrateko senior mailako taldeak bihar, zapatua,

jokatuko du 13. jardunaldiko partidua, Irudek Barrantol taldearen aurka (Musakola, 17:30). Jon Zabala Txanpi-ren mutilek sailkapeneko azken taldea hartuko dute etxean; arrasatearren aurkariak puntu bakarria lortu dute.

Oso partidu garrantzitsua izango da biharkoa, Gipuzkoako Lehen Mailako behealdeko postuak atzean utzi eta sailkapenean gora begira jartzeko.

## ZALDIBAR

## EMAITZAK (5. JARDUNALDIA)

Dribling - Lasagabaster	5-4
Betrayer - Abokajarro	4-5
Aldatz - Elorra JMA	6-4
Sonografos - Monte Taberna	2-4
Rayo Makabro - Olympiakojos FC	2-4

## SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Aldatz	13	5
2 Monte Taberna	12	5
3 Dribling	12	5
4 Abokajarro	9	5
5 Sonografos	7	5
6 Lasagabaster	7	5
7 Betrayer	6	5
8 Elorra JMA	4	5
9 Olympiakojos FC	3	5
10 Rayo Makabro	0	5


## PARTIDUAK (6. JARDUNALDIA)

URTARRILAK 16, ZAPATUA	
10:30	Rayo Makabro-Lasagabaster / Betrayer
11:30	Dribling - Betrayer / Lasagabaster
12:30	Sonografos - Abokajarro / Dribling
URTARRILAK 17, DOMEKA	
11:00	Elorra JMA - Monte Taberna / Olympiakojos FC
12:00	Aldatz - Olympiakojos FC / Elorra JMA

### Urteko lehen jardunaldia

Asteburuan jokatuko dira 2016ko lehen partiduak. Gabonetako gehiegikeriei aurre egiten nahikoa lan izango du jokalaria batek baino gehiagok...

# ZUHAITZ EGUNA 2016



## URTARRILAK 16, ZAPATUA



**08:00 – 14:00: Zuhaitz ferixia eta baserritarren azoka**  
Arrasaten. Seber Altube plazan



**09:00 – 12:00: Herritarrekin zuhaitz landaketa Kurtzetxikin**  
09:00etan elkartuko gara Debagoieneko ospitale aurrean Kurtzetxikira igotzeko. Gaztainondoak eta intxaurrondoak landatuko dira. Ondoren hamaiketako Seber Altube plazan.



**13:00: Pago gorriaren landaketa Arrasate pasealekuan.**  
Abenduan egindako parte hartze prozesuan aukeratutako zuhaitza landatuko da.

Mintegia	Espezieak	Enkarguak
Areitio - Zaldibar	Fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak	608879352
Artadi - Igorre	Basoko landare autoktonoak	680937875
Belar - Zaldibar	Fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategietakoak	629484151
Etxebarría - Gatika	Fruta-arbolak	646514154
Lurberry - Zarautz	Basoko fruitu txikiak, ekologikoak	657719685
Udalatz - Arrasate	Basoko fruitu txikiak, ekologikoak	690610822

## URTARRILAK 23 eta OTSAILAK 6 eta 13



**Ikastaroa: fruta-arbolak inautzea eta haien gaixotasunak ezagutzera**  
09:00-13:00 Udalako Ingurumen Eskolan. Izen ematea: 943 69 21 66



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Jai Zale berrituaren inaugurazioa, 2015eko urtarrilaren 16an. | XABIER URZELAI

## Jai Zale euskararen "gune bizia" dela ospatzeko asteburua

Euskal Herrian Euskaraz taldeak egitarau zabala prestatu du, irekieraren lehen urteurrenaren harira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Oso pozik gaude lehen urteak eman duenarekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki bezeroei eta Jai Zaletik pasatu diren musika talde, bakarlari, hizlari eta gainerakoei". Hitz horiek izan dituzte Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek Jai Zale taberna hartu eta urte-

betera. Lantalde gaztea dago atzetik, eta hasieratik erakutsi dute askotariko ekitaldiak antolatzeko prestutasuna: "Uste dugu lan handia egin dugula tabernari buelta bat emateko, eta jendeak erantzun du, gune bizia izan da azken urtean. Dinamika honetan jarraitzea da gure asmoa", diote. Izan ere, 2015eko

azken hilabeteetan egin moduan, aurtun ere hileroko egitarau bat antolatzen saiatuko dira.

### Hiru eguneko ospakizunak

Zapatuan beteko da urtebete taberna berritua inauguratu zutenetik, baina ospakizunak aste bukaera osora zabalduko dituzte. Gaur, egubakoitza, tragoarekin batera mokadutxo banatuko dute arratsalde osoan zehar, eta, 22:30ean hasita, Hans eta Peio igoko dira agertokira emanaldi akustikoa eskaintzeko. Bi musikari arrasatearrek batera hainbat lagun igoko dira Jai Zaleko oholtzara, kolaborazio gisa. Eguna borobiltzeko, Adri Music-ek musika jarriko du, rocka oinarri.

Bihar, zapatua, izango da egun handia. Egunari ekiteko, goi mailako bertso saioa izango dute 13:00etan: Jokin Labaien, Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi etorriko dira, eta Beñat Zamalloa arituko da gai jartzailer. Gero, 18:30ean, Azkaiter Pelox musikari bergararraren txanda etorriko da; Azkaiter Pelox Trio izenarekin etorriko da oraingoan. Gauean, "parranda eta sorpresak" izango dituzte.

Domekarako zozketa berezi bat prestatu dute. Asteburuan zehar tragoarekin batera hitzak banatuko dituzte Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera esaldia osatzeko. Domekan esaldi hori osatu duten bezeroen artean saski bat zozketatuko dute, 20:00etan.

## Aspanogiren aldeko erakusketa irekiko du gaur Artgazki elkarteak

J.B. | ARRASATE

Artgazki Arrasateko Argazki Elkarteak *Udazkena Debagoianean* izeneko erakusketa irekiko du gaur Kulturateko klausuroan. 45 argazki ikusi ahalko dira, 45 koadrotan. Izen bereko lehiaketara aurkeztu diren 130 argazkietatik 48 argazkilarik hartu zuten parte aukeratu dira 45 erretratu horiek. Gabonetan zenbait tabernatan egon dira ikusgai eta salgai argazkiak eta dagoeneko 16 saldu dituzte. Erakusketan ere erosi ahalko dira oraindik salgai jarraitzen dutenak eta batzen den dirua Aspanogi (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarte) elkartearendako izango da.

### Kanpoko epaimahaia

Lehiaketako irabazleak elkartetik kanpoko epaimahai batek aukeratu ditu: lehen saria Anibal Carmonak irabazi du *Sensual* argazkiarekin (garaikurra eta 200 euro), bigarren saria Aritz Gordok *Urkuluko koloreak* erretratuarekin (garaikurra eta 100 euro) eta hirugarren saria Xabier Rezabalen *Barreanean* argazkiarendako izan da (garaikurra eta 50 euro). Bestalde, lehiaketan parte hartu zutenen artean egindako zozketako irabazleak Alfredo Losada eta Aitor Zubia izan dira.

Sari banaketa hilaren 30ean egingo da (11:00), erakusketa itxiko den egunean bertan.

Udazkena Debagoianean lehiaketako irabazlea: *Sensual*. | ANIBAL CARMONA

## Enkore taldeak Lagrimas de Sangre ordezkatzeko du hurrengo Kooltur saioan

Laukote bilbotarrak azken diskoa aurkeztuko du hilaren 21ean gaztetxean

J.B. | ARRASATE

Kooltur Ekintza taldeak jakinarazi du hurrengo egunean, hilak 21, Enkore taldeak joko duela Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan (22:00). Hasiara baten Lagrimas de Sangre talde kataluniarrak jo behar zuen, baina bira bertan behera utzi dute eta antolatzaileek beste talde bat lotu behar izan zuten urtarrilaren 21eko emanaldirako: "Ez da lehen aldia Enkore taldeak kontzertua emango duena Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan. Elurte baten etorri ziren eta zalantzak izan genituen etorriko ziren edo ez. Prestutasun handia erakutsi zuten etortzeko eta, gainera, disko berria aurkeztu ari dira. Ea oraingoan baldintza normaletan jo dezaketen", esan dute Koolturkoek.

### Rocka eta doinu dantzagarriak

*ETour* izeneko biraren barruan emango du kontzertua 2009an Bilboko Errekalde auzoan sortutako taldeak. Izan ere, *E* da disko berriaren izenburua; lan berriaren rock gordinaren sustraiak eta doinu dantzagarriak nahastu dituzte. Urtarrileko egitaraua Bilboko Sonic Trash taldeak itxiko du hilaren 28an; rock basatia eskainiko dute.



Enkore taldea igoko da gaztetxeko agertokira hilaren 21ean. | EXEKUO

## Txorbela otxoteak gaztetxean abestuko du gaur; bihar DJ gaua eta etzi 'Maita zera ere' antzezlan

Txorbela otxoteak bigarren abestuko du gaur gaztetxean (20:00), 2014ko abenduaren 26an bizitako esperientzia "polita" errepikatzeko asmoz. "Oso gustura egon ginen. Gaztetxekoei esan genien nahi zutenean deitzeko, gazteekin ere harremana egin behar da-eta", dio Txorbelako Mikel Balantzategik. 45 minutu inguru iraungo du emanaldiak. Bihar, bestalde, bederatziko DJ etorriko dira gaua denetariko musikaz girotzeko. Domekan, Pasaiako Badia eskolako *Maita zera ere* antzezlan ikusi ahalko da (18:30).

## Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Santa Marinar eta Kulturaten, hilaren 19an eta 21ean

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria gonbidatu du udal bibliotekak datorren asterako. Bi saio eskainiko ditu Usurbilgo kontalariak: lehena urtarrilaren 19an Santa Marina auzo bibliotekan izango da, 18:00etan. Saio hori 3 eta 5 urte arteko umeei dago zuzenduta. Bigarren ipuin kontaketa saioa hilaren 21ean izango da, Kulturaten, 18:00etan. Bigarren emanaldi hori 5 urtetik gorako umeendako izango da.

*Siki Siki*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

*Lore*

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta

arrasate

beinke

# Elena Lete: "Korporazioko taldeen ekarpenak jasotzeko prest nago"

- ▶ Elkarlanaren aldarria egin du alkate aukeratua izan osteko diskurtsoan
- ▶ Barne Antolamendu batzordea hartuko du, Hirigintzakoan ere segituta

JULEN IRIONDO | BERGARA

Abendu hasieran jakinarazi zuen EAJk Elena Lete izango zela alkate izango zela Juanje Alberdiren ordezkaria, eta Letek abenduaren 21etik –Alberdik alkate izateari utzi zion eguna– ziharduen arren –behin-behineko izaeraz– zeregin horretan, asteleheneko ezohiko osoko bilkuran izan zen azkenean aukeratua: "Baneukan gogo, bai, noski. Luzea egiten da; hilabete luze bat izan da. Behin-behineko alkate funtzioetan banengoen, baina ofizialtasun ukitua behar nuen eta deseatzten geunden denok egun hau pasatzeko eta ospatzeko", zioen Elena Letek.

Bere alderdiaren eta PSE-EE-ko ordezkariaren –Gobernuko alderdiak– botoekin izan zen Lete alkate aukeratua. EH Bildu abstentitu egin zen bozketan, eta Irabaziko Aiert Lizarralde bere burua aurkeztu zuen hautagai.

Elena Letek dedikazio osoa eskainiko dio alkatetzari, eta berak hartu ditu aurrez Juanje Alberdik zituen ardurak; Barne Antolamendu batzordeko burua izango da, beraz, eta Lurralde Antolamendukoarekin ere jarraituko du, orain arte bezala.

## Oposizioari gonbita

Alkate aukeratua izan osteko diskurtsoan, elkarlanaren alda-



EAJren Udaleko taldea, Elena Lete alkateak zumitzezko uztaiak eskuan duela, alkate ohiaren ondoan. | JULEN IRIONDO

ria egin zuen Letek, eta "korporazioko beste taldeen ekarpenak jasotzeko eta elkarrekin eraikitze" prestutasuna erakutsi zuen, "Bergara hobe" baten alde.

Horrez gain, "governantza bidean pausoak" eman beharraz jardun zuen: "Hau da, erabakiak hartzeko, gizarteak eta udal erakundeek lana elkarrekin egin beharko lukete, eta gure ekarpe-

na arlo horretan, bai edo bai, partaidetza sendotzeko eta uztartzeko neurriak eta tresnak jorratzea izan beharko da".

Gai garrantzitsua da hau alkate berriarentzat: "Nik uste dut garai berrietan gaudela. Beste garai batzuetan, gobernuak beste era batera egiten zuten lan, baina, gaur egun, gobernantza izan behar da gure bidea. Ni Eus-

ko Jaurlaritzan ari nintzen lanean orain, eta gure Gobernuaren leloa zen *Gobernu bat pertsonendako*; hori da, azken finean, gobernantza. Hori garatzeko, behar dugu gaur egun ez daukagun zerbait; landu egin behar dugu, ikasi egin behar dugu bide hori. Bide ofiziala, tramitazioarena, hori bada, juridikoki oso landuta dago, eta jarraitzea besterik ez da. Bai-

na beste bide horretan, oraindik, tresnak, eta bideak, eta erak ez ditugu landu, eta aukera ezin hobea dugu aurrean"; hala zioen, osoko bilkura amaituta, diskurtsoan botatuko ideia azalduz eta sakonduz.

## "Ilusioz eta indarrez"

Alkateak diskurtsoan azaldu zuen, baita ere, sumatzen duela hartu duena "erantzukizun handi bat dela", baina horri "ilusioz eta indarrez" ekiten diola zioen: "Oho-rea da norberaren herriko alkatea izatea".

Eta eskerrak emateko ere aprobetxatu zuen izendapen osteko berbaldia: Udal Gobernuari, "egoera berezi honetan" azaldu-tako babesagatik eta laguntzagatik; eta Juanje Alberdiri, hark egindako lana izan delako bere "abiapuntua". "Bihotzez eskertu nahi diot egindako lana, ez bakarrik pertsonalki, baizik eta erakunde moduan ere bai, bere laguntza eta babes ezinbestekoak izan dira-eta niretako", zioen.

Juanje Alberdik publikoaren artetik jarraitu zuen asteleheneko ezohiko osoko bilkura. Han ziren Elena Leteren gertukoekin eta beste hainbat herritarrekin batera Debagoieneko EAJko beste hainbat hautetsi ere: Arrasateko eta Eskoriatzako alkate Maria Ubarretxena eta Joxerra Zubizarreta, besteak beste.

Eta udal langileak ere gogoan izan zituen alkateak, "tarte labur honetan laguntza osoa" eman diotela-eta, aurrerantzean ere hala izango den itxaropena agertuta.

Ekitaldiaren amaieran gustura zen Lete bizi izandakoarekin: "Sentiberatasun puntu bat izan dut; oso ohoretsu sentitu naiz", zioen. *Agur jaunak* bestuz eman zioten amaiera asteleheneko ezohiko osoko bilkurari.

## ESANAK

"Ofizialtasun ukitua behar nuen, eta deseatzten geunden egun hau pasatzeko eta ospatzeko"

"Erabakiak hartzeko, gizarteak eta udal erakundeek lana elkarrekin egin beharko lukete"

"Bihotzez eskertu nahi diot [Juanje Alberdiri] egindako lana, pertsonalki eta erakunde bezala"

ELENA LETE | ALKATEA

## Igor Oiarbide zinegotzi

Alkateak bakarrik ez, Igor Oiarbidek ere hartu zuen asteleheneko osoko bilkuran bere kargua; kasu honetan, Juanje Alberdik udalbatzan zuen lekua ere utzi ostean, zinegotzi izango da aurrerantzean Oiarbide –EAJren hauteskundeetako zerrendan hurrengoa–. Kirol batzordeko burua izango da, gainera. Oiarbide lehen ere izana da udalbatzako kide, 2003 eta 2007 artean, Victoriano Gallastegi alkate zela. Ingurumen batzordeko buru izan zen orduan. "Gogo handiarekin nator, gauzak aurrera ateratzeko gogoarekin", zioen.



Igor Oiarbide –eskuinean–, bere zinegotzi jarlekuan. | J.I.



AGURNE BARRUSO  
EH BILDU

"Betetzen baditu gaur diskurtsoan bota dituen hitzak, ni pozik"

"Datozen hiru urte eta erdian betetzen baditu gaur diskurtsoan bota dituen hitzak, ni pozik. Dena dela, Juanjek alkatetza utzi zuenean ere uste dut esan genuela, normalean estiloak edo erantzukizunak ez direla pertsona bakarrenak izaten, eta egia da Elena Udal Gobernutik datorrela. Beraz, ez dakigu orain arteko dinamikan jarraituko duen edo gaur esandakoak betetzera joango den. Udal langileekin, herritarrekin eta oposizioarekin elkarlana aldarrikatu ditu. Hori betetzen bada... Orain arte, Gobernuak ez digu elkarlanerako inongo aukerarik eman".



AIERT LIZARRALDE  
IRABAZI

"Ni kezkatu nago, ikusita agintaldiaren lehen sei hilabeteak nola joan diren"

"Onena espero behar da. Baina ez dakit, ni une honetan kezkatu nago, ikusita agintaldiaren lehen sei hilabeteak nola joan diren; ez naiz gustura geratu orain artekoarekin, eta ikusi egin behar zer datorren. Baina espero, beti espero duzu buelta emango duela honek eta gauzak bere bidetik hasiko direla. Ni, Irabaziko ordezkari bezala, beti egongo naiz Elenari laguntzeko prest; baina neuk ere eskatu behar diot parametro normal edo logiko batzuetan ibiltzea. Gardentasuna, parte-hartzea... eta halako balioak betetzeko asmoa agertu du; baina aurreko alkateak ere agindu zituen, eta gero ez da bete".

# Eguaztenetako azoka astero egingo dute aurrerantzean

Udaletik azoka herriari gerturatzeko 'apustu sendoagoa' egin nahi dute

MAITE TXINTXURRETA. | BERGARA

Orain arte hileko lehen eguaztenetan egin izan den azoka-egun berezia astero egingo dute aurrerantzean. Erabaki hori hartu du Udalak, "bertako baserriarren eta sasoiko produktuen aldeko apustua indartzeko asmoz".

Bada urte eta erdi *Azoka Bergararren* izeneko proiektua martxan jarri zela, eta orain beste pauso bat eman nahi izan dute arlo horretan. Udalak Bagera elkartearen laguntzarekin

batera darama aurrera azoka biziberritzea eta herriari hurbiltzea helburu duen ekimena.

Udalak azaldu duenez, 2015. urte bukaeran, egitasmoaren arduradunak urteko balorazioa egiteko bildu ziren, eta hileko lehen eguaztenetan egin diren azokak "ondo" joan direla baloratu zuten. Hori dela eta, "apustu sendoagoa" egin nahi izan dute, eta hilean behin beharrean astero antolatuko dute azoka.

2015ean zehar hileko lehen

eguazteneko azokaren baitan antolatutako hainbat ekimenek jende ugari bildu dute, hala nola pailazoek, Asier Altuna zine zuzendariarekin solasaldiak...

## Lehenengoa, asteon

Eguazten honetan egin dute urteko lehen azoka berezia Oxirondon. Arratsaldeko seieta hasita, baserriarrak izan ziren euren produktuak saltzen, eta pintxo-potea ere izan zen Pol-Pol tabernaren eskutik. Umeek ere izan zuten zerekin entretenitu, ludotekan danborrak egiteko tailerra egin baitzuten.

## Formatu berbera

Eguaztenetako azokak orain arteko formatu berbera izango du. Hala, Oxirondoko azokako beheko solairuan baserriarrek euren postuak jarriko dituzte, eta, horietaz gain, pintxoak eta astero ekitaldi edo tailer bat izango da. Ludotekan umeendako ekintzak ere izango dira.

Datorren asteon, esaterako, asteon umeek egindako danborrekin danborrada egin nahi dute, Donostiako San Sebastian egunaren aitzakitan. Hala azaldu du Marije Unamuno arduradunak.



Aurtengo lehen azoka berezia eguazten honetan egin dute. | MAITE TXINTXURRETA



## Ignacio eta Hibai irabazle

Eguazteneko azoka aprobetxatuz, Goiena telebistan eman duten Bergara Chef sukaldaritzako lehiaketako publikoaren saria banatu zuten Bedelkarko ordezkariak. Ignacio Etxabarrik eta Hibai Kareagak osatutako bikotea izan zen botu irabazlea, eta herriko komertzioan erabiltzeko 50 euroko bonua jaso zuten.

## Victoriano Gallastegi senatari da jada Madrilen

M.T. | BERGARA

Martitzenean hartu zuen senatari akta, Madrilen, hamasei urtez Bergarako alkate izandako Victoriano Gallastegik. Pasa den abenduaren 20an egin ziren Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan EAJk hiru senatari lortu zituen Gipuzkoatik, eta horietako hirugarrena izan zen Gallastegi. Guztira, zazpi senatari izango ditu EAJk, aurreko legealdian baino bi gehiago, hain zuzen. Aurretik, beste bi Bergarako alkate ohi izan dira senatari Madrilen: Jose Luis Elkoro eta Imanol Bolinaga.



Egoitzako, Udaleko eta Elgeta eta Antzuolako ordezkariak. | M.T.

## Igogailu berria Mizpirualde egoitzaren kanpoaldean

Atzo goizean egin zuten inaugurazioa, eta bertan izan zen Elena Lete alkate berria

M.T. | BERGARA

Atzo goizean Mizpirualdeko nagusien egoitzaren kanpoaldean eraiki duten igogailu berria inauguratu zuten.

98.150,15 euroko kostua izan du igogailu berriak, eta eraikitze lanak Goitu enpresari esleitu zizkioten. Inaugurazio ekitaldian, egoitzako ordezkariak, Bergarako alkatea eta Udaleko hainbat zinegotzi izan dira, baita Elgeta eta Antzuolako alkateak ere, Iraitz Lazkano eta Beñardo Kortabarria.

Nagusien egoitzako koordinatzaile Alazne Irazabalek igogailuak egoiliarrei ekarriko dizkien abantailak azaldu ditu: "egoitza aldapan dago, eta igogailuak neurri batean aldapa hori kentzen du. Bestalde, lehen sarrera sototik egiten zen, eta orain guztiak sarrera nagusitik sartu ahalko dira".

Mizpirualde egoitzak laurogeita hamar plaza ditu, eta Bergara, Elgeta eta Antzuolako egoiliarrei ematen die zerbitzua.

## Zabalotegiko irisgarritasuna

Asteon Bergarako alkate kargua hartu berri duen Elena Lete nabarmendu du igogailuak egoitzarendako onurak ekartzeaz gain, Zabalotegi kalean bizi direnen irisgarritasuna ere hobetuko duela, eta, beraz, "erabilera bikoitza izango duela.

Bestalde, azpimarratu du igogailuaren inaugurazioarekin 1997ko irisgarritasun legea betetzeko beste pauso bat eman dela: "bertan esaten da elbarrituek aukera izan behar dutela duintasunez bizitzea, eta uste dut honekin hori bermatzen dugula". Gaineratu du irisgarritasun arloan "gauzak hobetzen jarraitzeko" asmoa dutela.

## Oparitu Zuhaitz Bat ekimenaren hitzaldia urtarilaren 21ean

Hilaren 21ean, eguena, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita, honako gai hauek jorratuko dira Kultur Etxean eskainiko duten hitzaldian: kutsadura elektromagnetikoa, Fiare bezalako banku etikoen jarduerak, kooperatiba energetikoak eta Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoa.

## Heriotzaren gaineko hitzaldia eta antzezlan domekan

*Nola landu heriotzaren gaia haurrekin?* hitzaldia emango du, 11:00etan, Patxi Izagirre psikologo eta psikoterapeutak (zaintza zerbitzua izango da) Zabalotegi aretoan. 17:30ean eta 18:30ean, berriz, toki berean, Lauka konpainiaren *Azken agurra* haurrentzako antzezlan izango da.

## OHARRAK

### EPA: MATRIKULAZIOA

Bergarako Helduen Eskolak 2. lauhilekorako matrikula-epa zabalik du 22ra arte.

### 1956KOEN KINTADA

Urtarrilaren 30ean Azpeitxi jate-txean. 13:00etan elkartuko dira Usoan. Izena emateko, jate-xera edo 630 62 61 30 telefonora deitu hilaren 26a baino lehen.

### EH-KO MUS TXAPELKETA

Hilaren 16an jokatu da, Artatsen, 16:00etan. Izen-ematea momentuan, bikoteko 20 euro.

**DRAGON ORIENTAL**

Janaria ere etxera eramaten dugu

**Plater gustukoena:**

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

**Etor zaitez!**

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**

**LEIHO ISOLATZAILEAK**

**Amillaga 5, behea - BERGARA**

## Simon Arrietari eskainitako urte ezin oparoagoa izan dute Beart elkartean

Elkarteko kideek ekimenez betetako urtearen balorazio positiboa egin dute

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Simon Arrieta margolariaren jaiotzako mendeurrena bete da 2015ean, eta Beart, Bergarako artisten elkarte, buru belarri aritu da ekimenak antolatzen. Elkartekoak gustura daude 2015ak emandakoarekin.

### Liburua eta inbentarioa

Migel Anjel Elkoroberezibarrek idatzitako liburua izan da mendeurrenaren eman duen fruitueta: *Simon Arrieta 1915-1969*.

Horretaz gain, margolariaren lanen inbentarioa ere osatu dute; 150 obra biltzen ditu. Udalaren esku utziko dute, webgunean edonoren eskura egon dadin.

### Arrieta Donostian

Donostiaraino iritsi zen 2015ean Arrietaren artea. Koldo Mitxele-



Bearteko Luis Laskurain, Juanjo Altuna eta Bingen De Pedro. | JULEN IRIONDO

na kulturunean erakusketa antologikoa izan zen udazkenean, eta San Telmo museoa, koadroforuma; ehun lagun baino gehiago joan ziren; "erantzuna oso ona izan da, espero baino hobea", dio Bearteko Luis Laskurainek.

### Mendeurrenari agurra

Urtea bukatzeko, abenduaren 24an Bearteko berrogei margo-

lari baino gehiagoren obrak biltzen zituen erakusketa jarri zuten Aroztegin, urtarrilaren 10era arte ikusgai egon dena. 1266 lagunek bisitatu dute guztira. Bearteko presidente Juanjo Altunak esan du jendea gustatu zaiola mostra: "Gaur esan dit batek asko gustatu zaiola, oso ederra dela, eta ikusten duela urtetik urtera gero eta maila hobea dagoela".

## 2016ko kontzertu sasoiari ekingo diogu domekan

KOMUNITATEA GOIENA  
STOLTZ-FRERES ORGANAREN LAGUNAK

Begarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunen Elkartek 2016. urte honetan ere kontzertuak antolatzeari ekingo dio organoa babesteko hartuta duen ardura barruan. Helburua Europako organo baliotsuenera bizi-berritzea da. Kontzertu horiekin lortu nahi dena da herritarrek musikaz goza dezatela lehen mailako musika interpretariak entzu-

nez, sosak biltzea organoa konpondu ahal izateko, eta, aldi berean, herritarrak eta erakundeak jabetu daitezela bergararrok herrian dugun ondare garrantzitsu honetaz.

Domekan aurtengo lehen kontzertua izango dugu: hilaren 17an, Santa Marina elizan, arratsaldeko zazpitan, Jose Antonio Pascual organo-jole donostiarrak joko du, Bachen, Usandizagaren eta Haken piezak interpretatuz.

### Datozen emanaldiak

Organoaren konponketarako dirua biltzeko kontzertu sortarekin jarraituz, hurrengo kontzertua urtarrilaren 24an izango da, Mariatzen Urkiaren eta Jose Luis Franzesenaren eskutik.

Hilaren 31n, berriz, Esther Iñiguezaren kontzertua izango da. Emanaldi biak Santa Marina parrokian izango dira, 19:00etan. Kontzertuetarako sarrerek bost euroko prezioa izango dute..

### Begarako taila eskolako erakusketa Aroztegi aretoan

Zabalotegi kalean dagoen taila eskolako ikasleek haien lanak ikusgai jarriko dituzte gaur 18:00etatik aurrera Aroztegi aretoan. Berrogeita hamar bat lan izango dira ikusgai. Gainera, Soraluzeko Pedro Grande tailagilea gonbidatu dute erakusketa honetarako. Hurrengo asteko domekara arte -urtarrilak 24- izango da mostra bisitatzeko aukera.

### Zabalotegin salduko dituzte Aratusteetako kontzertuko sarrerak

Otsailaren 5ean -22:30- Udal Bandak eta Orkestra Sinfonikoak emango duten *The love board* kontzerturako sarrerak 8 euroren truke izango dira salgai urtarrilaren 25etik otsailaren 4ra arte Zabalotegi aretoan (eta ez liburutegian, orain arte bezala) eta [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean. Kontzertu egunean leihatilan izango dira salgai, 21:30etik aurrera.

### Domeka goizean izango dira frontoiko pilota partiduak

11:00etan hasita, alebiren errendimendu txapelketako bi partidu izango dira: Bilbatua eta Etxeberria Intxurreren aurka arituko dira, eta ondoren, Pereira eta Etxaniz Txapagainen aurka. Nagusien Udaberriko txapelketan, Aristi-A. Rezusta Mundaroren aurka. Azkenik, Euskal Ligako kadeteetan, Etxaniz eta Gartzia Añorgaren aurka.

### Labegaraietako futbito txapelketa bueltan da Gabonen ostean

9. jardunaldiko bi partidu abenduan jokatu zituzten. Poteo Izarrak HISen kontra berdindu zuen eta SVCK Sanpe Unitedi irabazi zion. Estrella Cojak lider jarraitzen du 24 punturekin, eta taularen behealdean Arrano Zabalik eta SVC daude. Gaur bi partidu eta domekan lau jokatu-ko dituzte.

### NIRE USTEZ

SAIOA GARITANO



### Parte hartzailea

**B**adira urte batzuk elkartean aisialdian lanean ari garela eta zerbitzu desberdinak ematen dizkiegula herriko haur eta gazte askori. Urteak pasa ahala, zerbitzuak euskaldunagoak izateko eta haur eta nerabeen beharrei gero eta hobeto erantzuteko lanean jarraitzen dugu.

Horretarako, duela gutxira arte buruan izan dugun "dena haur eta gazteentzat baina beraiek kontuan hartu gabe nahiz eta beraien nahi eta beharrik identifikatzen ahalegindu" kontzeptua alde batera uzteko garaia da, eta beraien parte hartzea indartzea izango da helburua.

Ume eta gazteak erdigunean partaide gisa jarri behar ditugu eta hitza eman behar diegu. Beraien artean parte-katzeko eta erabakiak hartzeko aukera izan behar dute. Ekintza puntual bat izateari utzi behar dio. Gauzak eman eta esatera bultzatu behar ditugu eta gauzak emateko eta esateko dituztela sinetsi behar dugu. Parte hartzaile aktiboak izatera pasatzen dira, eta, horretarako, gauza txikienetatik handienetara doazen prozesuetan parte hartzea bultzatu behar ditugu, kontuan hartuta parte hartzea beraien eremu hurbilenean eman behar dela.

Honekin guztiarekin, autonomia indartzen joango gara eta haur eta gazte bakoitzaren identitatea eraikitzen. Beraz, haur eta gazteei hitza emango diegu, eta beraiekin batera hezitzailea eta herritarra den aisialdia garatu.

**"Ume eta gazteak erdigunean partaide gisa jarri behar ditugu"**

## Maite Maiora, mendi astearren barruan

Maite Maiora mendi lasterkariak *Aztarnak* hitzaldia eskaini zuen eguaztenean Irizar jauregian, mendi astearren egitarauaren baitan. Maiorak kirolari moduan izandako ibilbidea azaldu zuen.



MAITE TXINTXURRETA



ZOKKETAKO IRABAZLEA: PILI ARAKISTAIN (654. ZENBAKIA)

**MAPFRE**

MAPFRE BERGARA  
Ibargarai Hiribidea 5  
943 76 18 80





Benturena baserriko argazkia. | OÑATIKO UDALA - JOXE URTZELAIREN BILDUMA

# Herriko baserrien 800 argazki udal artxiborako

Joxe Urtzelaik ateratakoak dira, horietatik asko bere anaiak Ameriketatik ekarritako argazki kamerarekin

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Argazkiak ateratzeko zaletasuna izan du beti Joxe Urtzelai Kortabariak eta argazki asko atera ditu. Horietako gehienak, baina, herriko baserriei atera dizkie. Orain udal artxiboan jarriko dituzte erabilgarri, edozein herriarrek ikus ditzan.

Udalak behin baino gehiagotan erabili ditu Joxe Urtzelaik

baserriei ateratako argazkiak argitalpen baterako edo besterako. Baserrien argazki bilduma, gainera, digitalizatuta dauka Udalak. "Lan hori eginda dago eta egia da berak inoiz ez digula inolako oztoporik jarri argazkiak erabiltzeko, eta orain, akordio honekin, argazkiak herritarren eskura jarri gura ditugu. Beste argazkiekin bezala, aurrerantzean

herritarrek gure kontsultagunean bila ditzake argazki hauek, eta, erabili gura baldin baditu, dagokion tasa ordaindu beharko du, egileari beti baimena eskatzen ibili gabe", dio Izar Salaberrik, Oñatiko Udaleko artxiboko arduradunak.

Salaberrik azaldu duen bezala, herriko baserrien 800 argazki bilduma jasoko du udal artxiboak.

"Argazki guztiak, gainera, baserrien izenekin eta argazkia ateratako datekin daude, eta informazio hori ere oso baliotsua da", dio Salaberrik.

## Domeka goizetan

Duela 40 urte inguru hasi zen Migeleneko Joxe Urtzelai argazkiak ateratzen. "Nire anaia Ameriketatik etorri zenean argazki kamera ekarri zuen. Askok gustatu zitzaidan eta lehen argazkiak harekin atera nituen. Gerora izan ditut neuk erositako kamera gehiago", du gogoan Urtzelaik. Atera asko atera arren, gehienak, baserriei ateratakoak direla ere aipatu du. "Gustatu egiten zaizkit baserriak eta gustura ibili izan naiz herriko etxaldeak erretratzen. Domeka goizetan joaten nintzen auzo batera edo bestera baserriei argazkiak ateratzera. Horietako batzuk jausita daude eta beste asko eraberrituta".

Teknika bere kasa ikasi du Urtzelaik. "Errebelatzeko, baina, Jabier Arriaranen laguntza izaten nuen. Hari ere asko gustatzen zaio argazkilaritza", dio. Zaleatasun hori dute Urtzelaik eta Arriaranek. Azken horrek, gainera, Udalean lana egin izan du eta onartu du askotan erabili dituzten Urtzelaiaren argazkiak. "Harreman handia izan dugu beti", dio Arriaranek.

## Urtarrilean

Hain zuzen ere, Jabier Arriaranek berak egin ditu orain Udalaren eta argazkien egilearen arteko zubi lanak. "Badakigu bere argazki funtsa handiagoa dela, bilduma bat baino ez dugu artxibora ekarriko. Berak ondo hartu du proposamena eta orain ere ez du inolako oztoporik jarri. Hilabete honetan bertan gauzatu da, ofizialki, akordioa", dio udal artxiboko arduradunak.

## 2015ean, Oñatin, jaiotakoak gehiago izan ziren hildakoak baino

Joan den urtean 104 pertsona jaio ziren Oñatin, eta 101 hil. Erroldatutako pertsona kopuruaren zenbatekoa, berriz, 11.358 lagunekoa du jasota. Datu ofiziala, baina, Estatistikako Institutu Nazionalak ematen du eta urtea aurrera joan ahala iristen da hori udaletxera.

Hala, ofizialak diren azken datuak 2015eko urtarrilaren leko datarekin jasota daudenak dira: 11.276 pertsona, hain zuzen ere. Horietatik 5.677 emakumezkoak ziren eta 5.599, gizonezkoak. 2014an, baina, gehiago izan ziren hildakoak (126) jaiotakoak baino (78).

## Argindar tentsioa igotzeko lanetan ari dira Olakua auzoan

Argindar tentsioa 230 kilovoltetik 400era igotzeko lanak egiten dabiltza Olakua auzoan. Argindar azpiegituraren mantentze eta hobekuntza lan hauen helburua linearen tentsioa aldatzea da; egungoa baino altuagoa izatea gero, alegia. Herriaren argindar zerbizua kudeatzen du Oñargik, eta, aditzera eman duten moduan, mantentze-lanen barruan sartzen dira lan hauek. Herriko beste puntu batzuetan ere egin izan dituzte, eta orain Olakua auzoan ari dira egiten. Faseka egingo dituzte eta ez dute aurreikusitako argia kenduko dutenik; beraz, auzotarrek ez dute egunerokoan ezer igarriko.

# Euskaraz eta euskararen alde lanean jarraitzeko konpromisoa du Udalak

O.E. | OÑATI

Euskararen Bikain ziurtagiria jaso zuen Oñatiko Udalak abenduan Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik. "Orain arteko lana errekonozitzen du sari horrek, nolabait, eta oso pozik gaude. Baina zein ahulgune ditugun edo zertan hobetu dezakegun jakiteko ere balio izan

digu prozesu honek, eta erronka horri heldu gura diogu orain, hobetzeko ditugun arlo horiek hobetzekoari, hain zuzen ere", dio Nerea Zubiak, Euskara zinegotziak. Eta gaineratu du: "Oñatiko Udalak beti erakutsi du konpromiso garbia euskararekiko. Aitzindaria izan da hori onartzen eta gauzatzen. Langileek ere beti izan dute euskararekiko konpromisoa, eta horren guztiaren saria izan daiteke hau, baina egun ere konpromiso bera dugu eta erronka hori betetzeko egingo dugu lan".

Mikel Biain alkateak jaso zuen saria Udalaren izenean, baina herritarrek izan zituen gogoan abenduko ekitaldian: "Herri euskaldun bati esker daukagu udaletxe euskaldun bat; harro gaude jasotako Urrezko Bikain sariarekin".



Gasteizko ekitaldian. | O.E.



Kiroldegi parekoaren sarrera eta irteera gunea. | O.E.

# Tarifa berberak dituzte lurpeko bi aparkalekuek

Lehen bi orduak doakoak dira eta ondorengo ordu bakoitzaren prezioa 1,20 euro da

O.E. | OÑATI

Urte berriarekin batera parekatu dira herriko lurpeko bi aparkalekueko tarifak, 2016ko udal ordenantzak aplikatuz. Egun, beraz, herriko lur azpiko aparkaleku biek baldintza berberak

dituzte. Lehen bi orduak doan dira kiroldegikoan zein Kalegoienekoan, eta hortik aurrera, 0,02 euro. Horretarako, kiroldegikoaren prezioak %60ko jaitsie-

ra izan du. Lehen 0,05 euro zen minutua (hiru euro ordua) eta urte hasieratik 0,02 (1,20 euro ordua) da. Kalegoienekoan, aldiz, denbora luzeagoan utz daiteke autoa doan.

Tarifa biak bateratzeko, aldatetarako egin dituzte aparkalekueko makineta.

## Ordenantzak

Joan den urteko urrian onartu zituen udalbatzak 2016ko udal ordenantzak eta orduan hartu zuten erabakia ordezkari politikoei aparkaleku bietan prezio berak egoteko. 2013tik zituzen berezitasun ezberdinak bi parkingek: kiroldegikoak doako ordu gehiago eta Kalegoienekoak orduko prezio merkeagoa.

Alderdi jeltzaleak egin zuen aparkalekuen gaineko proposamena, eta bat egin zuen EH Bilduk. Bi aparkalekuen erabilera ahalik eta gehien erraztea herritarrei gura genuen. Modu honetara, orain arte bakoitzak zuen alde ona bietan aplikatuko da urtarriletik aurrera", adierazi zuen urriko osoko bilkuraren amaieran Miren Elgarrestak, jeltzaleen udal bozeramaileak.

Ibai Gonzalez | Oñatiko Inauteriak

# "Gazte asko gaude, baina nagusiendako tokia ere badago"

Otsailaren 6an ospatuko dira Inauteriak eta hamasei urtetik gorakoak daude gonbidatuta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Duela lau urte hasi zen Oñatiko Inauteriak taldea herriko Aratuste propioak lantzeko lanean. Aurtengo saiorako entseguak hasi dituzte dagoeneko. Ibai Gonzalez taldeko kideetako bat da. **Laugarren aldiz egingo dira Oñatin Inauteri propioak. Pentsatzen zenuen horrelako soka ekarriko zuenik egitasmo honek?**

Egia esan, soka ekartzeko intenzioren hasi ginen. Aurretik egiten ziren Inauterietan ere bazuten arrakasta, eta, zerbait ezberdina egitea pentsatu genuenean, arrakasta horri jarraipena eman gura genion.

**Ze itxura du aurtengoak?**

Oso ona. Jende dezente apuntatu da. Askok aurreko urteetan ibili diren berdinak dira, dagoeneko badakizkete dantzak eta entseguetara ez da horrenbeste jende etorri, baina apuntatuta asko daude, bai.

**Talde zabalak parte hartu izan du orain arte.**

Bai, era eta adin ezberdinetako herritarrek parte hartu izan dute. Akaso, gazte gehiago daude nagusiak baino, baina talde zabala da, bai. Hau esanda, nagusiak animatuko nituzke etorri eta gurekin batera aurtengo Inauterietako dantzak ikasten hastera.

**Pertsonaiak eta arropak propio sortutakoak dira, Oñatiri moldatutakoak.**

Bai, bai. Baita musika eta dantzak ere. Aurtengoa, baina, ez dago berritasunik alde horretatik. Trantsizio urtea izango dela esan genezake.

**Zeintzuk dira Oñatiko dantza eta musika pieza horiek?**

Hasi ginenetik, hiru urte hauetan, saiatu gara pieza berriak asmatzen edo lehengoak moldatzen. Polka bat eta bi makil dantza, esaterako, propio sortutakoak dira. Eskuko dantza, aldiz, lehengo Inauterietan ere egiten genuen. Orain, musika aldatu dugu, Oñatiko jatorria duen musika sartuta; musika originala kendu eta oñatiarra sartu.

**Dantzak errazak dira?**



Ibai Gonzalez, Arrasaten, joan den astelehenean. | TXOMIN MADINA

Bai, bai, oso errazak. Hilabete eskas gelditzen da aurtengo Inauteriak ospatzeko egunerako, baina orain apuntatzen den edonork ikas ditzake. Inor ez dadila etorri barik gelditu beldur horregatik; egingo ditugun dantza guztiak dira samurrak egiteko. Parte hartu gura duena etor dadila lasai entseguetara.

**Hartza, ezkongaiak, kondea, kondesa... berdinak dira pertsonaiak?**

Aurtengoa atera atera ditugu hartza, alkatea, ezkongaiak, gotzaina, akolitoa, kondea eta kondesa. Oñatikoak, bereziki, azken biak dira.

**Zer egingo duzue otsailaren 6an? Zein da egitaraua?**

Aurreko urteetan bezala, Olakua auzoko jolasgunean egingo ditugu lehen dantzak, 12:00etan. Handik kalera abiatuko gara, eta, geldialdiak eginez, Kale Zaharrean bukatuko dugu goizeko ekitaldia. Bazkalostean, 17:00etan aterako gara Zubikoa paretik eta kalejiran helduko gara Foruen plazara, 20:00etan, Kalegoienean eta Kale Barrian zehar ibili ostean.

**Bazkarirako txartelak salgai daude?**

Aste honetan atera ditugu txartelak. Entsegu orduetan eros daitzake.

**Dena prest, beraz.**

Bai. Aurreko urteetan ez du eguraldi onik egin, baina noizbait egingo du. Ea aurtengoa den.

## Errekalden eta Larrañan egiten dituzte entseguak

Astean birritan elkartzen dira Inauterietako dantzak entseatzeko: eguztenetan Oñatz dantza taldeak Errekalden duen lokalean (20:00etan) eta zapatuetan Larrañako frontoian (12:00etan).

Parte hartu gura duenak nahikoa du entsegu ordu batera joatea. Hamasei urtetik gorakoek parte har dezakete eta deialdia baldintza hori betetzen duten herritar denei dago zabalik.

"Dantza egin gura ez duenak ere parte hartu ahal du, pertsonaia bat izanez, adibidez. Beraz, gogoa izanez gero etorri, ez etxean gelditu", dio Oñatiko Inauteriak taldeko ordezkariak.



Joan den zapatuko saioan. | IMANOL SORIANO

## Ander Lipusen azken antzezlan eta Anariren musika urtarrilean

'Etxekoak' lana ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko 'bibe.me' webgunean, hamar eurotan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Antzerkia eta musika. Ander Lipus eta Anari. Hilaren 24an eta 29an, hurrenez hurren. Horiek dira urtarrila bukatu aurretik egongo diren ekintzetako bi.

**Aurreiritziel buruz**

Urtebete antzokietatik kanpo egon ostean, Ander Lipus berri-tuta igoko da oholtzara *Etxekoak* antzeztera (urtarrilak 24, Santa Anan, 19:30). Dagoeneko sarrerak salgai daude *Bibe.me* atarian, hamar eurotan.

*Ezin da edonor etxean sartu.*

*Hala dio legeak. Maddik Mamedou maite du. Halaxe dio bihotzak.* Premisa horietatik abiatuta landu du hiru urtez Arterdramak azken proiektua. Euskal Herriko edozein etxetan gerta litekeen istorioa kontatzeko, Ander Lipus (Imanol osaba), Maika Etxekopar (Maddi), Javier Barandiaran (Goio, osaba tentela) eta Kristiane Etxaluz (amama) egongo dira oholtzara gainean.

Txiroa, beltza eta afrikarra da Maddiren mutil-laguna. Egoera horrek etxean sortzen dituen



Ander Lipus. | GOIENA

aurreiritzien kontra egin behar du. Aurreiritziak, identitatea, errefuxiatuak, etorkinak... horiek guztiak lantzen dituzte Jon Gerediagak idatzitako lanean.

Egilea proiektu eta estetika pertsonalago batetik abiatu da Ander Lipusekin batera elkartu eta *Etxekoak* antzezlan egi-teko.



Anari. | GOIENA

**Anari eta Liher**

Bestalde, Anarik kontzertua egingo du hilaren 29an gaztelekuan, 22:30ean. Liher bakarlariarekin batera egingo du zuzenekoa. Bere ibilbidearen errepaso egingo du. Besteak beste, *Zure aurrekari penalak* delako diskoko kantutak joko ditu. Sarrerak ez dira aldeztu aurretik salduko.

## Gimnasioko aholkularitza zerbitzua, martxan

Gabonetako etenaren ondoren, berriz ere martxan da Zubikoa kiroldegiko gimnasioko kirol aholkularitza zerbitzua. Erabiltzaileen beharrei zuzendutako aholkuak emango dituzte monitoreek. Egun bakoitzean ordutegi bat du zerbitzu honek eta kiroldegiko sarreran jakin dezakete informazio hori erabiltzaileak. Joan den martxoan jarri zuten zerbitzu hau.

## Urteko lehen odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza

Gaur, egubakoitza, egingo dute 2016ko lehen odol ateratzea. Ohiko tokian eta orduan izango da, Txantxiku ikastolako aretoan, 17:30etik 19:30era. Odola inoiz eman ez duten herritarrei emateko deia luzatu gura die Oñatiko Odol Emaileen elkarteak, eta emailerekin, urtean egingo dituzten hamar ateraldietako hainbatetara joatea gogoratzea.

## Liburuen, diskoen eta filmen neguko gida atera du liburutegiak

Dagoeneko kaleratu du udal liburutegiak neguko gida. Neguan irakurtzeko liburuak, ikusteko filmak eta entzuteko diskoak gomendatzen ditu gida honek. Paperean inprimatu dituzten aleak ikaste-txeen bidez banatuko dituzte eta liburutegiaren ere badaude kontsultatzeko. Udal webgunean pdf formatuan eskegi dute.

## Tenerifera joateko txartelak salgai daude Pake Lekun

Pake Leku erretiratuen elkar-teak bi bidaia egingo ditu datorren hilabetean, otsailean. Horieta bat Tenerifera izango da. Txartelak oraindik salgai dituzte elkarteko bulegoan; astelehena da erosteko azken eguna. Bigarren bidaia, berriz, Tolosara izango da. Urtero moduan, aurtengoa ere joango dira Tolosako Inauteriak ikustera, autobusean.

## Jon Martin dator bertso-paper lehiaketako ekitaldira

Jon Martin bertsolaria etorriko da gaztelekuko bertso-paper lehiaketako sari banaketara. Datorren astean izango da ekitaldia, urtarrilaren 22an. Bide batez, gaur, egubakoitza, da azken eguna lehiaketa horretan parte hartzeko. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetak eta DBHko eta batxilergo mailako ikasleendako da.



Andoni Igartua Arrasateko ziklo-kros proban, abenduan. | IMANOL SORIANO

# Denboraldia "ona" izan da Arrikruz taldearendako

13 probatan parte hartu dute Oñatiko ziklo-kros taldeko txirrindulariek

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Garazi Erostarbek, Ander Blazquezek, Ander Gartzia, Andoni Igartuak, Xabier Murgiondok eta Ekaitz Txintxurretak bukatu dute ziklo-kros denboraldia, edo, beste modu batera esanda, Arrikruz ziklo-kros taldeak amaitu du urtea. Guztira, 13 probatan parte hartu dute eta arduradunek balorazioa "ona" egin dute. "Oro har, gustura gaude urteak eman duenarekin. Akats batzuk izan ditugu lasterketa batzuetan: erorketak, matxurak... Hala, proba batzuetan, ez dugu esperotako emaitza lortu, baina pozik gaude", esan du taldeko kide Ruper Arkauzek.

**Ziklisten araberakoa**

Arrikruzeko ziklista bakoitzak aukeratu du zein probatan parte

hartu, baina gehienez ere 13 izan dira. "Ziklista bakoitzak antolatu du bere egutegia. Aste bukera batzuetan probak egon dira zapatuan eta domekan, eta askotan bakarrik egin dute", diote.

Ez dute lasterketarik irabazi, baina txirrindulari onenen taldeetan egoteko gai izan dira.



"Lehenengo hamarren artean behin baino gehiagotan sailkatu dira. Ander Blazquez eta Ekaitz Txintxurreta aurrean egon dira ia beti. Gainera, Garazi Erostarbek Gipuzkoako txapelketa ederra egin zuen", dio Arkauzek.

Bestalde, lasterketak egin barik geratu da Xabier Murgiondo. Akilesen tendoia minduta izan du eta ziklo-kros denboraldia osorik galdu du.

**Oñatiko ziklo-krosa**

Era berean, pozik daude Oñatiko ziklo-kros lasterketak emandakoarekin. "Ibilbidea oso siku zegoen, baina lasterketa politik ikusi genituen eta ikusleek ondo erantzun zuten", azpimarratu du Ruper Arkauzek.

## Yeray Varela euskaldun onena izan da Erregetako krolean

M.B. | OÑATI

Oñatiko San Silbestre lasterketa irabaziz, urtea bikain bukatu zuen eta bikain hasi du korrikalari oñatiarrak. Donostian jokaturako Erregetako Nazioarteko Krolean euskaldun onena izan zen: zortzigarren lekuan sailkatu zen, 31.55eko denbora eginez. "Gustura nago lortutako postuarekin, emaitzarekin eta egindako lasterketarekin. Urtea hasteko modu bikaina izan da. Iazko postua hobetu egin dut, gainera", dio Varelak.

**Eliteak eta herrikoiak**

2010era arte profesionalendako lasterketa zen Donostiakoa.

Parte-hartzaile gehiago batze aldera, korrikalari herrikoiei atea ireki zizkieten. Bada, maila ezberdineko nahasketa horretan, elite mailako korrikalarien erritmoa mantentzeko gai dela erakutsi du Varelak. "Lasterketa polita izan zen eta korrikalari inportanteak egon ziren. Oubaddi, Guerra eta Merzogui punta-puntako atletak dira eta euren alboan korrika egin eta lehiatzea ederra izan zen. 320 korrikalari elkartu ginen", esan du oñatiarrak.

Kros berean parte hartu zuen Sergio Gartzia oñatiarrak; lasterketa 18. lekuan bukatu zuen, 33.00ko denbora egin ostean.

## Zikloturista lizentziatarako azken eguna

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko Txirrindularitza Sailak zikloturista lizentziak egiten dihardu. Gaur, hilak 15, da tramiteak egiteko azken eguna. 19:00etatik 20:00etara arte egongo dira Aloñaren egoitzan.

Lizentziak Aloña Mendiren bidez egiteko beharrezkoa da saileko bazkide izatea. Lizentzia berria egin gura duenak nortasun agiria eta telefono zenbakia, helbide elektronikoa eta ordainagiria eraman behar du. Lizentzia berritu gura duenak ordainagiria bakarrik aurkeztuko behar du.

## 'Argiaren hotsa': argia egiten duten elementuen ahotsak erakusten

Ganbara Abesbatzaren azken ikuskizuna hilaren 31n estreinatuko dute parrokiari

M.B./J.B. | OÑATI

"Orain arteko produkzio konplexuenetakoa da teknikari erreparatuz gero. Ez du inor axolagabe utziko". Horiek dira *Argiaren hotsa* ikuskizuneko arduradunek esandako berbak. Hilaren 31n estreinatuko dute ikuskizunean, musika, ahotsa, argia, irudia eta poesia bateratuko dituzte. "Gauetan argia egiten duten elementuek zer nolako soinua egiten duten erakusten ahaleginduko gara", esan du Ganbarako zuzendari Aitor Biainek.

**Bederatzi gune argiarekin**

Orain arte Ganbara abesbatzak egin duen produkzio lan konplexuenetakoa izango da *Argiaren hotsa*. Askotariko diziplinak batzen dituen ikuskizuna da: musika, ahotsa, argia, irudia eta poesia batzen ditu. Aurreratu dutenez, ikuskizun ezber-

dina izango da: "Parrokian egingo dugu estreinaldia, baina ikusleak ez dira aldare nagusira begira egongo. Parrokiako gune ezberdinak argizatuta ikusteko aukera izango dute. Zehazki, bederatzi gune izango dira", esan du Ganbarako kide Amaia Guridik.

**Sarrerak salgai**

Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzekin batera, Andoni Salamero euskal filologoa arduratu da testuaz. Izar baten papeira hartuko du Salamero eta izar horren bidaia kontatzea izango da haren egitekoa, antzezpen eta guzti. *Argiaren hotsa* erroka berri bat izango da Salameroendako.

Sarrerak salgai daude dagoneko: Txokolateixian, Ganbarako webgunean eta [www.ganbara.sacatuentrada.es](http://www.ganbara.sacatuentrada.es) atarian eros daitezke.



Guridi, Biain, Salamero eta Zubia aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA

## Voltaia eta Sermonds taldeek euren azken diskoak aurkeztuko dituzte gaztetxeko kontzertuan

Rock eta stoner doinuak izango dira protagonista Voltaia eta Sermonds taldeek egingo duten saioan: bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan. Biek ala biek euren azken diskoak aurkeztuko dituzte: *Medusa* eta *Libelula*, hain justu ere. Eta biek grabatu dituzte lanak Mauka Musikagintzarekin: Voltaia zumaiarren lanak 11 kantu ditu eta bizkaitarren diskoak sei kantu.

## 'Hospital o manicomio' antzezlanaren herritarrei erakutsiko diete Ikusi Makusiko erretiratuek

Pake Lekuko erretiratuen taldeak *Hospital o manicomio* antzez-tuko du berriro ere: bihar, zapatua, Santa Anan, 22:00etan. Azaroan erretiratuendako bakarrik egin zuten eta oraingoan, herritar guztiendako. Senarra ospitalean ingresatuta duen emaztea bisitan joan zaio, baina gizona ez da inon ageri. Sendagilea, erizaina, garbitzailea... hasiko dira haren bila.

## 'Euskal Harriaren ABDak' filma ikusteko eta koordinatzailearekin berba egiteko aukera

*Euskal Harriaren ABDak* 26 film laburrez osatutako pelikula da. Bakoitza, lantalde ezberdin batek eginda. Bada, hori ikusteko eta proiektuaren koordinatzailearekin berba egiteko aukera egongo da gaztetxean: gaur, egubakoitza, 22:30ean. Beldurrezkoak, zientzia-fikziozkoak eta fantasiakoak dira euskarazko film labur guztiak.



Axtroki Merkatarik Elkarteko Leire Errasti kidea herriko plazan, axtrokiak eskuetan dituela. | 1B

## Udalak ez ditu axtrokiak erabiliko aurrerantzean

Merkataritza Biziberritzeko Plana jarriko du martxan Eskoriatzako Udalak

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak ez ditu axtrokiak erabiliko aurrerantzean. Batetik, kontabilitatea eramateko orduan sortzen diren arazoengatik, eta bestetik, hobariak emateko garaian etekinik lortzen ez delako eta gastu bat delako, Udalaren esanetan. Axtroki Elkarteko kideek, aldiz, uste dute axtrokiak nahi bezain beste erabili ez arren, herriko komertzioen ekonomia sustatzen laguntzen dutela. Hala, Udala ekimenetik kanpo geratu arren, merkatariek monea sozialarekin jarraituko dute.

Urtero moduan, Udalak dei egin die Axtroki Elkarteko merkatariei axtrokiak udaletxean entregatzeko, eta astelehena, hilak 11, izan zen horretarako azken eguna. Hala eta guztiz, aurtengo desberdintasuna da Udalak ez

dituela axtroki gehiago aterako, eta diruz emango dituela laguntzak.

Udalak uste du ekimenak ez duela funtzionatzen, eta, gainera, jendeak ez dituela erabiltzen. Ekonomia Garapeneko batzordeburu Maite Zubiak hauxe esan du: "Herritarrekin hitz egin dugu, kalean egindako galdeketeekin, eta ez daude gustura. Merkatariek beraien artean erabiltzen dute, baina orokorrean jendeak ez ditu axtrokiak erabiltzen".

Bada, horrekin lotuta, merkatarik elkarteko Leire Errasti kideak honako hau adierazi du: "Guretzat, pena da Udala ekimenetik ateratzea; izan ere, ematen diren diru laguntzak Eskoriatzako erabili behar izateak komertzioei eta ostalaritzari bultzada ematen die.

Zifrei begiratuta, bestalde, 2015ean 5.847 axtroki banatu ziren, eta 5.045 axtroki jaso zituen Udalak; 802 axtroki gastatu barik geratu ziren. Datu hauek kontutan hartuta, eta merkatarik txikiari laguntzeko beste bide bat aurkitu nahian, Udalak Merkataritza Biziberritzeko Plana jarriko du abian datozen hiru hilabeteetan.

### Merkataritza Biziberrituz

Eusko Jaurlaritzari merkataritza biziberritzeko plan bat eskatu zaio, eta horrekin irtenbide egokiagoa bilatzeko asmoa du Eskoriatzako Udalak.

Maite Zubiak esan duenez: "Fidelitasuna eta halakoak lantzen lagunduko digute planarekin, eta datuak aterako ditugu. Plana jasotzen dugunean esaten ditugunaren arabera jokatu dugu.

### Domekan, margotzea

Domekan, berriz, gaztelekua margotuko dute bertan batzen diren artean. Helburua da gazteak beraien erara atontzea, modu horretan, beraiena senti dezaten. 17:30etan batuko dira pintore lanak egiteko.

Gaztelekura hurbiltzen diren gazteekin batzar bat egingo da aurrena, eta, itxura aldatetaren eta egin beharreko konponketen gainean hitz egin ostean, martxan jarriko dira.

### Hurrengo erronka, grafitiak

Grafitik munduan murgilduko dira urtarrilaren 23an, zapatuan. Horretarako, grafitietan trebatua dagoen gazte bat hurbilduko da gaztelekura. Berarekin oinarriko teknikak ikasi eta domekan, ikasitakoa praktikan jarriko dute.

## Hastear da Euskal Herriko mus txapelketa

Urtarrilaren 24an jokatu da Eskoriatzako kanporaketa Inkernu tabernan, 16:00etan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Euskal Herriko VIII. mus txapelketako lehen kanporaketa herri ezberdinetan jokatu da urtarrilaren 31ra arte. Eskoriatzako urtarrilaren 24an egingo da, Inkernun, 16:00etan.

Bikoteko 20 euro ordaindu beharko da parte hartzeko, eta, herrien arteko kanporaketa egin ondoren, herrialdeko kanporaketa otsailaren 20an egingo da. Final nagusia, aldiz, Urdiñarben (Zuberoa) jokatu da martxoaren 5ean.

### Sari potoloak

Txapeldunentzat, txapela, garaikurra, 3.000 euro eta lau lagunentzat Karibera bidaia izango da. Txapeldunordeentzat, berriz, garaikurra, 1.500 euro eta bi lagunentzako Kanariar uhar-teetara bidaia. Eta hirugarrenentzat, 750 euro eta asteburuko egonaldia lau lagunentzat. Laugarren bikoteak, 500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako bi matrikula. Bosgarren eta hamaseigarren artekoentzat ere izango dira sariak.

### Puxki eta Txurruki pailazoen dantzan jarriko dituzte haurrak domekan Zaldibar antzokian

Puxki eta Txurruki pailazoen Zein gozoa den barre egitea! lana ekarriko dute domekan, hilak 17, Zaldibar antzokira. DJ Txorizo disko jartzailea egingo da iritsi bere emanaldira, eta, jaia salbatzeko asmoz, Puxki eta Txurruki protagonista saltseroek haurrak dantzan jarriko dituzte inprobisazioa lagun izanda. Sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean lortu daitezke hiru eurotan. Lanak 50 minutuko iraupena izango du.

### Panticosara eski irteera antolatu dute Eskoriatzako kirol elkartetik aste bukaera honetarako

Urtero moduan, Panticosara irteera antolatu du Eskoriatza kirol elkarteak. Aurreikuspenen arabera, elurra egingo du aste bukaeran, eta eskiatzera joateko deialdia egin dute elkartetik. Bertara joan nahi duenak 120 euro ordaindu beharko ditu eta izena Namaste belar-dendan eman beharko du. Informazio gehiago nahi duenak, aldiz, 943 71 43 27 telefonora deituta edo *eskoriatzamt@gmail.com* helbidera idatz dezake.

### NIRE USTEZ

XABI URIARTE



### Badator Kinttada Eguna!

**S**anta Ageda goratutzeko Lurrian eta zeruan... Santa Agedaren aitzakiaz, urtero bezala, baserriz baserri eta kalez kale ibiliko dira kintoak, eskean, kantuan eta jan-edanean. Nahiz eta kinto izatea 1998. urtean jaiotakoei tokatu, beste eskoitzarrok ere badugu zer ospatu: Kinttada Eguna. Aurten, Karnabalak direla eta, urtarrilaren 30ean ospatuko da.

Orain dela bost urte ospatu zen lehenengo aldiz, Eingeinke ekimenak antolatuta. Orduetik, inertziak etorri da, ziurrenik, antolatze konplikaziorik ez duelako: bazkaltzeko lekua bilatzea da Kinttaden lan bakarra, hori baino ez. Egia da lekua gordetzea lan konplikatu bilakatu dela: goiz ibili

beharra dago bazkaldu gabe gelditu nahi ez baduzu. Horregatik, eskerrak eman behar zaizkie ganora apur bat atera eta lekua bilatzeko mugitzen diren pertsoei; izan ere, kinttadaren bat Eskoitzatik mugitu eta Atxabaltara (!!!) ere jaitsi behar izan da urteren batean... Arrakastaren ondorioz hartu behar dugu, zorionez, urtetik urtera kinttada asko batu baitira jai-egun honetara.

Esango nuke gaur Eskoitzak duen egun alai eta jatorrenetako bat dela, eta horrelako egunez ez gabiltza oso soberan, nahiz eta - arrazoirik txikiena aitzakia hartuta - badakigun herrian giroa sortzen. Beharbada, horrelako formula sinpleen bila hasi beharko genuke beste asteburu batzuk ere pizteko. *Agur ta eskerrak ematen diet Santa agedaz batean...*

### "Zorionez, urtetik urtera kinttada asko batu dira"

## Gaztelekuko gazteei, argazki ginkana egiteko proposamena

1B | ESKORIATZA

Zapatu honetarako hitzordu interesgarria proposatu dute Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak. Teknologia berrietara gehiago hurbiltzeko eta argazkilaritzara gerturatzeko asmoz egindako ekintza izango da argazki ginkana, hain zuzen.

Eskoriatzako txoko ezberdinak ezagutuko dituzte argazki ginkanaren bitartez, eta perspektiba ezberdinekin jokatu beharko dute gazteek, besteak beste. 17:30etan batuko dira gaztelekuan bertan ginkanari hasiera emateko. Jokoaren oinarriak, ezaugarriak eta proba ezberdinak egunean bertan azalduko dituz-

te. Baina honelakoak egin beharko dituztela adierazi du Ibone Arejolaleibar hezitzaileak: "Esaterako, proba baten argazki zahar bat erakutsi eta herriko zein txokotan dagoen erantzun edo bilatu beharko dute parte-hartzaileak. Beste proba bat argazki bat ateratzea izan daiteke. Adibidez, momentu edo ekintza jakin bat erretratatzeko edota txoko jakin batean dagoen elementu bat bilatu eta erretratatzeko...".

Argazki ginkana sakelako telefonoak erabiliz egin beharko dute, eta, kalitatea baino gehiago, argazkigintzaren beste oinarri batzuk baloratuko dituzte joko amaiztean.

# Udaletxeko igogailua egiteko eta sarrera egokitze lanak martxan

Etxaide enpresak egingo ditu lanak eta bi hilabete iraungo dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako udaletxea irisgarria izan dadin, lehen faseko lanak egiten hasi dira. Sarrerako arrapala eta igogailua egingo dituzte. Hala, udaletxeko hiru solairuak (bulegoak, alkatetza eta artxiboa) eskurago izango ditu herritarrak.

Igogailua baserrietako buzoiak dauden tokian jarriko dute (komunen atzealdean). Eta buzoiak kanpora aterako dira, udaltzainak bulegoa zuen tokira. "Aurrerantzean, malgutasun handiagoko ordutegiarekin, baserriarrek buzoietara joateko aukera izango dute", azaldu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

## Arrapala lekuz aldatuta

Irisgarritasun lanen lehen fase honetan, L formako arrapala jarriko da kanpotik udaletxe barrura sartu ahal izateko. Egurrezkoa izango da eta baranda



Udaltzainaren lehengo bulegoan buzoiak jarriko dituzte. | MAIDER ARREGI

edukiko du. 109.626 euroko kostua dute lanok. Etxaide enpresaren asmoa da bi hilabete lanak bukatuta egotea. Igogailua zortzi lagunendako izango da (630 kilo).

Bigarren fasea oraindik ere zehaztu gabe eta diseinatu gabe

dago, baina beheko solairura harrera eta bulegoak eroan gura ditu Antzuolako Udalak. Goian, berriz, bulego teknikoak eta alkatetza mantentzea.

Edozelan ere, zehazteke dago oraindik.

# Saharari laguntzeko elikagaien kanpaina abian



Zurrategin abenduaren 20an egindako elkartasun festa. | JABI ETXANIZ

Saharako kanpamenduetako egoera oso larria da; aurten bereziki larria da, Saharan urrian gertatutako uholdeen ondorioz. Horregatik, aurten ere elkartasuna bidali nahi diogu Saharari elikagaien karabanarekin. Arroza, lekaleak, azukrea, atuna eta sardinak oliotan, pasta, olioia, helduendako fardelak eta konpresak... Eskolan, Amaian, Aixan eta Eroskin batuko dira elikagaiak urtarilaren 23ra arte. Laguntza ekonomikoak hemen: Euskadiko Kutxa, 3035 0080 94 0800054177.

## Saharari elkartasuna

Abenduan egindako elkartasun ekintzetan 808 euro batu ziren herritarren borondateari esker.

KOMUNITATEA GOIENA | ANELKAR | ANTZUOLA

## Redtube Boys areto futboleko txapelketa

Urtarrilean jokatu den 24 orduko areto futbol txapelketan Redtube Boys taldea izan da garaile. Josu Zubikarai jaso du goleatzaile onenaren saria (15 gol). Giro ezin hobean, 100 jokalarik inguruk hartu du parte aurtengo txapelketan. Eta, bestetik, Gabonetako saskiak badu irabazlea: Alex Hers (2.590 zenbakia).



AKE



2015ean 2014an baino hiru haur gehiago jaio ziren. | MAIDER ARREGI

# 2015ean, Antzuolan, jaiotzak gehiago izan dira heriotzak baino

M.A. | ANTZUOLA

2015ean 28 haur jaio ziren herrian. Hain zuzen, 12 neska eta 16 mutil jaio ziren. 2014an, aldiz, 25 haur jaio ziren: 13 neska eta 12 mutil.

Izenei dagokienez, berriz, 2015ean Irati, Ekhi eta Markel izan dira gustukoena. 2014an, berriz, Maddi eta Jare.

## Jaiotzek gora egin dute

Heriotzei dagokienez, 2015ean 25 herritar hil ziren: 13 gizonetzko eta 12 emakumezko. Baina 2015ean jaiotzak gehiago izan ziren heriotzak baino. Hala, kontuan hartuz 28 izan zirela jaiotzak, hiru herritar gehiago ditu Antzuolak: 2.193 biztanle, hain justu ere.

## Antzuolaren eta Aiherraren senidetza kontatzen duen dokumentala erosteko aukera dute herritarrek

Abenduaren 19an, iazko Aiherrako senidetza egunean, aurkeztu zuten *Aiherra-Antzuola* dokumentala. Dokumentalean parte hartzen dute, gainera, abenduan festan izan ziren antzuolarrek. Dokumentala erosteko, udaletxean eman behar dute izena interes dutenek. Prezioa 8 euro.

## Landatxoeko loteria kobratzeko aukera izango dute bazkideek urtarilaren 25ean

Landatxoeko erretiratu elkartearen saldutako 94.010 zenbakiaren partizipazioek bost euroko saria jaso dute. Gabonetako loteriaren txartelak dituztenek erretiratuen elkarteko egoitzan kobratu beharko dute saria urtarilaren 25ean, 17:00etatik 18:00etara bitartean. Beharra ikusiz gero, elkarteko kideek azaldu dute otsailean ere jarriko dutela beste egun bat loteria kobratzeko.

## 'Txarly'-k eta 'Supi'-k osatutako bikotea da herriko mus txapelketako finalerako sailkatu den lehena

Mox tabernan jokaturako lehen kanporaketako irabazleak dira *Txarly* eta *Supi*. Gaurtik domekara aukera gehiago dute oraindik parte hartu ez dutenek. Gaur, egubakoitza, 22:15ean Gailur tabernan; bihar, zapatua, 16:00etan Ongietorri jatetxean; eta etzi, domeka, 16:30ean Eperra elkartearen. Finala urtarilaren 24an, domekan, Arin jatetxean jokatu da, 16:30ean.

## OHARRAK

### OINARINEKO ENTSEGUAK

Aratusteak otsailaren 7an ospatuko dira. Herritarrendako entsegu irekiak urtarilaren 16an Torresoroan, 11:00etan.

### GABONETAKO ZOZKETA

*Ez dot moztuko bizarra*-k zozketatu du landetxe batean asteburua pasatzeko saria: 654 zenbakia da irabazlea.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zeorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# Ibarrak egun duen biztanleriari erantzuna emango dion biltegia

Aldundiak ur-depositu berria egingo du; 500.000 euroko kostua izango du

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiak onartu du Ibarran ur depositu berria egitea. Lierni Altuna alkateak azaldu du Udalak orain dela urte asko egindako eskaera dela hori eta, azkenean, aldeko erantzuna izan dutela. Altunak beharrezko ikusten du depositu berria, bi arrazoi nagusigatik: batetik, azkeneko hamarkadetan Ibarrak izan duen biztanleria hazkundeari erantzuna emango zaiolako; eta, bestetik, gaur egun dagoen depositua zaharkitua geratu delako.

“Euria egiten duenean ura nahastuta etortzen da; depositu berriak arazo horiek gutxitu eta zerbitzua hobetuko du”, gaineratu du.

## Mila metro kubiko

Aldundiak onartu duen proiektuak 543.462,36 euroko kostua izango du eta proiektu honen bidez 1.000 m<sup>3</sup>-ko biltegi erreguladorea egingo da. Biltegi hori gaur egun Ibarran dagoenaren orde egingo da. Proiektua onartuta dago eta orain esleipena egitea falta da.

Aramaioko EAJk, ohar bidez, hau dio egingo duten depositu berriaren gainean: “Egingo diren lan horiei esker, Aramaiok iraganen izan zuen ekipamendu eta egitura maila berreskuratuko du”.

## Uraren gaineko ikerketa

Bestalde, Udal Gobernuak azaldu du Aramaioko uraren gaineko ikerketa bat egitea ere onartu duela Aldundiak. “Aramaioko oso hedatuta dagoen herria da eta depositu asko ditugu. Etxaguen



Gaur egungo depositua, bidegurutzean. | ARANTZAZU EZKIBEL

aldean ur asko dago, eta kalitate handikoa; gertatzen dena da beste aldean, Azkoaga inguruan, ura badagoela, baina sulfurosoa. Gainera, trenaren obren ondorioz iturburu asko galdu dira”, azaldu du alkateak.

Aramaioko ur-horniketari dagokion lehen mailako sarearen hobekuntza-azterketa egingo du LKSk, 17.300 euroko kostuarekin. Hala, Aramaioko auzoetako ur-horniduraren sistemak hobekuntzak izango ditu.

# Udalean ere atera daiteke Bat txartel berezia

Familia ugariak, desgaitasunen bat dutenek edo 65 urtetik gorakoek inprimaki batzuk bete behar dituzte

A.E. | ARAMAIO

Orain arte Bat txartel arrunta eskatzeko aukera egon da Aramaioko Udalean; bada, aurrerantzean, familia ugari, nagusiei eta desgaitasuna dutenei zuzendutako txartelak ere udal bulegoetan ateratzeko aukera egongo da.

“Horiek eskatzeko inprimaki batzuk bete behar dira; gero, gu arduratuko gara Gasteizera eraman eta txartela emateaz”, dio Lierni Altuna alkateak. Hainbat dokumentu aurkeztu beharko dituzte txartel horiek atera nahi dituztenek. Informazio gehiago, udal bulegoan.

## Autobus zerbitzua hobetzen

Autobus zerbitzu publikoak izan dituen aldaketen gainean herritarrek egindako 148 eskaera jaso dituzte Udalean. Eskera horiekin guztiekin zirriborroa egin eta abenduan batzartu ziren udal arduradunak eta Aldundiko ardu-



Bete beharreko baldintzak eta inprimakiak. | A.E.

radunak: “Zerbitzua martxan jarri aurretik hainbat eskera egin genituen, baina ez ziguten kasurik egin; gainera, gobernu aldaketa egon zen eta Aldundi berriak erabaki zuen zerbitzua martxan jartzea eta ondoren egitea aldaketak. Abenduan egindako batzartean esan ziguten guk egin ditugun eskaerak aztertu ondoren jendearen erabilera kontuan hartuta aldaketa batzuk posible ikusten dituztela; batez ere, Arrasate eta Aramaio arteko linean. Gasteizerako linean zailago ikusten dituzte aldaketak, baina, hala ere, ahaleginduko direla esan digute”, azaldu du Altunak.

gun eskaerak aztertu ondoren jendearen erabilera kontuan hartuta aldaketa batzuk posible ikusten dituztela; batez ere, Arrasate eta Aramaio arteko linean. Gasteizerako linean zailago ikusten dituzte aldaketak, baina, hala ere, ahaleginduko direla esan digute”, azaldu du Altunak.

## OHARRAK

### KZGUNEAK

KZgunean dinamizatzailea egongo da urtarrilean. Hain zuzen, urtarrilaren 20an, eguaztena, izango da dinamizatzailea. Ordu-egia izango da: 18:00etatik 20:00etara.

### SANTA ESKEA

Santa eskean irteteko entseguak egingo dituzte egunenetan, 19:00etan, kultura etxean. Atzo, eguna, egin zuten lehenengo

entsegua. Ondorengo egunenetan jarraipena izango dute entseguek: urtarrilaren 21ean eta 28an egingo dituzte. Santa eskean urtarrilaren 30ean irtengo dira. Bertso eskolak, Trikikalejira trikiti elkarteak, Udalak eta Papargorri abesbatzak antolatu dute aurten ere santa eskea. Antolatzaileek herritarrek animatu nahi dituzte Euskal Herrian hain ezaguna den ospakizunetan parte hartu eta koplak kantatzera.

## 2015ean baja gehiago izan ziren erroldan altak baino

Aramaiok 1.517 bizilagunekin bukatu zuen 2015. urtea. Datuei begira jarrita, heriotza gehiago izan ziren jaiotzak baino. 2015ean 12 ume jaio ziren: 6 neska eta 6 mutil. Hil, aldiz, 13 lagun hil ziren 2015ean Aramaion. 2014ko datuekin alderatuta, jaiotza gutxi izan ziren 2015ean, 2014. urtean 20 ume jaio ziren eta.



Egutegiaren azala. | A.E.

# Etxez etxe banatu dituzte 2016ko egutegiak

Eider Ballinaren argazkiak irabazi du argazki lehiaketa; egutegiko azalean jarri dute lana

A.E. | ARAMAIO

Udalak etxez etxe banatu ditu 2016ko egutegiak. Argazki lehiaketan sarituak izan diren argazkiekin osatu dute egutegia. Hala, azalean argazki irabazle nagusia jarri dute: Eider Ballinaren *Putzuek erakusten dutena*.

Horrez gain, udaberriko saria Alex Mendikutek irabazi du, *Txi-meleta* lanarekin; udako saria Markel Arriolabengoak *Axerixe* lanarekin; udazkenekoa Irati Errastik *Herriko teiatuek* argazkiarekin; eta, neguko saria Judith Lazkanok *Txuriz bustirik* lanarekin.

## Sagardo berria dastatzeko aukera egongo da gaur Iturrieta sagardotegian egingo duten txotxean

Gaur, barikua, txotx irekiera egingo dute Aramaioko Iturrieta sagardotegian, 19:30ean. Aurten, Arabako sagardogileek Trebiñun egin behar dute irekiera ofiziala. Hala ere, Iturrietan sagardo berria dastatzeko aukera eskaini gura dute. Herritarrek animatu nahi dituzte lagun giroan arratsaldea pasatzera. Aurtengo uzta ugaria izan dela azaldu dute: 20.000 litro sagardo egin dute eta 8.000 litro zuku. Sagardo denboraldiaren gaineko erreportaje zabala *Puntua* aldizkarian irakur daiteke, gaur, barikua.

## Ezintasuna duten pertsonendako turismo eta termalismo programan parte hartzeko eskaera urtarrila eta martxoa bitartean egin behar da

Ezintasunen bat dutenei zuzendutako turismo eta termalismo programan parte hartzeko epea martxora arte izango da. Parte hartzeko baldintzak dira: %33 edo gehiagoko ezintasuna onartuta dutenek eta %50 baino gehiagokoek lehentasuna izango dute; 16 urte baino gehiago izatea. 16 urte baino gutxiagokoek beraien aitaren, ama edo tutoreen baimena beharko dute; ohiz kanpo, haiek gabe bidaiatzea ezinezkoa dela justifikatuz gero, onuradunen 16 urte baino gutxiagoko seme-alabak joan daitezke; laguntzaile batekin joan daitezke eguneroko oinarritzko jarduerak gauzatzeko gaizki moldatzen badira edota gupil aukia erabiltzen dutenak bakarrik.

## ELGETA

Ainara Iribar | Goibeko Euskaltzaleon Topaguneko presidentea

## "Euskararik onena egiten dena da, animatu egin behar dugu jendea horretara"

Hamar urtean Espaloia kafe antzokia kudeatu ostean ziklo berri baten atarian da Goibeko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako euskara elkarteak 225 bazkide ditu egun. Ziklo berri baten hasiera iragarri dute talde eragiletik, eta Ainara Iribar aukeratu dute presidente.

**Presidente berria, ideia berriak?**

Orain arte Espaloia kafe antzokiaren kudeaketa izan bada ere elkarrearen zeregin nagusia, aurrerantzean euskararekin lotutako gaiak landu gura ditugu, nahiz eta kultura gaiak ere lantzeko modua izango dugun.

**Zeintzuk izango dira etapa berri honetan lan ildo nagusiak?**

Azken batzarrean komentatu ziren hainbat lan ildo eta baita aurrekontu bati lotu ere. Aurrekontu horrek erakundeetatik izango duen babesaren zain gaude, baina gura genuke autobusak antolatzea Herri Urrats eta Nafarroa Oinez jaietarako, euskaltzaleen jai bat antolatzea urtero, Elgetan Berbetan egitasmoa babestea, ekitaldi kulturalen bat edo beste antolatzea, Euskararen Egunean agente akti-



Ainara Iribar. | L.Z.

bo izatea... Ez dugu demaseko martxa izango, ez da hori helburua. Egin ahal duguna egingo dugu, egiteko prest dagoen jendea gerturatu ahala.

**Euskara, beraz, lan ildo nagusi.**

Bai. Baina ez gara hasiko erreferentzial izango den mugimendu bat sortzen Espaloiarekin egin genuen moduan. Ekintzak egingo baditugu, puntualak izango dira eta baloratuko dugu beste

agente batzuekin batera lan egitea. Eta euskaldunak bakarrik izango dira ardatz? Ez. Euskaltzaleak. Euskaldunak, noski, baina baita ingurukoak ere. Denok gara garrantzitsuak.

Eta jarraituko dugu Goienna babesten, eta bertako jabeakide izanda Goibekoko bazkideek sei euro merkeago jasotzen dute *Puntu* horregatik. Topaguneko parte ere bagara... Horiek ez ditugu utziko.

**Nola ikusten duzue euskara herrian?**

Ez dugu pesimista jarri behar. Arnasgunea da euskararentzat Elgeta. Hala ere, egia da erabilera jaitsi dela guk nahi baino gehiago, eta kalitatea ere... Elkartetik eskaera egiten diogu gurasoei bereziki ez esateko umei euskaraz egin dezaten -baita-, baizik eta beraiek izan daitezen eredu umeendako. Euskararik onena egiten dena da, eta animatu egin behar dugu jendea horretara.

**Izena ere aldatu diozue elkarteari.**

Bai. Topagunearen barruko elkarre bat gara. Han egin da hausnarketa serioa, eta, euskararen diskurtsoa lantzeaz gain, hainbat ekintza ere marraztu dira. Euskararen Egunean, esaterako, Topagunearen bitartez etorri ziren testu ederrak, materiala... Hori dena aprobetxatu behar du Goibekok, eta Goibekoren bidez herriak. Elkarrearen izena azkenengo batzarraz geroztik da: Elgetako Goibeko Euskaltzaleon Topagunea. Luzea, baina 2016ko izatea hobeto jasotzen duena.

## Goyo magoaren trikimailuak bihar Espaloia kafe antzokian

L.Z. | ELGETA

*Txirriski Mirriski* magia ikuskizuna egingo du bihar, zapatua, Goyo magoak Elgetan, 17:00etan. Hiru urtetik gorako umeendako saioa da eta 45 bat minutuko iraupena du. Denbora horretan magia trikimailu sinestezinak egingo ditu magoa eta mimoa den Goyok ikusleen aurrean. Sarrera lau euro da; eta aurrez erosita, hiru euro.

**Ikuskizun berriak**

Aurreko domekan familia osoarendako sormen tailerrarekin eman zioten hasiera hiruhileko berriari Espaloian. Aurrerantzean, hilean behin egingo dute Sormening izeneko tailerra eta

otsailaren 14rako iragarri dute hurrengoa. Bien bitartean, Toni Bright mentalistaren bisita izango dute kafe antzokian. Urtarrilaren 22an izango da hori, eta sarrerak salgai daude dagoeneko —ikus 32. orria—.

Iragarrita dauden gainerako saioak dira urtarrilaren 31rako Herrixa Dantza, otsailaren 19rako *Monolokos* bakarriketa saioa, otsailaren 20rako sabel-dantza eta mikro-antzerki emanaldiak eta otsailaren 27rako El Drogas & Desmemoria Band taldearen kontzertua. Sarrerak salgai daude Espaloian eta Bergarako Pol Pol tabernan. Musika kontzertuarenak baita ere [www.ticketea.com](http://www.ticketea.com) atarian.

## Areto futbol txapelketa antolatzeko bilera irekia martitzenean

Herri mailako areto futbol txapelketan parte hartu nahi duten taldeak deituta daude martitzenean, hilak 19, udaletxean egingo den bilera irekira. Izena emateko aukera izango dute taldeek eta txapelketaren antolakuntzaz ere berba egingo da. Bilera 19:00etan hasiko da.

## Bi elkartasun bilketa kanpaina martxan egunotan herrian

Europako ekialdeko errefuxiatuendako neguko arropa jasotzen ari da Hotz Bergara taldea, besteak beste, Elgetako Saioa Masajeak kontsultan. Bestetik, martxan da urtero SOS Sahara elikagai bilketa kanpaina. Herri Eskolan zein udaletxean utz daitezke elikagaiak.

## San Sebastian Egunerako prestatzen

Herri Eskolako Haur Hezkuntzako umeak hasi dira prestatzen. Iragarri dute eliza atarian joko dutela danborra kofradiako kideendako, eguaztenean, 12:00etan. Bigarren saioa egingo dute 15:30ean frontoi zaharrean.



L.Z.

## OHARRAK

**PODOLOGO ZERBITZUA**

Erretiratuendako urtarrileko kontsulta hilaren 21ean izango da. Txanda hartzeko deitu: 943 76 80 77 (Nati).

**GARBIGUNE IBILTARIA**

Mankomunitateak eguaztenean, hilak 20, ipiniko du garbigune ibiltaria Salvador kalean, 10:00etatik 21:00etara.

**KANTSATZEKE TALDEA**

Bazkide egin edo federatu txartela ateratzeko aukera, martitzenean, 19:00etatik 20:00etara, kultura etxean.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**

Dinamizatzailea eguaztenean, hilak 20, izango da Elgetako KZgunean. Kultura etxean izango da, 16:00etatik 17:30era.

## LEINTZ GATZAGA

## Teilatuaren konponketa, bukatzeaz

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Datorren asterako bukatuko dute Dorletako Santutegiaren teilatua egiten dabilzan obrak. Betiere, eguraldiak lagatzen badie, hala goetan zeresan handia izaten du eta. Agustin Bengoak, obren arduraren Bengoa Eraikuntzak enpresako ugazabak, esandakoaren arabera, "momentuz" ezustekorik ez dute izan, eta obrak aurreikusitako bidetik eta epean egiten dabilza. Sei lagun dabilza, hain justu, santutegian lanean.



Langileak teilatua lanean, martitzenean. | UBANE MADERA

**Bestelako lanak**

Behin teilatua bukatuta, barruan bestelako lanak egingo dituzte. "Arrakalak daude paretetan, eta konpondu egin behar dira; gero

sabaia eta paretak margotu egingo ditugu; horrez aparte, kanpandorreak ere eskatzen du garbiketa, sasiak-eta ditu, eta filtrazioak ere badaude eta horiek

konpondu egin behar dira", esplikatu du Bengoak. Edozein modutan, zeregin horretan hasi barik, ezin dute jakin zelako obra izango den barruan egin beharrekoa.

## LEINTZ GATZAGA

## Eskolako neska-mutikoek danborrada egingo dute datorren martitzenean

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Gabonetako oporretatik bueltan, "atsedenerako" astirik ez dute udalerriko ikastetxeko neska-mutikoek, dagoeneko Donostiako danborradako doinuekin pentsatzen hasita dira eta. "Berez eguaztenean da eguna, urtarrilaren 20an, baina Leintz Gatzaga

martitzenean egingo dugu, eguaztenean Eskoriatzara jaistea tokatzen zaigu eta. Plazan izango da, eta, eguraldi txarra bada, pilotalekuan", kontatu du Eneritz Etxeberria irakasleak. Hark gehitu du danborradaren ostean Inauteriak prestatzen hasiko direla.



Eskolako neska-mutikoak plazan, Etxeberria andereñoarekin. | U.M.

# Aratuste bazkarirako txartelak hilaren 25etik

Azbe lantegiko eraikinean dabilta kuadrillak muntaia gertatzen

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Urte berriarekin batera hasi dira gertatzen Aratusteak herriko kuadrillak. Aurten, Azbe lantegia izandako eraikina utzi die Udalak muntaia egiteko, eta giltzak Arkupen eskatu behar dira. Izena ematerakoan hogeituro ordainduko dira fidantza legez, eta giltzak bueltatzerakoan itzuliko dute.

Lokalaren erabilerarako arauak ondo zehaztu ditu, beste behin, Udalak. Talde bakoitzak arduradun bat izendatuko du eta hark izango du giltza. Adingabeek heldu bat izango dute

arduradun, eta lokalean dauden bitartean han egon beharko du hark, derrigorrean. Materiala eta lanerako tresnak taldeak eraman beharko ditu, eta eguneko lanak bukatzerakoan bazterrak txukun utzi. Lokala 21:00etan itxiko da, eta, istripuren bat gertatuz gero, arduraduna izango da erantzulea. Aratusteak bukatutakoan itzuli beharko dira giltzak; otsailaren 15erako, hain zuzen ere.

## Txartelak kuadrillak hartu

Aratuste-bazkaria aurten ere Ibarra kiroldegian izango da eta

txartelak hilaren 25ean, astelehena, jarriko dituzte salgai. Orain arte legez, kuadrillak hartu behar dira txartelok Kultura Sailean (Arkupeko bigarren solairuan), eta ordutegia da 09:00etatik 14:30era. Helduen bazkariaren prezioa 16 euro da eta menua honako hau: paella berezia; txerri-masailak saltsan; goxua; eta kafea eta infusioak.

Umeen menuak, oster, 12 euroko prezioa du, eta jateko izango dute honako hau: makarroiak tomatearekin eta gaztarekin; hanburgesak saltsan patatekin; eta izozkia.



Argibide-orriak eta boto-paperak gertu, udaletxean. | M.A.

## Herritarrak hasi dira galdeketa botoa ematen

Hiri hondakinen kudeatze sistema hautatzeko aurretiko botoa eguna arte eman daiteke

M.A. | ARETXABALETAKO

Atzo eman zuten botoa lehen herritarrek eta datorren eguna bitartean, urtarrilak 21, izango dute aukera aurrez bozkatu gura duten gainerakoek ere. Horretarako udaletzeko idazkaritzara jo behar dute; hona ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Argibide-orriak eta boto-txartelak egunotan dabilta banatzen etxetik etxe; kartazal batean jasoko dute guztia herritarrek.

### Boto paper-bana

Hiri-hondakinen kudeaketa sistema aukeratzeko galdeketa hilaren 24an izango da. Hautakundeetan legez, Kurtzebarri eskolan jarriko dituzte hautetsontziak, eta bertara joateko

ordutegia izango da honako hau: 09:00etatik 20:00etara.

Galdera bakarrari erantzun beharko diote herritarrek: *Aratuste duzula hondakinak selektiboki biltzeko sistemarik egokiena?* Hondakinak selektiboki biltzeko proposatzen diren sistema bakoitzeko boto-orri bana egongo da, bata atez atekoarentzat eta bestea bosgarren edukiontziantzat. Horietako boto-orri bat aukeratu eta gutun azalean sartu behar da bozkatzeko.

Udalak bozkatzera animatu ditu herritarrak: "Zurea da erabakia, parte hartu!". Eta gaineratu dute: "Guztzen artean erabakitako sistema da udalerrirako osoan ezarriko duguna".



Azbe lantegia izandako eraikinean Aratusteetako muntaia gertatzen kuadrilla. | MIRARI ALTUBE

## Muru mendiaren barrenak ezagutzera joango dira bihar

M.A. | ARETXABALETAKO

Guraso Foroak eta Murruxok elkarlanean antolatutako bigarren mendi irteera egingo dute bihar, urtarrilak 16, eta oraingoan Muru mendiaren barrenak ezagutzera joango dira. Herriko plazan elkartuko dira, 10:00etan (ez dago izenik eman beharrik), eta 13:00 inguruan itzuliko dira.

### Izurietara eta Galartza

Deia da 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako eta horien gurasoendako, eta antolatzaileek guztiak animatu gura izan dituzte, "ibilaldi polita eta samurra" izango da eta. Hona zehaztu duten ibilbidea: Aretxabaleta, Izurietara auzoa, Mandogain, Naparrena baserria, Etxezuri baserria, Galartza auzoa eta Aretxabaleta.

Ekainera bitartean, hilabetean irteera bat egingo dute Guraso Foroak eta Murruxok deituta, eta horien helburua da herriko bazterrak ezagutzera.

## OHARRAK

### 'EL PUENTE DE LOS ESPÍAS' FILMA BI ASTE BUKAERATAN

Helduek *El puente de los espías* (AEB, 2015, 150 minutu) filma izango dute datozen bi aste bukaeretan: hilaren 15ean eta 16an (22:00); 17an (19:30); 18an (16:00); 21ean (19:30); 22an (22:00) eta 25ean (16:00).

### 'EL VIAJE DE ARLO' FILMA NESKA-MUTIKOEN

Neska-mutikoek, oster, *El viaje de Arlo* (AEB, 2015, 93 minutu) marrazki bizidunen filma izango dute domekan (sarrera, 3 euro), 17:00etan (zapatuan ez da egongo filmik).

### KANTARI: ENTSEGUAK

Kantari saioko entseguak izango dituzte herriko gaztekoek bihar, zapatua, Arkupen, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara bitartean. Eta urtarrilaren 23an eta 24an grabatuko dituzte saio horiek Goiena telebistarako, 16:00etatik 20:00etara; sarrerak behar dira (ume bakoitzak hiruna jasoko ditu).

### DANBORRADAK IKASTETXEETAN

Danbor hotsak izango dira datorren astean, San Sebastian egunaren bueltan, ikastetxeetan. Arizmendiko Basabeazpiko neska-mutikoek martitzenean, hilaren 19an, egingo dute, 11:00etan. Eguraldi onarekin ikastetxearen kanpoaldean izango da eta bestela barruan.

Kurtzebarri eskolako kideek, oster, eguaztenean, hilaren 20an egingo dute, 15:00ak aldera, Herriko Plazan (eguraldi txarrarekin Iturrigorri pilotalekuan). Eta Pausokako umeek ere eguaztenean egingo dute, goiz partean.

### MUS TXAPELKETA URBALTZ ELKARTEAN

Euskal Herriko VIII. mus txapelketako kanporaketa jokatu dute urtarrilaren 31n, domeka, Urbaltz elkartearen, 16:00etan. Izena bertan emango da eta hogeituro ordaindu bikoteko. Zazpi herrialdeetako finalak otsailaren 20an jokatu dira eta final nazionala martxoaren 5ean.

## Atxabalta 5. Alde plataformak desagitea erabaki du

Herritarrei eskerrak eman dizkiete eta hilaren 24an bozkatzera joateko animatu dituzte

M.A. | ARETXABALETAKO

Bosgarren edukiontzia aldarrikatzeko orain dela lau urte sortutako Atxabalta 5. Alde plataformak desagitea erabaki du. Herritarrei eskerrak eman dizkiete "jasotako babesagatik" eta hilaren 24an bozkatzera joan daitezten animatu dituzte.

### "Eskerrak" herritarrei

Urtarrilaren 24an egingo den hondakinak biltzeko sistemaren gaineko galdeketa harira hainbat gogoeta egin dituela jakinarazi du plataformak. Batek, eskerrak eman gura izan dizkie aretxabaletarrei, egingo ekintzetan "jasotako babesagatik". "Lau urte luze hauetan, hainbat ekintza egin ditugu: firma bilketa, informazioa postontzietara helarazi, Udalarekin batzarrak, hiritarrek asan-

bladak... Aretxabaletako osoko bilkuran kontsulta bat eskatu zen bukatzeko. Ekintza hauetan guztietan, aretxabaletar gehien hurbiltasuna eta laguntasuna sentitu dugu". Bestetik, urtarrilaren 24an bozkatzera joan daitezten animatu ditu aretxabaletarrek.

### Birziklapena konpromiso

Era berean, "birziklapenarekin duten konpromisoa" berretsi dute: "Birziklapenarekin gure konpromiso irmoa behin eta berriz adierazi nahi dugu, eta gure uste osoan egokiena da bosgarren edukiontziarekin biltzeko sistema". Eta, "helburuak beteta", plataformaren ibilbidea bukatutzat eman dute: "Gure helburuak betetzat emanda, plataformaren banantzea jakinarazten dugu".



## Irakurketa kluba antolatu du liburutegiak 3 eta 5 urte artekoendako

Lehenengo saioa urtarrilaren 26an da eta izen-ematea 22an bukatuko da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Gurasoak eta haurrak liburutegira elkarrekin joateko helburuarekin irakurketa kluba antolatu dute haur liburutegian, 3 eta 5 urte artekoendako eta horien gurasoendako. *Bularretik mintzora* egitasmo barruan dago eta hiru saio izango dira (17:00etan): urtarrilak 26, otsailak 16 eta martxoak 15. Izena aurrez eman behar da haur liburutegian. Horretarako, hara joan daiteke, telefonoz deitu (943 08 10 01) edo mezu bat bidali helbide elektronikora: *haur-liburutegia@aretxabaleta.net*. Azken eguna urtarrilaren 22a da.

Ondo pasatu eta prestatu

Abian jarriko duten irakurketa klubean Galtzagorri elkarteko dinamizatzaile batek zuzendutako irakurketa saioak egingo dituzte. Helburua bikoitza da, Galtzagorriko kideen esanetan: batetik, "gozatzeko une bat sortzea", ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasekin helduek eta haurrek ondo pasa dezaten; eta bestetik, gurasoak "prestatzea". "Horretarako, haur eta gazte literaturako baliabideak erakusten dira, eta kontatzeko moduak azaltzen. Azken batean, helduak seme-alabekin literatura modu autonomoan lantzeko gai senti daitezen nahi da", diote.

moan lantzeko gai senti daitezen nahi da", diote.

Hori horrela, honako asmoak zehaztu dituzte: irakurketa sustatu; kalitatezko euskal bibliografia ezagutu; guraso (hezitzaile) eta haurraren arteko irakurketa giroa sortu; gurasoak (hezitzaileak) ozenki irakurtzen trebatu; eta haurrek giro lasai batean gozatu dezaten lortu.

Gurasoek eta haurrek hainbat ekimen egingo dituzte elkarrekin, besteak beste, irakurketa ozenak eta liburuen aurkezpenak; horregatik eskatu dute "partaidetza jarrera" izan dezatela helduek.



URRI URIZAR

## Mozambikeri begiradaxo bat

Miren Amuriza bertsolariak Mozambikeraino eraman zituen eguaztenean Arkupen elkartutakoak. *Kapulana bat zintzilik* emanaldiarekin Afrikako herrialde hartako kontuak ekarri gura izan zizkien aretxabaletarrei Mundukidek.

Erakusketa aretoan, gainera, 15 urteotako lanaren berri emateko argibideak jarri ditu GKEak; bide batez, bazkide berriak egitea du helburu "proiektu gehiago" martxan jartzeko.



Lindy hopa dantzatzen. | JAIKI ELKARTEA

## Swing doinuekin dantzan egiteko saioa hilaren 30ean

Jaiki elkarteak antolatu du eta Arkupen izango da

M.A. | ARETXABALETAKO

New Yorken, 1927an, sortutako dantza ikasteko aukera eskainiko dute Jaiki elkarteko kideek oraingoan: lindy hopa. Swing doinuean oinarritutako dantza

da, "oso dantza dibertigarria", antolatzaileen esanetan, eta horren gaineko ikastaro trinkoa egingo dute datorren abenduaren 30ean, zapatua, 09:30etik 13:00etara, Arkupeko dantza aretoan.

Arratsaldean dantzaldia

"Gasteizen dantza horren inguruan mugimendu handia dago eta irakaslea, Maien Boix, handik etorriko zaigu", jakinarazi du Maier Etxebarriak, Jaikiko kideak. Edonork parte hartu ahal izango du lehenengoz egingo duten saioan, eta arrakasta handia izanez gero jarraipena izan dezakeela ikastaroak jakinarazi dute antolatzaileek.

Izena emateko epea zabalik dago, eta bideak honako hauek

dira: telefonoz: 688 86 21 87; helbide elektronikoz: *jaikielkarta@yahoo.es*; eta Facebook bidez. Prezioa da 12 euro, eta langabeendako, 10 euro.

Gainera, abenduaren 30ean, 17:00etatik 18:30era, saio irekia egingo dute Herriko Plazan: "Kalean egingo dugu dantzaldia, plazan, seguru asko. Gasteiztik dantzariak etorriko dira erakustaldi horretarako eta edozein parte hartzailei irekita egongo da", argitu du Etxebarriak.

## ARETXABALETAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK\* A

2-12 urte

**KURTZEBARRI ESKOLA**  
HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA  
Santa Kurtz 19  
Tel.: 943 79 00 49  
012015aa@hezkuntza.net

**BILERA INFORMATIBOAK:**  
**HH eta LHko (2-12 urte)**  
Urtarrilaren 21ean, ostegunean.  
- 17:30ean euskaraz.  
- 18:30ean gazteleraz.

**MATRIKULA EPEA:**  
**URTARRILAREN 25ETIK OTSAILAREN 5ERA.**



Zaintza zerbitzua egongo da.



TXIRRINDULARITZA

# Emakumeen Birako lehen etapa Eskoriatzan izango da

Apirilaren 13tik 17ra bitartean egingo dute aurtengo edizioa, eta, Bira osoa zehaztu barik badago ere, Eskoriatzako etapako ibilbidea erabakita dago

XABIER URZELAI | ESKORIATZA

Aurten ere ibarreko ziklismoza-leek Emakumeen Biraz gozatu ahal izango dute, etxean bertan. Izan ere, Eskoriatzan hasi eta amaituko dute etapa bat -lehenengoa-, bezperan Durangaldean atariko proba egin ostean. Hala, Birako lehenengo pedalkadak Iurretan eman eta gero, apirilaren 14an -osteguna- izango da Eskoriatzako etapa: "Lehenengoa denez, gogortasuna neurtu gura izan dugu, baina etapa oso interesgarria izango da", adierazi du Bira antolatzeke lanean dabilen Agustin Ruiz Larrinagak.

Lasterketa osoa ibarrean

Arratsaldean izango da lasterketa: "15:30ean edo 16:00etan hasiko da, erabakitzeke dugu oraindik", eta kilometro guztiak bailaran egingo dituzte: Eskoriatzatik Arrasaterako bidea hartuko dute ziklistek, Elorregitik Oñatira joango dira -Oñati barrutik zeharkatuko dute- eta bueltako bidea saihesbidetik egingo dute. Ziklistak Eskoriatzaraino igoko dira ostera -herri guztiak barrutik zeharka-

tuko dituzte- eta Aingeru Guardan buelta erdi eman eta Arrasaten, Olandixoko tuneletik Gesalibarrerera joango dira, Untzilla -Suñatik- igo eta Aretxabaletara jaitsi.

Eta hor hasiko dituzte kilometro erabakigarriak, Arlaban igota eta Gatzaga jaitsita. Seguruenez, Untzillako maldek lehenengo aukeraketa egingo dute -2,4 kilometro dira, baina nahiko malda gogorrekin-, eta ondorengo aukeraketa Arlabanek egingo du. Han indartsuenek egingo dute aurrera, eta, zalantza barik, Gatzaga

jaisieran trebeena denak asko izango du irabazita, berehala iritsiko da-eta Eskoriatzako helmuga, plazan bertan.

Bira osoa lotzeke oraindik

Oraindik ezin da aurreratu Iurretako atarikoaz eta Eskoriatzako etapaz batera gainontzekoak non egingo dituzten: "Zailtasun handiak izaten gabilta. Durangaldean beste etapa bat ere egingo dugu, seguru, eta aukera handiak daude laugarren etapa Lea Artibai inguruan egiteko, nahiz eta oraindik ezin dugun baieztatu".

Iaz baino "indartsuagoa"

Dena dela, antolatzaileek aurreratu dute iazkoa baino tropel handiagoa izango dela aurtengoa, eta indartsuagoa: "Hemezortzi talde izango ditugu aurten, Austria, Australia, Italia, Frantzia edota Ingalaterra moduko lurraldeak ordezkaturak egingo dira, eta irailean AEBetan munduko txapelkun izan zen Elizabeth Armitstead ere lasterketan izango da -Munduko Kopa ere irabazi zuen britainiarra-.



Elizabeth Armitstead. | THEMIXEDZONE.COM



Iaz Arrasaten hasi eta amaitu zen Emakumeen Birako irudia; Megan Guarnierrek irabazi zuen esprint estuan. | X.U.

XAKEA

## Arrasate Arlutz, hirietako klub handien kontra gorenean lehiatzen

X.U. | ARRASATE

Joan den asteburuan hasi zituzten Gipuzkoako eta Euskal Herriko xake ligak, eta beste urtebetez maila gorenean jardungo du Arrasate-Arlutz taldeak, Ohorezko Mailan: "Lehenengo jardunaldian San Vitorri 2,5-1,5 irabazteko gauza izan ginen, eta ez da liga hasteko modu txarra, kategoriari

eusteko borrokan kontrario zuzenak izango dira-eta", adierazi du Aitor Alcaidek.

Badira urte batzuk Arrasateko eta Aretxabaletako xake klubek indarrak batu zituztela, bestela ezinezkoa zen-eta gorenean mantentzea: "Hirietako klub handien kontra lehiatzen jarraitzea da lehenengo taldearen helburua,

eta ez da erraza. Esaterako, datorren astean Sestao izango dugu kontrario, eta horiek babesle indartsuak eta jokalarri profesionalak dituzte".

Bergarakoak ere lehian

Euskadiko Txapelketan lehiatzen dabiren taldeaz batera, Arrasate-Arlutzek beste bi talde ditu Gipuzkoako maila gorenean, eta laugarren talde bat hirugarren mailan. Baina ez dira xakean diharduten bakarrak, Bergarak talde bat du-eta bigarren mailan.

MENDI LASTERKETA



Aritz Saidi. | XABIER URZELAI

Aritz Saidi | Antzuolako 8 Miliak probako antolatzaile taldeko kidea

## "Dortsalak azkar agortuko zirela bai, baina horren azkar..."

Ordu gutxi batzuetan bete da Antzuolako mendi lasterketarako izen-emate kopurua

X.U. | ANTZUOLA

Iaz gertatu moduan, oraingoan ere ordu gutxian agortu dira Antzuolako 8 Miliak lasterketako dortsalak (260). Egubakoitz gauerdian zabaldu zuten izen-emate epea, eta mendi lasterkariak ez ziren despistatuta ibili. Hala, otsailaren 14ko hitzorduak segurtatuta du arrakasta.

Harrituta jendeak erakutsitako interesagatik?

Bueno, aurreko edizioan ere antzerako zerbait gertatu zen. Baina asteburuan bertan izan beharrean, uste genuen aste barruan joango zirela dortsalak agortzen. Eta ez, ordu gutxiko kontua izan zen. Halakorik ere ez genuen espero.

Bada zerbaiten seinale.

Bai, guretako oso pozgarria da: batetik, erakusten duelako jendea adi egoten dela; eta bestetik, badirudi gauzak ez ditugula horren txarto egiten.

Oraingoan ere, puntako atletei lekua egin beharrean, herritarrei eman diezue lehentasuna.

Ongietorriak puntako atletak, gainontzeko guztiak moduan, baina ez dugu bereizketarik egiten. Dena dela, badakigu iaz podiuma osatu zutenak lasterketan egongo direla.

Herritarren artean hamar dortsal zozketatu dituzue.

Bai, eta hauek izan dira irabazleak: Luis Franco Fernandez, Jon Aranguren Fernandez, Auritz Guridi Loidi, Jon Iturbe Zabalo, Ainize Lizarralde Ugalde, Iñaki Linzoain, Iban Herzog Rodriguez, Maialen Guridi Loidi, Luis Mari Larrea eta Izar Urteaga Mendizabal.

Zer dela-eta zozketa hori?

Antzuolako 8 Miliak herritarren artean kirola sustatzeko asmoz jaio zen, eta herria apur bat girotzeko asmoz. Ez genuen aparteko asmo handirik, eta begira, dagoeneko laugarren edizioa izango da. Hala, laster-

keta hasi zenetik herritar kua-drilla politak eman izan du izena -aurten 29 antzuolar izango dira proban- eta horietako batzuk zozketa bidez saritu gura izan ditugu. Keinu txiki bat baino ez da, izen-emate 8 euro da-eta, baina ezer baino hobeto. [Barre]

Batzuk saritu, eta beste batzuei laguntzeko eskatu, ala?

Bai, hala da. Ikustekoa da aurreko edizioetan ere herritarrek zelan babestu duten lasterketa, antolatzaileei laguntzen, lasterkariak animatzen... Antolaketa taldean zortzi lagun inguru gaude, eta talde polita osatzen dugu, lanak banatuta. Baina lasterketa egunerako boluntarioak beharko ditugu, anoa postuetan egoteko, bidegurutzeak zaintzeko... Ez dira lan zailak, baina jendea behar da horietan, eta tabernetan eskuorriak jarriko ditugu animatzen direnek izena eman dezaten. Iaz, esaterako, lasterketa egunean 80 laguneko lantaldea batu genuen, eta kopuru ederra da. Herri handiagotan nekez batzen dira horrenbeste lagun lasterketa baten bueltan.

Lasterketan egongo da nobedaderik?

Ibilbideari dagokionez, ez. Herriatik irtengo dira korrikalariak, eta Irimora joan-etorria egin beharko dute, 800 metro inguruko desnibela gaindituta. Baina lasterketaren astean bertan Mendi Astea antolatu gura dugu, eta xehetasun gehiago dugunean emango dugu horren berri.

"Iaz 80 lagun batu ginen lasterketa antolatzeke; kopuru ederra da"

## FUTBOLA

# Punta banatan daude, baina derbia da

Ligan bigarren dagoen Mondrak azken sailkatu Antzuola hartuko du Mojategin

XABIER URZELAI | ARRASATE

Logika nagusituko balitz, bihar Mondrak (33 puntu) ez luke arazorik izan beharko Antzuola (7 puntu) mendean hartzeko. Berba gogorak dira horiek, baina sailkapenak erakusten duena da, eta, gainera, aurrekari garbiak daude. Esaterako, joaneko partiduan Mondrak bost sartu zizkion Antzuolari –Estalan–, eta joan den astean Tolosak beste 10 sartu zizkion.

Eta aurrekari horiekin guztiekin ere, adi zaurituta dagoen talde batekin, futbolak sarritan gutxi izaten du-eta logikatik. Eta gutxiago, jokoan dagoena derbia baldin bada.

## Hamaikak Baten atzetik

Urte ederra egiten dabil Mondra, nahiz eta Zestoaren kontra estropezu txiki batekin amaitu zuten 2015a (1-1); horrek arnasa eman dio liderrari, Hamaikak Bati (38

## UDAK bikain hasi du 2016a

Lehenengo itzuli osoan irabazitako partidu kopurua (2) berdintzeko kapaz izan da UDA azken bi jardunaldietan. Valleren eta Barkeroren mutilek ederto hasi dute 2016a, Santurtzi eta Beriori irabazita, kanpoan, gainera.

Bitxia da, garaipen bakarra eskuratu dute Ibarra, eta hiru kanpoan. Eta hain zuzen, Alavesen kontra jokatu dute domekan etxean (16:30). Joanekoan Alavesek txiripaz irabazi zuen (3-2), luzapenean egindako golari esker, ez dira gehiago.

puntu). Baina maratonia da hau, eta bigarren itzuli osoa dute aurretik, denek. Antzuolan, ostera, liga hasieran ikusitakoa berretsita da, iaz taldea utzi zuten jokalarien hutsunea handiegia izan dela; zerotik hasteak kostu handia du.

Bergara eta Aretxabaleta, ostera, sailkapenaren erdian daude. Mahoneroek bigarren astez jarraian etxean jokatu dute (zapatua 16:00), eta Sorluzeren kontra bigarren zatian erakutsi zuten indarra erakutsi gurako dute ostera. Aretxabaletak, berriz, atzean dabilen Usturbielen zelaian jokatu du bihar (15:30).

## Aloña Mendi seigarren dago

Eta ohorezko erregionalean, zarata handirik atera barik baina azken hiru jardunaldiak irabazita, Aloña dagoeneko seigarren dago sailkapenean; atzean dagoen Getariako izango dute kontrario.



Mikel Aizpurua, Antzuolako atzelarien aurrean jaurtiketa egiteko gertu. | IMANOL SORIANO

## ATLETISMOA

## Kirolprobak saria irabazi du Miren Josune Bikuñak

X.U. | ARRASATE

Urtea amaituta, Kirolprobekeko lagunek iazko kirolari onenen sariak ezagutzera eman dituzte, eta Oñatiko Miren Josune Bikuñak irabazi du emakumezkoen kategorian.

Euskal Herrian egin dituzten hainbat herri lasterketek osatu dute Kirolprobak liga, eta oraingoan ere Oñatiko kirolari batek jaso du saria –laugarren urtez jarraian–. Urte osoan oso erregularra izan da Bikuña, ligako hamaiki probetan parte hartu du, guztira 1.479,37 puntu pilatuz.

## MENDI LASTERKETA

## Mondraitzekoak hasi dira motorrak berotzen

X.U. | ARRASATE

Apirilaren 10ean egingo dute Arrasate-Udalatz lasterketaren bigarren edizioa, eta lasterketako antolatzaile Mondraitz taldeko lagunek gauerdian zabaldu dute izen-emate epea (*herrikrossa.eus*).

Horrekin batera, lasterketari bultzada ekonomikoa emateko antolatzaileek errifak saldu zituzten abenduan zehar, eta aste barruan egin dute zozketa. Hala, Txoko tabernaren saria 743 zenbakiak irabazi du, Intersport Loramendiren saria 268 zenbakiak, eta Luko dendarena 227 zenbakiak.

## FRONTENISA

## Emakumezkoen 3. Frontenis Txapelketa, abian

X.U. | ARRASATE

UDAK gertu dauka Aretxabaletako 3. Emakumezkoen Frontenis Txapelketa. Urtarrilaren 30etik martxoaren 6ra bitartean jokatu dute txapelketa hori, eta partiduak zapatuan eta domekan jokatu dituzte, Iturrigorri frontoian.

Urtarrilaren 25a da izena emateko azken eguna, eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu jokatu ahal izateko –lehenengo partiduan egingo da ordainketa–. Hala, izena emateko bidali e-posta *emakumeenfrontenis@uda@gmail.com* helbidera.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

## FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**  
UDA-Alaves  
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Getariako-Aloña Mendi  
Zapatua. 18:00. Getaria.

**ERREGIONAL PREFERENTE A**  
Bergara-Urkomendi  
Zapatua. 16:00. Agorrosin.  
Usurbil-Aretxabaleta  
Zapatua. 15:30. Usurbil.  
Mondra-Antzuola  
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**ERREGIONAL, IGOERA**  
Elgoibar-Bergara  
Zapatua. 16:30. mintxeta.  
Sporting Herrera-Mondra  
Zapatua. 15:30. Herrera.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**  
Mutriku-Arizmendi  
Zapatua. 18:30. San Miguel.  
Oriko-Mondra  
Domeka. 16:00. Mendibeltz.

**OHOREZKO GAZTEAK**  
Ordizia-Mondra  
Domeka. 16:00. Altamira.  
Aretxabaleta-Elgoibar  
Zapatua. 18:00. Ibarra.  
Euskalduna-Bergara  
Zapatua. 15:30. Andoain.  
Zarautz-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:00. Zarautz.

## ARETO FUTBOLA

**EUSKAL LIGA**  
Atsedena dute.

**LEHENENGO MAILA**  
Mondrate-Irudek Barrantol  
Zapatua. 17:30. Musakola.

## EMAKUMEZKOAK SENIORRA

Anoeta-Eskoriatza  
Egubakoitza. 22:00. Anoeta.

## GAZTEAK

Mondrate-Zarautz  
Domeka. 12:45. Iturripe.

## ESKUBALOIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Ford Mugarri-Lau Bide Jat.  
Zapatua. 18:00. Iturripe.  
Izarraitz Aloña-Corazonistas  
Zapatua. 18:15. Zubikoa.

**GIPIZKOAKO TXAPELKETA**  
Aritzatalde-Bergara  
Zapatua. 16:00. Zarautz.

**GIPIZK. BIGARREN MAILA**  
Arrasate-Munttarpe  
Domeka. 11:00. Iturripe.

## GIPIZKOAKO GAZTE MAILA

Aloña Mendi-La Salle  
Zapatua. 16:30. Zubikoa.  
Bergara-Zarautz  
Zapatua. 13:00. Labegaraieta.

**GAZTE EMAKUMEZKOAK**  
Ereintza-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:00. Errenteria.

## SASKIBALOIA

**EBA**  
Easo-MU  
Zapatua. 20:00. Donostia.

## BIGARREN MAILA

Urdaneta-Natra Oñati  
Zapatua. 18:00. Loiua.

## SENIOR GIZONEZKOAK

Astig. La Salle-Soraluce BKE  
Zapatua. 18:00. Astigarraga.  
Errotaundi-MU  
Zapatua. 16:00. Azpeitia.

## SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Grupo EME Oiasso  
Egubakoitza. 20:00. Manuel Mu.

## ERRUGBIA

## SENIOR BIGARREN MAILA

Arratiko Zekor-Kanpanzar ART  
Zapatua. 16:00. Arratia.

## PILOTA

## ARRASATE

Gaur, egubakoitza, 19:00etan:  
Arrasate-Lapke (2. urteko alebin).  
Arrasate-Gure Txeru (Gazteak)

## ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, 19:00etan:  
Olalde-Euskal Jolas (Infantilak)

## OÑATI

Gaur, egubakoitza, 19:15ean:  
Aloña Mendi 2-Añorga (kadeteak)  
Aloña Mendi 2-Hondarribi. (gazt.)

## ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, 20:00etan:  
Eskoriatza-Mundarro (Seniorrak).

## ARETXABALETA

Zapatua, 16:30ean hasita:  
Aretxabaleta 1-Aloña (alebinak)  
Aretxabaleta-Legazpi  
(Infantilak)

## BERGARA

Domekan, 11:00etan hasita:  
Alebinen bi partidu, eta segiduan:  
Bergara-Mundarro (seniorrak).



Etxean jokatu du Eskoriatzak. | ISORIANO

MISSION 2

**LABORAL KUTXA vs. CSKA MOSCOW**

**21.01.16 - 20.30**

Erosi zure sarrera Baskonia Alaves Denda Ofizialean  
General Alava Kalea 1 - 902 13 91 91 - www.baskonia.com

BASKONIA | LABORAL KUTXA

# KULTURA

## Kantari badator: 1.000 gaztetxo izango dira aurten oholtza gainean

- Hilaren 23an eta 24an izango dira lehenengo ikuskizunen grabazioak
- Otsailetik aurrera ikusi ahal izango dira saioak Goiena telebistan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Kantari karaoke saioaren beste edizio bat abiatuko du Goienak, oraingo asteburuan Eskoriatzan eta Aretxabaletan hasiko dituzten entseguekin. Debagoieneko ikasketxe eta udalen laguntzarekin antolatzen du Goienak bi urtean behin karaoke saioa.

### Aurten, errekorra

Bihar, zapatua, abiatuko den bosgarren aldian, 7 eta 11 urte arteko 1.000 gaztetxo ikusi eta entzungo ditugu kantuan. "Sekulako harrera izan du hasieratik Kantarik, gaztetxoaren artean ondo uztartuta dagoen ikuskizuna da. Aurten jendea zain zegoen parte hartzeko deialdia noiz aterako genuen. Oso pozik gaude horrela izaten jarraitzen duelako; horren erakusle, aurten marka guztiak gainditu ditugula", azaldu du Oihane Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak.

### 48 kantuko zerrenda

Euskal kantagintzaren erakusle-ihor zabala da Kantari. "Belau-naldi askotakoek ezagutzen dituzten betiko kantuek ditugu, bate-tik: Oskorriren *Furra-Furra*, Kortaturen *Sarri-Sarri*, Zaramaren *Iñaki...* Kantu berri batzuk ere sartu ditugu, baina, aurtengo zerrendan: Gatiburen *Euritan dantzan*; Esne Beltzaren *Gogoak*; Hesianen *Guregatik*; Ze Esatek! taldearen *Kantuz eskertu*; Zea Maysen *Kukutza* eta beste klasiko bat ere bai: Ken 7ren *Haizea*. Gurasoek eskertu egiten digute betiko horiek aukeratu izana eta gaztetxoek, berriz, gaur egungo taldeen kantuek eskatzen dizki-



Orain dela bi urte Arrasaten grabatu zen saio baten amaierako irudia. | IIMANOL SORIANO

gute. Guztien gogoia asetzen saiatzen gara", dio Amaia Txintxurreta.

Kantuen aukeraketa zozketa bidez egiten dute saioko arduradunek. Astean egin dute Oñatiko eta Bergarako saioetako kantuen banaketa, eta laster jasoko dituzte Arrasateko grabaketan parte hartuko dutenak.

### Entsegu eta grabazioak

Aitor Agiriano eta Txatxilipurdi elkarteko Unai Legarda izango ditu aurten Amaia Txintxurreta aurkezleak laguntzaile. Parte hartzaileei harrera egiten eta horien urduritasunak lasaitzeko ardura izango du Agiriano; eta haurren aldamenean izango da entseguetako agertokian Legarda.

Kantuen hitzak eta koreografiak ondo landuta eraman beharko dituzte parte hartzaileek. "Gero eta gaztetxo gehiago animatzen

dira koreografiak propioak sortzen; hala ere, saioaren blogean hainbat kanturenak dituzue lagungarri", dio Agirrek.

AMAI TXINTXURRETA | KANTARIKO AURKEZLEA

## "Familia guztia jarri nahi dugu kantuan eta dantzan aurtengo Kantariko saioetan ere"

Aurten ere Amaia Txintxurreta da Kantari karaoke ikuskizuneko aurpegi nagusia.

### Bihar hasikoz arete lehenengo entseguekin; gogoz zaude?

Bai, gogoz nago aurtengo Kantarirekin hasteko; oso polita izaten da Debagoieneko gaztetxoak denetarik euskal abestiak kantatzen eta dantzatzen ikustea. Gainera, uste dut parte-hartzaileak ere ilusioz daudela entseguetarako eta grabazioetarako. Aurten inoiz baino haur gehiagok eman dute izena, 1.000 gaztetxo inguru igoko dira guztira grabazioak egingo ditugun herrietako agertokietara, eta harrera hori ikustea ikaragarria da.

### Gaztetxoak urduri daude. Gomen-diorik entseguetarako?

Kantuen letra eta koreografia ondo ikasita etor daitezela da nire gomendioa. Modu horretara, segurtasun handiagoarekin egoten dira oholtzan eta horrek asko laguntzen die. Entseguan lehenengo aldiz abestuko dute kantua tokatu zaien abestiaren instrumentalaren gainetik; beraz, horrek



JAGOBA DOMINGO

ere lagunduko die konturatzen ozen abestu beharko dutela agertokian daudenean, euren ahotsa entzun dadin.

### Gomendiorik grabaketarako?

Gogoz eta ilusioz etor daitezela, hori da garrantzitsuena. Familia guztia jarri nahi dugu kantuan eta dantzan aurtengo Kantariko saioetan ere, eta inportanteena da gaztetxoek ondo pasatzea eta gustura gelditzea bizitako esperientziak. Hemendik animoak bidaltzen dizkiet parte-hartzaileei; saioetan elkar ikusiko dugu!

Lau herritan izango dira grabazioak, herri gehiagotako ordezkariak izango badira ere. Datorren asteburuan Aretxabaletan hamar saio grabatuko dituzte, Oñatin zortzi saio, Bergaran hamar eta Arrasaten hamabi. Arizmendi Ikastolako Lanbide Hastapeneko ikasleen laguntzarekin egin dute aurtun ere dekoratua.

Grabazioetako ateak zabalik izango dira. "Edukiera arazoak ekiditeko, Aretxabaletako eta Bergarako grabaketetarako gonbidapenak jasoko dituzte entseguetan. Gainontzeko herrietarako ez da gonbidapen beharrik izango. Era berean, entseguetan banatuko dizkiegu grabazioen gaineko informazioaren papera", dio aurkezleak.

### Estreinakoz, argazki lehiaketa

Instagram sare sozialaren bitartez Kantari ikuskizunetako argazkiak bidaltzeko aukera izango da oraingoan. Grabazioak ikustera hurbiltzen den edonork har dezake parte, eta #goiena eta #kantari etiketak erabili beharko dira. Tableta bat zozkatuko dute parte hartzaile guztien artean.

### Egin klik Kantari blogean

Otsailetik aurrera erakutsiko dituzte Goiena telebistan; astebururo bi saio berri. Pantaila txikian erakutsi ondoren, [blogak.goiena.eus/kantari](http://blogak.goiena.eus/kantari) atarian izango dira gero eskuragarri.

Saioez gainera, parte hartuko duten gaztetxo guztien saioetako argazkiak ere bilduko dituzte blogean.

## KANTARIKO EGUTEGIA

### ENTSEGUAK

#### Aretxabaleta

Urtarrilak 16. Arkupe kultura etxean.

#### Eskoriatza

Urtarrilak 17. Zaldibar antzokian.

#### Oñati

Urtarrilak 30 eta 31. Gaztelekuan.

#### Bergara

Urtarrilak 20 eta 21. Zabalotegi aretoan.

#### Arrasate

Martxoak 19 eta 20. Kulturaten.

### GRABAKETAK

#### Aretxabaleta

Urtarrilak 23 eta 24. Arkupe kultura etxean.

#### Oñati

Otsailak 13 eta 14. Gaztelekuan.

#### Bergara

Otsailak 27 eta 28. Zabalotegi aretoan.

#### Arrasate

Apirilak 9 eta 10. Amaia antzokian.



Unai Legarda, Amaia Txintxurreta eta Aitor Agiriano. | XABI URTZELAI

# Amaia antzokia

Urtarrila-maiatza 2016



Urtarrilak 23  
'Jabier Muguruza'

Musika



Urtarrilak 30  
'Barbantxo' • Logela Multimedia

Haur antzerkia



Otsailak 7  
'Heroiak' • Txalo Produzioak

Antzerkia



Otsailak 21  
'Etxekoak' • Huts Teatroa eta Artedrama

Antzerkia



Otsailak 24  
'Rigoletto' • Opera 2001 • Antolatzaillea: Ozenki

Opera



Martxoak 5  
'Amour' • Tartean eta Marie de Jongh

Antzerkia



Martxoak 13  
'Guerra' • Albert Pla, Fermin Muguruza eta Refree

Musikala



Martxoak 20  
'El Florido Pensil' • Tanttaka

Antzerkia



Apirilak 16  
'Ken Zazpi'

Musika



Maiatzak 8  
'Pinocchio' • La Baldufa

Haur antzerkia



Maiatzak 14  
'Aureo' • Dantzaz konpainia

Dantza

Antzerkia | Musika  
Haur Antzerkia | Dantza | Opera



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Sarrerak salgai:  
[www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus) webgunean

Kultura Saila ■

ETXEKOA,  
EUSKALDUNA,  
GERTUKOA,  
DEBAGOIENEKOA,  
BERTAKOA,  
GUZTIONA!

# puntua

URTEBETEZ DEBAGOIENEKO  
4.000 ETXEETAN!

**ORAINDIK EZ BAZARA HARPIDEDUN,**  
DEI EZAZU 943 25 05 05 TELEFONO ZENBAKIRA ETA  
55 EUROREN TRUKE OSTIRALERO  
JASOKO DUZU PUNTUA ETXEAN.



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# Natura ardatz duen erakusketa zabaldu dute Pol-Pol tabernan

- ▶ Otsail amaierara arte egongo da zabalik erakusketa: 12 lan jarri dituzte ikusgai
- ▶ Gilermo Azkarate eta Agustin Amasorrain bergararrak eta Jon Zabaleta dira artistak

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergarako Beart elkarteak antolatuta, argazki eta ilustrazio erakusketa zabaldu dute Pol-Pol tabernan. Domekan inauguratu zuten erakusketa, eta otsail amaierara arte egongo da zabalik.

Erakusketan hiru artistaren lanak daude ikusgai: Gilermo Azkarate eta Agustin Amasorrain bergararrenak eta Jon Zabaleta ilustratzaile hernaniararrenak.

## Agustin Amasorrain

Amasorrain bergararra Bearteko bazkide eta argazkilaria da. Pol-Pol- en ikusgai dagoen erakusketan lau argazki jarri ditu: Urbian ateratakoa da bat, behe-laino egun batean. "Ikaragarriko magia zeukan egunak, asko disfrutatu genuen", azaldu du argazkiaren gainean. Bigarren argazkia Araban egindakoa da, Izki parkean. Zuhaitz batean hostoaren gerizpeak agertzen dira: "Gerizpeak asko gustatzen zaizkit. Argazki horri *Klorofila* deitu diot", azaldu du. Beste bi lanak Aralarren egindakoak dira: "Urtero joaten naiz Aralarra, udaberri eta udazkenean, asko gustatzen zait", dio. *Sarea* izena jarri diot bati, usok harrapatzeko sistema horren



Amasorrain, Azkarate eta Zabaleta, Beart elkarteko kideekin. | AMAIA TXINTXURRETA

paralelismo bat eginda. Azkena elurrarekin egindakoa da.

## Gilermo Azkarate

Azkarate argazkilaria argazki minimalistak egiten ditu. Pol-Pol-eko erakusketara lau argazki eraman ditu: *Hila*, *Bizia*, *Txorria* eta *Beltza*. "Antagonismoa dute elkarren artean, ideia horrekin egin nuen", azaldu du. Herritarren aldetik erakusketak erantzun ona jaso duela esan du.

## Jon Zabaleta

Jon Zabaletak bide luzea egin du ilustrazioaren munduan. "Normalean liburuetarako ilustrazioak egiten ditut; 100 bat lan egin ditut, idazle ezberdinendako, gehienak euskaraz", dio ilustratzaile hernaniarrek.

Azkarate eta Amasorrain lagunak ditu eta eurek gonbidatuta zabaldu du erakusketa: "Lan solteak ekarri ditut, bat-batean egindakoak", azaldu du. Marrazkiak eta margoa nahastu ditu Pol-Pol-eko erakusketan. Bergarara behin baino gehiagotan etorri izan dela dio Zabaletak: "Kultura etxean egon izan naiz, liburu bat marrazten eta komiki ikastaro bat eskaintzen".

## ESANAK

"Argazkiak egiterakoan gerizpeak, adibidez, asko gustatzen zaizkit"

AGUSTIN AMASORRAIN | ARGAZKILARIA

"Erakusketa ikusi dutenek oso polita dela esan digute, positiboan berba egin dute"

GILERMO AZKARATE | ARGAZKILARIA

"Lan solteak egin ditut, bat-batean egindakoak, marrazkia eta margoa nahastuz"

JON ZABALETA | ILUSTRATZAILEA

## Ikusleek proposatutako gaiak eta egoerak inprobisatuz, antzerki gala ikusgarria

Orain dela hiru hilabete sortutako Irazan antzerki-gunea sekulako artisten topagunea dela argi geratu zen herritarren aurrean egin zuten aurkezpenean

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

Erretiratuen elkarretaratzearekin topo egin zuten egubakoitzean antzerki galara hurbildu zirenek. Ikusleen sorpresarako, aktoreak

ziren horiek. Sarreren saltzaileak, aretozainak eta tabernako zerbitzariak ere antzeztan ari ziren. Argia itzali aurretik, Irazanekoak aktore lanetan, beraz.

## Bertsolariek moduan

Aretoan sartuta, sarrerarekin batera paper bana jaso zuen ikusle bakoitzak. Taularen gainera igoko zirenek antzeztu gura zuten

gaia edo egoera idatzi zuten han. Askotarikoak: *Zer da feminismoa?*; *Ai, ama!*... Argiak itzali orduko aurkezleak agindutako ariketa ezberdinen bitartez -dantzan batzuetan; alfabetoarekin jolastuz, hurrengoan; eta *Letra debekatua* edo *Nire bi besoak* jolasekin, besteak beste- egoera horiek antzeztu zituzten zortzi inprolariek, lepo bete zen Gaztelekuan. "Ariketak zeintzuk ziren bazekiten, baina, zein jokotan eta norekin parte hartuko zuten, momentuan jakiten zuten. Bertsolariek moduan!", azaldu du koordinatzaile lanetan jardun zuen Oihana Martinez de Albenizek, Irazaneko kideak, eta pozik daudela emaitzarekin gaineratu du: "Aretoa beteta, jendea zutik, txalo zaparradak, barre algarak... Askok gozatu dugu guztiok, taldekideok eta baita ikusleek ere. Hurrengo ikuskizuna prestatzen hasiko gara, beraz, lehenbailehen".

## Urtarrilaren 23an, gazteek

Helduen taldeaz gainera, hamabost lagun batzen dituen gazteen taldea ere badute Irazanekoek. Elkar Hezi ikastetxean egingo dute estreinako ikuskizuna.

## Arrasate Literatur Lehiaketan 29. edizioa abian

A. A. | ARRASATE

Literatura zaletasuna eta euskarazko sormena sustatzea dira AEDk bultzatzen dituen lehiaketan helburuak. Martxoaren 16a da lanak bidaltzeko azkeneko eguna.

## Ipuina, poesia eta bertsoak

Debagoienean bizi, lan egin edo ikasten duen edonork har dezake parte. Euskarazko obra originalak eta argitaratu gabekoak izan behar dira. Gaia librea da atal guztietan, eta parte hartzaile bakoitzak gura beste lan aurkez dezake. Hiru diziplina landuko dira aurten ere, eta adinkako lau kategoria izango dira bakoitzean.

Lanak bidaltzeko: [aed@aedelkarta.com](mailto:aed@aedelkarta.com); edo posta arruntez: Arrasate, Pablo Uranga 4, behea.



Inprolariek ikuskizunean buru-belarri. | IMANOL SORIANO



Nire bi besoak jolasean gustura. | I.S.

Toni Bright | Mentalista

## "Mentalistok pertsonen burmuinarekin magia egiten dugu"

Urtarrilaren 22an Elgetako Espaloia antzokian ikuskizuna eskainiko du estatu mailako mentalistarik ospetsuenetako batek, Toni Brightek

**MAITE TXINTXURRETA | ELGETA**  
Hurrengo egubakoitzean, urtarrilak 22, Toni Bright mentalistaren ikuskizun harrigarria izango da Elgetako espaloian, 22:30ean hasita. Estatu mailako mentalistarik ospetsuenetarikoa da Bright, eta aho zabalik utziko du publikoa. Sarrerak jada salgai daude Bergarako Pol-Pol tabernan, hamabi eurotan. Leihatilan hamasei eurotan eskuratu ahal izango dira.

**Nolako izango da Elgetan eskainiko duzun ikuskizuna?**

Zazpi urtetik gorako pertsonentzat gomendatutako ikuskizuna da, edonor etor daiteke. Ikuskizun horretan, ikusleen pentsamenduak irakurtzen ditut, objektuak burmuinarekin mugitu... baita

espirituekin kontaktatu ere. Ikuskizun desberdina da, mentalismo ikuskizuna, burmuinaren magia. Dinamikoa, atsegingarria, harrigarria eta dibertigarria. Gainera, ikusleetako askok parte hartzen dute, eta jendea txundituta irten da.

**Zure ikuskizunetan izan den jendeak nolako erreakzioa izan ohi du?**

Ba, egia esan, jendea txundituta irtetzen da antzokitik, aho zabalik irten ohi da mundu guztia,

**"Ez dut laguntzailerik izaten ikuskizunetan"**

eta ikusi duena ezinezkoa dela pentsatuz. Gero, etxera helduta koan, buruari bueltaka hasten dira, ondorio batera heldu ezinik. Ateratzen duten ondorio bakarra izaten da ikusi dutenarekin liluraturata geratu direla.

**Beraz, ikuskizuna ez da antzokitik irtetea bukatzen.**

Ez, ez. Buruari bueltaka orduak, egunak edota asteak egon zaitezke. Hori da benetan jendea irteeratu eta ondoren deskonektatu. **Zein desberdintasun dago mago baten eta mentalista baten artean?**

Nik beti diot magoa kapelatik untxia ateratzen duena dela, edo sokekin edo kartekin trukuak



Toni Bright. | TONIMENTALISTA.COM

egiten dituen, esaterako. Baina mentalistok erabiltzen ditugun erremintak psikologia eta sugestioa dira. Nik mentalistok egiten duguna "burmuinaren magia" dela diot.

**Internetekin eta teknologia berriekin, zailagoa da jendea harritzea?** Baliteke; horregatik, nire ikuskizunean originaltasuna garran-

tzitsua da. Nik egiten dudana ez dut beste inon ikasi, eta horrela lortzen dut jendea harritzea. Komedia asko dago, magia ere bai... baina mentalista gutxi dago. **Eszeptikoak ere joan daitezke?** Bai, noski; harritura irtengo dira. Argitu nahi dut ez dudala laguntzailerik izaten ikuskizunetan.

Amaia Txintxurreta  
Kantari aurkezlea.

5. ALDIA

# Kantari



**Aretxabaletako eta Eskoriatzako partaideok, eman azken erreposoa abestiari eta koreografiari!**



**ENTSEGUAK ARETXABALETAN ETA ESKORIATZAN**  
Urtarrilaren 16an Arkupen eta urtarrilaren 17an Zaldibarren



**IKUSKIZUNA ARETXABALETAN**  
Urtarrilaren 23an eta 24an Arkupe aretoan

Informazio gehiago: 943 25 05 05  
<http://blogak.goiena.eus/kantari/>



## Parte hartze handia izan du Jardunen Amodiozko Gutunen 24. Lehiaketak

Laurogeita hamalau gutun aurkeztu dituzte, guztira, Euskal Herriko txoko desberdinetatik

M.T. | BERGARA

"Oso pozik gaude jasotako gutun kopuruarekin", adierazi dute lehiaketaren antolatzaileek. Aurtun, laurogeita hamalau jaso dituzte, eta azken urteotako parte hartze daturik handiena izan da 24. edizio honetan.

1993. urtean sortu zuten Amodiozko Gutunen Lehiaketa, *Berrigara* aldizkariaren 100. alea ospatzeko aitzakian. Ekimenak herriartean euskaraz idazteko zaletasuna bultzatzea izan du helburu hasieratik. Hala, gerora herri desberdinetan sortu diren amodiozko gutunen lehiaketen aitzindaria izan zen Bergarakoa.

**Gizonetako gehiago**

Gutun horien idazleen gehiengoak, hirurogei, hain zuzen, emakumeak izan dira, eta gainontzeko hogeita hamalauak gizonak. Bestalde, parte hartzaileen batez besteko adina ere igo egin dela azaldu dute euskara elkartetik. Jardun elkartetik nabarmendu nahi izan dute beste edizio batzuekin alderatuta aurtengoan hogeita hamar urtetik gorako "gizonetako heldu dezentek" hartu duela parte.

Jasotako gutunen artetik, bergararrek bidalitakoak 12 izan dira. Debagoieneko gainontzeko herrietatik lau, eta Gipuzkoa

mailan, guztira 56 parte hartzaile izan dira. Horietaz gain, 25 bizkaitarrek ere bidali dituzte lanak; Nafarroatik 10 gutun jaso dituzte Jardunen, Arabatik bi eta Iparraldetik bat.

**Epaimahaia**

Urtero bezala, literatura eta kultura munduko jendea izango da gutunak irakurri eta baloratzeaz arduratuko dena. Aurtun, epaimahai nagusia osatuko duten pertsonak honako hauek izan dira: Arianne Unamuno (kantaria), Agin Larburu (bertsolaria), Andoni Urtzelai (idazlea) eta Josune de Goñi, pasa den edizioko irabazlea.

Bestalde, epaimahai gaztea ere izango da, 26 urtez azpikoek lanak irakurri eta horiei buruz iritzia ematen. Kasu horretan, herriko ikastetxeetako ikasleak izango dira; Aranzadi Ikastolako Maite Arrillaga eta Miren Castelo eta Ipintza Institutuko Amaia Langares eta Ane Loidi arituko dira zeregin horretan.

**Sari banaketa**

Irabazleak saritzeko ekitaldia otsailaren 13an, San Valentín egunaren bezperan, egingo dute, 12:00etan, Irizar jauregian. Ondoren, bertaratutakoentzat luntxa egongo da.



Marta Gartzia | Ikaslea

# "Ez dugu helburu finkorik; areto futbolaz gozatzearekin eta ondo pasatzearekin nahikoa"

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Marta Gartzia, (Eskoriatza, 1996) 19 urte ditu eta ingelesezko irakasle ikasketak ari da Eskoriatzako Huzezi fakultatean. Umeen ondo konpontzeaz gainera, hainbat zaletasun ditu, eta horietako bat kirola egitea da. Urte askotan aritu da Arizmendi futbol taldean jokatzen, eta, iaz ezker, Eskoriatza kirol elkartereko areto futbol talde berrian dihardu.

**Nola hasi zinen Eskoriatzako areto futbol taldean?**

Eskoriatzako areto futbol taldea 2014an sortu zen, baina lau edo bost partidu bakarrik jokatu genituen. 2015ean, berriz, hamar jokalariko talde finkoa izatea lortu dugu, eta senior mailan ari gara borrokan. Gainera, bailarako emakumezko talde bakarra gara, aitzindariak, baina uste dut datorren urtean Aretxabaletan eta Arrasaten talde berriak sortzeko intentzioa dagoela.

**Hala bada, bi derbi jokatzea zer izango da?**

Ezagun ugari egongo gara gure artean lehian, eta, ezagunen aurka jokatzeak emozioa areagotzeaz gain, tentsioa ere ekarriko du. Datorren urterako erronka bikaina izango da, duda barik, eta, seguruenik, seriotasun handiagorekin aterako gara kantxara. Bide batez, harmailak gehiago betetzen badira ona izango da taldearentzat, eta, orokorrean, emakumezkoen areto futbol taldearentzat.

**Erronkak aipatu dituzu; Euskal Selekzioaren aurretiko aukeraketako entrenamenduetan ere izan zara, ezta?**

Bai; Elaitz Iregi taldekidea eta biok izan ginen. Araban entrenamendu bat egin genuen eta Gipuzkoan beste bat. Oso gazteak ginela eta datorren urtean berriz deituko digutela esan ziguten. Anekdotak gisa geratu da, baina esan beharra dago maila handia dagoela, Gipuzkoan, batez ere...

**Zein da zuen taldearen alde indartsuena?**

Batez ere, taldekideon artean dugun giroa azpimarratuko nuke. Oso ondo konpontzen gara, eta, ez badugu disfrutatzen, zertarako jokatu? Futboleant ari nintzeanean, nagusien aurka jokatzen genuen, eta ez nengoen hain gustura. Orain, aldiz, gure adin inguruko aurka jokatzen dugu eta orokorrean oso gustura ari gara.

**Taldearen lehen urtea izanda, nola ari zarete ligan?**

Sailkapenean seigarren postuan gaude. Gure lehenengo urtea da, eta beste taldeek urte gehiago daramatzate talde berarekin entrenatzen, jokatzen... Areto futbolaz gehiago dakite, eta hobeak dira. Hala eta guztiz ere, poliki-poliki, beraien mailan jartzen ari gara uste dut. Aste bukaera honetan Anoetaren aurkako partidua irabazten badugu, laugarren postua lortuko dugu, eta horri begira gaude gaur egun.

**Helburuak betetzen ari zarete?**

Taldean ez dugu helburu finkorik. Areto futbolaz gozatzea da gure helburu nagusia, eta, bide batez, ondo pasatzea. Horrez gain, espero ez genituen emaitzak lortzen ari gara uste dut, eta hori pozgarria da taldearentzat.

**Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?**

Seguruenik, ikasketak bukatu arte jarraituko dut; hortik aurrera, ikusiko dugu. Ikasketen araberakoa izango da erabaki hori...

**Musikaria ere bazara?**

Ez nuke hainbeste esango. Txikitik hasi nintzen musika eskolan tronpetan jotzen, eta instrumentu hau jotzen zuen neska bakarra nintzen. Garai hartan bandan hasi nintzen eta gaur egun egiten dugu emanaldiren bat edo beste, baina ez dut hain serio hartzen. Gustuko dut, baina aurrera begira ez dut musikarekiko planik.

**Irakasle ikasketak kirolarekin nahastentzai zara?**

Umeen oso ondo moldatu izan naiz beti; izan ere, hainbat udaldekutan, Gabonetako parkean... izan naiz, begirale, eta uste dut ondo egokitzen zaidala. Nire ikasketek ez dute zertan kirolarekin bat joan, eta, oraingoan, ez dut horretan pentsatzen. Hala ere, aukera badut, ondo irudituko litzaidake ikasketak kirolarekin bat egitea...

## PERTSONALA

**Zure herriko txoko maiteena:** Lokala.

**Gosari gustukoena:** Colacaoa.

**Telefono dei pozgarriena:** Lagunek parrandan joateko egiten didaten edozein.

**Kantu gustukoena:** Melendiren edozein.

**Egindako bidaia gustukoena:** Italiara.

**Egingo zenukeen bidaia:** Indiarra.

**Kirolari bat:** Andres Iniesta.

**Amets bat:** Etorkizunean irakasle izatea; hori ikasten ari naiz, baina gauzak ez daude oso ondo gaur egun.

**Marta Gartzia, Ibarra kiroldegian, entrenamendua hasi aurretik.**





## ZORION AGURRAK



**ARRASATE**  
**Malen Artetxe eta Ibai Apaolaza**  
Malenek urtarrilaren 20an eta Ibaik 22an. Zorionak bi lehengusu-lehengusinei. Jadantik 12 urte! Ondo ospatu urtebetetzeak. Muxuak, familiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Paula Andres Carmona**  
Urtarrilaren 19an, 9 urte. Zorionak asko maite zaituzten gurasoen, lehengusu-lehengusinen eta familia guztiaren partetik.



**ARAMAIO**  
**Nora Elortondo Garro**  
Urtarrilaren 18an, 4 urte. Zorionak, Nora! Ondo-ondo pasatu zure urtegunien eta patxo potolo bat danon partetik.



**OÑATI**  
**Enaitz Sagasta G. de Kortazar**  
Urtarrilaren 17an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxeko danon partetik.



**ESKORIATZA**  
**Amalur Karpio Azpitarte**  
Urtarrilaren 16an, urtebete. Zorionak gure poxpolintxuari, bere amamak eta aititak.



**ANTZUOLA**  
**Irati Diosdado Lizarazu**  
Urtarrilaren 16an, 5 urte. Zorionak, *printzes!* Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu pila bat etxekoen partetik.



**ARRASATE**  
**Naroa eta Ander Unamuno Lopez de Arkaute**  
Naroak urtarrilaren 16an, 7 urte eta Anderrek 17an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat familia osoaren partetik!



**OÑATI**  
**Uxue Igartua Kortabarria**  
Urtarrilaren 14an, 9 urte. Zorionak, maitte! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



**OÑATI**  
**Irati Jausoro**  
Urtarrilaren 14an, 3 urte. Zorionak, Irati! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu pila bat, printzesa!



**ARRASATE**  
**Alazne Canales Losa**  
Urtarrilaren 14an, 8 urte. Zorionak, printzesa handi! Festa handi bat egingo dugu, merezi duzulako. Mila patxo aitaren, amaren eta, bereziki, Aitorren partetik.



**BERGARA**  
**June Gabilondo Kapelastegi**  
Urtarrilaren 13an, 3 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta patxo potolo bat aitatxoren, amatxoren, Naiaren eta denon partetik.



**ARETXABALETA**  
**Haizea Duandikoetxea Otxoa**  
Urtarrilaren 13an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Zelako handia egin zaren! Ondo pasatu zure urtebetetzean!



**BERGARA**  
**Oier eta Elene**  
Elenek urtarrilaren 11n, 5 urte eta Oierrek 16an, 9 urte. Zorionak, bikote! A ze pare! Txokolatetzko muxu potolo bana, familiaren eta, Izarren, Ekaitzen eta Ametsen partetik.



**BERGARA**  
**Oier Mendizabal Larrañaga**  
Urtarrilaren 11n, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat Maddiren eta familia guztiaren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



**ARETXABALETA**  
**Araitz Lizarriturri Etxenautia**  
Urtarrilaren 11n, 10 urte. Zorionak, zure urtebetetzean. Zorionak, ta urte askotarako... Araitz! Ondo pasatu zure 10. urtebetetze eguna. Doltza, Elene eta Paule.



**ARRASATE**  
**Julen Ugalde Gorosabel**  
Urtarrilaren 11n, 10 urte. Zorionak, Julentxo! Ederto ospatu zure eguna, etxeko guztien partetik. Patxo potolo bat.



**ANTZUOLA**  
**Izaro Iriar Fernandez**  
Urtarrilaren 10ean, 3 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



**BERGARA**  
**Gorka Domenech Iñarra**  
Urtarrilaren 8an. Zorionak, maitia. 11 urte; ze azkar pasatu diren. Ea gustatzen jatzun prestatuta daukagun sorpresa. Muxu handi bat. Araitz, aitatxo eta amatxo.



**BERGARA**  
**Danel Urrutia Arribillaga**  
Urtarrilaren 8an, urtebete. Zorionak, zure lehenengo urtebetetzean! Urte zoragarria oparitu diguzu! Muxu pila bat etxekoen partetik, bonboi!



**OÑATI**  
**Naia Letamendi Narraspe**  
Urtarrilaren 8an, 3 urte. Zorionak, maitia. 3 urtetxo jada. Ondo pasatu zure egunean. Etxeko guztien partetik, muxu handi bat, potxola.



**OÑATI**  
**Haizea Lopez Lasa**  
Urtarrilaren 7an, 7 urte. Zorionak etxeko printzesa txikiari! Dagoeneko zazpi urtetxo. Ondo ospatu eguna maite zaitugun guztion konpainian.



**ARETXABALETA**  
**Oier Gil**  
Abenduaren 29an, 3 urte. Zorionak, pitxintxo! Patxo handi-handi bat amatxoren era aitatxoren partetik! Mua!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



## ESKER ONA

**Maria  
Madariaga Ormazabal**

2016ko urtarrilaren 7an hil zen, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2016ko urtarrilaren 15ean.

## ESKER ONA

**Carmen  
Unzurrunzaga Lazpiur**

2016ko urtarrilaren 10ean hil zen, 94 urte zituela.

Lerro hauen bidez Carmenen sendiak eskerrak  
eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna  
eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—  
*Ilargiaren islada eta izarren distira piztuko ditu  
zure irriak lainorik gabeko gau ilunetan.*

Bergaran, 2016ko urtarrilaren 15ean.

## ESKER ONA

**Ines  
Maldibi Olano**

Doroteo Urrutiaren alarguna

2016ko urtarrilaren 4an hil zen, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

—  
Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 16an, 19:30ean,  
Oñatiko agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko urtarrilaren 15ean

## ESKER ONA

**Jose Antonio  
Jauregi Loiti**

2016ko urtarrilaren 8an hil zen, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

—  
Haren aldeko meza domekan izango da,  
urtarrilaren 17an, 12:00etan, Aramaioko San Martin parrokiari.  
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Aramaion, 2016ko urtarrilaren 15ean.

## ESKER ONA

**Dionisio  
Abasolo Askasibar**Arientza Etxebarrin, 1922ko apirilaren 19an  
Aretxabaletan, 2016ko urtarrilaren 4an.

Eskerrik asko bizitza luze honetan bizi lagun izan zaituztedan guztioi.

Aretxabaletan, 2016ko urtarrilaren 15ean.

## ESKER ONA

**Inese  
Leibar Mendizabal**

Jose Mari Leteren alarguna

2016ko urtarrilaren 5ean hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 15ean.

## OROIGARRIA

**Miren  
Uribecheverria Bedia**

2016ko urtarrilaren 9an hil zen.

*Neguaeren besarkadak  
Eraman zaitu, baina  
Zure izanaren berotasunak  
Gugan iraungo du  
Eguneroko oroimenean.*

Zure kuadrilla.  
Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 15ean.

## URTEURRENA

**Pakita  
Ezkurra Arozena**

2015eko urtarrilaren 18an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 17an, 12:30ean,  
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 15ean.

## URTEURRENA

**Miguel  
Aramendi Ugarte**

'Korta'

2015eko urtarrilaren 16an hil zen, 69 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza larunbatean izango da,  
urtarrilaren 16an, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Eskoriatzan, 2016ko urtarrilaren 15ean.**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.****ASTE BARRUAN, BAITA ERE:****ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 36 61  
605 71 24 69.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.**HILDAKOAK****Jose Luis Egia Elkorobarrutia.**  
Arrasaten, urtarrilaren 4an. 85 urte.**Dionisio Abasolo Askasibar.**  
Aretxabaletan, urtarrilaren 4an. 93 urte.**Jose Luis Agirregomezkorta Arregi.**  
Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 74 urte.**Inese Leibar Mendizabal.**  
Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 82 urte.**Maria Madariaga Ormazabal.**  
Bergaran, urtarrilaren 7an. 88 urte.**Maria Angeles Molina Carrion.**  
Aretxabaletan, urtarrilaren 7an. 100 urte.**Maria de los Angeles Gonzalez Rubio.**  
Arrasaten, urtarrilaren 7an. 78 urte.**Jose Antonio Jauregi Loiti.**  
Aramaion, urtarrilaren 8an. 76 urte.**Miren Uribetxeberria Bedia.**  
Arrasaten, urtarrilaren 9an.**Frantziska Bengoa Vitoria.**  
Arrasaten, urtarrilaren 9an. 90 urte.**Maria Cruz Galdos Aiestui.**  
Arrasaten, urtarrilaren 9an. 95 urte.**Carmen Unzurrunzaga Lazpiur.**  
Bergaran, urtarrilaren 10ean. 94 urte.**Frantzisko Munduate  
Beitilaringoitia.**  
Eskoriatzan, urtarrilaren 10ean. 74 urte.**Pilar Ojanguen Badiola.**  
Elgetan, urtarrilaren 12an. 95 urte.**Elena Unamuno Arriaga.**  
Arrasaten, urtarrilaren 12an. 86 urte.**Cristina Sanchez Zamora.**  
Arrasaten, urtarrilaren 12an. 100 urte.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin,  
nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:  
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*

maribi 617 44 21 55  
BERGARA





Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Goiko Benta jatetxeko udare-tatin beroa.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:  
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-01-15

BUKATZEKO

## Izotz-hockeya lantzen, Finlandian

- ▶ Agustín eta Jone Oianguren aita-alabak egon dira hango campusean, urtarrilaren 3tik 8ra
- ▶ Maxim Ivanov hockey jokalaria ohiaren aginduetara egon dira hainbat teknika lantzen

MIREIA BIKUÑA | ARAMAIO

Errusia aldeko kirolariek goi mailako kirolari izateko sufritzen duten diziplinaren lekuko izan dira Jone eta Agustín Oianguren aramaioarrak. Imatran (Finlandia) izotz-hockeyari buruzko campus baten egon dira. Urtarrilaren 3tik 8ra, Maxim Ivanov jokalaria ohiaren aginduetara egon dira. "Ikusgarria eta nekagarria izan da aldi berean. Asko ikasi dut, baina leher eginda heldu naiz etxera", adierazi du Jone Oiangurenak.

### Psikologekin lanean

Agustín eta Jone Oianguren aita-alabak Hanka Labankako kideak dira. Agustinek patin-hockeyan jokatzen du Bergarako taldearekin eta Jonek izotz-hockeyan Donostiako Kazkabarra taldean. Biak patin gainean, baina modu ezberdinean. "Teknika ezberdina eskatzen dute biek ala biek. Patin gainean ibitzeko modu ezberdina, eta hori lantzeko joan gara Finlandiara", azaldu du Agustín Oiangurenak.

Eta hara heldu orduko, diziplina eta zorrotztasuna ikasi dituzte. Errusiako kirolariek oso barneratuta dituzten kontzeptuak. "Psikologoek argi eta garbi esan



Jone Oianguren aramaioarra campusean izandako irakasleekin. | A. OIANGUREN

zieten barruan duten guztia ataratzeko ikasi behar dutela goi mailako jokalaria izan gura badute. Norberak bakarrik izan behar duela. Ezin daitekeela beste inorekin konparatu. Mentalki oso indartsua izan behar dutela, alegia", esan du.

### Maxim Ivanovekin

Hori guztiori Maxim Ivanovekin lantzeko aukera izan du Jonek.



Maxim Ivanovekin. | AGUSTIN OIANGUREN



Imatrako laku izoztuan. | A. OIANGUREN

Talde txikietan banatuta izotz-hockeyaren teknikak landu ditu behin eta berriro. "Campuseko atezain bakarrik izan naiz. Ia ez dut atsedunik izan, baina oso aberasgarria izan da. Ivanovek egiten dituen gauzak ikusgarriak dira. Erakutsitako guztia barneratzen saiatu naiz eta Bartzelonaren kontra ditugun partidua garrantzitsuetan erakusten ahaleginduko naiz", adierazi du Jonek.

Esperientzia aberasgarria izan dela ikusita, uztailean beste campus baten parte hartzeko aukera ez dute baztertzeko aramaioarrak. "Ahizpa eta biok joango gara, akaso. Ainhoak ere Kazkabarra taldean jokatzen du nirekin", esan du.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Tobera, agur

Duela bost urte lana utzi berri nengoen Kutxan. Eta Toberan parte hartzeko proposamena egin zidatenean, ausartu egin nintzen. Astia neukan eta lotsa handirik ez. Eta eskualdearen nortasuna indartzea zen helburua, beraz...

Orain arteko bost toberean izan naiz epaile. Azkenean, tarte labur batez. Berriro lanean nabil, oraingoan Aldundian, eta ez neukan asti handirik entseguetara joateko. Baina ez nuen beste barik utzi nahi, eta eskatu nuen oholta gaitetik despeditzeko aukera. Baita jaso ere. Bihotzekoak eman arren, gai izan nintzen lekukoa pasatzeko epaile berri bikainari.

Balantzea egiteko orduan, ez daukat argi zer lortu dugun. Ez, behintzat, eskualdeko dinamika indartsu bat, Tobera ibiltarien bidez sortua. Esango nuke herritik herrira ez dela indarra metatu, ardura eskualdatu baino ez.

Eta, hala ere, oroipen ahaztezinak gordeko ditut betiko. Prestaketa afariak, entsegu ondorengo meriendak, azken egunetako urduritasunak... Eta, batez ere, urteroko miraria, gure moduko txorimalo kuadrilla bat egun batez talde sendo bihurtu eta bere onena ematen; eta antzokiak edo frontoiak betetzen, sarrera mordera salduta.

Agur, Tobera, agur.

Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Esan baietz betiko

RPS: 741/13

Rosa Sarabia doktorea

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel.: 943 79 44 22.

PronoKal metodoa

Zientzia eta zorrotztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSIDATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA  
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA  
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK  
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.